

ttipi-ttapa



Itziar Alduntzin
Leitzako kazetari
ezagunarekin kontu
kontari / 8



Ioar Oteiza lesakarra
Durangoako Azokako
komunikazio
arduraduna / 19



Baztan Ikastolaren
50. urteurrena
solasgai Karmentxu
Elizegirekin / 40

SINADURAK



MONIKA
AGIRRE
CASCALLANA / 3



AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3



PELO
APEZTEXE
ZUBIRI / 4



IZASKUN
ZUBIALDE
GRAJARENA / 4



Noel ETXEBERRIA EIHERAGARAI | Esklerosi Anizkoitza duen arizkundarra

«ESKLEROSI ANIZKOITZAK BIZITZA AUNITZ ALDATU DIT»

Sendabiderik ez duen eta degeneratiboa den gaixotasunari buruzko erreportajea osatu du TTIPI-TTAPAK urteko lehenbiziko aldizkari honetan.

Horren barrenean, gaitza duen Noel Etxeberrria arizkundarraren bizipenak bildu ditu. / 10

Memoria duten eskolak

Eskualdeko bartz ikastetxek 'Memoria duten Eskolak' programarekin bat egin dute. / 45

IKASTOLA

BAZTAN · LESAKA · BERA

herritik
sortua, herriarentzat

ZATOZTE ZUEN IKASTOLA
EZAGUTZERA!

hezkuntza eredu eraldatzailea euskararen ardaztutako euskal curriculumak ikasmaterialgintza propioa
propioa aitzindaritza pedagogikoa eleaniztasuna kooperatibitatea auzolana eta elkartasuna



URTARRILETIK
AITZINERA
BISITAK
ADOSTEKO:

BAZTAN IKASTOLA
948 45 24 48

TANTIRUMAIRU IKASTOLA
948 63 73 08

LABIAGA IKASTOLA
948 63 01 72



NIRE TXANDA

MONIKA AGIRRE CASCALLANA

Laugarren artea

Ondokoaren izerdia zurearekin nahasia usaindu, beroa pasatu, eskuan duzun tragoarekin kamiseta busti, norbaiten zigarroaren sua zure besoan sentitu, ukondo-kolpeak jasan, belarriak zulatu... Horrelakoxeak izaten dira kontzertu batzuk: biolentziaren muga dantzaten diren basurde-bes-tak. Baina kontzertu batean sortzen den giroak harrapatzen zaituelarik, musikarekin bat egin eta musikariaren energia zure egiten duzularik, aipatutako mixeria ttiki horiek guziak jokoaren parte bihurtzen dira, eta gozamenari irekitzen zaizkio ateak parez pare.

2020ak kolpez itxi zituen musika-areto, kafe-antzoki eta halakoak, eta, geroztik, iduritzen zait bizitza pusketa bat galdu dudala nonbait. Finean, zurtz gelditu gara musikazaleak; noraezean musikari eta teknikariak.

Momentuz, badirudi deus guti egiten ahal dela: antolatzen diren kontzertu pixarretara joan, eta lerro xume hauen bidez bada ere, laugarren artearen garrantzia goraiatu.

«ZURTZ GELDITU GARA MUSIKAZALEAK; NORAEZEAN MUSIKARI ETA TEKNIKARIAK»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Aerosole mio!!!

Haur denboran muki-arraka ibiltzen ginen, lerre-dario nerabezaroan, listua zirtaka botatzen edo izerdi-putzutan gaztetan... koronabirusaren ondoko lehen urte honetan, aldiz, aerosola jaurti bertzerik ez dugu egiten, gotikulak isuri fin-fin erranda. Garai batean ozono-geruza zulatzen zuten aerosolek, baina orain, oraindik arrisku handiagoa dute.

NABARMENTZEKOAK



AROA
UHARTE
IDAZLEA



MIXEL
URBISTONDO
HILBERRIA

Aleksandra Kollontairen lana errusieratik euskarara itzuli du Aroa Uhartea leitza-rrak, EIZIE elkarte eta Erein eta Igela argitaletxeekin. *Erle langileen amodioa* literatur-lan baten lehen itzulpena du.

70 urterekin, abenduaren 7an hil zen Mixel Urbistondo Kaiku saratarra. Hargina lanbidez, euskal kulturaren jarraitzailea, eta Herriko Kontseiluan hamabi urtez aritua.

ATZERA BEGIRA



2011-01-06 · TTIPI-TTAPA · 533 zk.

Hiperaktibitatea eta arreta gabezia hizpide

Duela hamar urte Arreta Gabezia, Hiperaktibitatea eta Inpulsibotasuna Tratatzeko eta Ikertzeko Nafarroako Elkartearen sortzaile eta orduko lehendakari M^a Jesus Torres Mendikoa elbetarra elkarrizketatu zuen TTIPI-TTAPAK. ADHN edo arreta defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duen alabaren egoerak bultzatu zuen elkarrekin sortzera eta ordura arte egindako ibilbideaz, erronkez eta ADHNaz mintzatu zen TTIPI-TTAPAREKIN. Erronken artean, administrazioari luzatu zion mezua: «Eskola eta osasun etxeetan arreta espezializatua eskaintzea nahi dugu eta hori administrazioari dagokio». Gurasoei, berriz, «ADHNa esker oneko trastornoa dela eta lan eginez gero etorkizun ona izanen dutela» adierazi nahi izan zien.



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemalleak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apezetxea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senperoko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 40€
eta Malerrekako 30€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Legeak egitea eta betetzea

Legea. Maiz entzuten den solasa. Jendartea egoki bizitzeko beharrezko jotzen den tresna. Demokrazia izeneko gobernatze sisteman funtsezko omen dena. Sistema honetan, hain zuzen, legebiltzarra deitzen dena da instituzio nagusia, legegilea. Bete, berriz, herritar guzietan bete behar dituzte biltzar horrek sortutako legeak.

Hain erraz eta solas gutitan adierazitako gaiak zailtasun eta problema ugari daramazki berekin. Izan ere, legea jendearen bizimodua egokitzeko izaten ahal da, baina baita bizimodu hori okertzeko ere. Aunitzetan legea jende arrunt eta menpekoari betearazten zaio, ahaltsuek, kargudunek eta dirudunek axolagabeki baztertzen duten bitartean. Berriki aritu dira Legebiltzarrean gobernuak 'segurtasun legea' izendatutakoaz eztabaidan. Eta gehien nahia lege hori kendu edo aldatzea da herritarren mintzatzeko eta manifestatzeko eskubideak ukatzen baititu neurri handi batez. Hor dabilta lantegietako hartu-emanen legearekin ere gatazkan, langileen irabazi eta zenbait eskubide murrizten dituelako, nagusienak soberan zaintzen dituen bitartean. Bi adibide ditugu.

Hara legearen tranpa. Legearen ustezko santutasuna, eta ondoriozko nagusitasuna agintarien botere makila bilakatzen da dira. Legeak eurek sortu, eurek aldatu, eta betearazi edo ez

«LEGEAK EZ DIRA SANTUAK. LEGE-GILEAK SANTUAK EZ DIREN BEZALA»

betearazi eurek erabakitzen baitute. Eurak dira legegileak, legebiltzarra; eurak dira lege interpretatzaileak, epaileak; eta eurak ditugu lege bete-arazleak, gobernuak, armada eta armadun guztien babesaz. Lege betearazleak legegileek hautatzen dituzte, gobernuak legebiltzarrak hautatzen du; epaileak legegileek eta gobernuak aukeratuak dira. Erabaki guztiak agintarien esku daude. Legezko agintarien esku, eta, neurri batean, horietan eragiten duten de facto edo egitatezko bertz boteredunen baimenarekin: dirudunak, batez ere.

Legeak ez dira santuak, ez. Legegileak ere, aunitzetan, santuak ez diren bezala. Gehiago eta gogorrago erran behar ote genuke, hainbatetan, gaizkileak direla? Jende aunitzi kalte egiten baitiote. Egunero aditzen eta sentitzen ari garena hori da.



IZASKUN ZUBIALDE GRAJIRENA

Ezohiko Eguberriak

Abendua... iritsi da azkenean, eta iritsi bezala joan da. Ezjakintasuna izan da gure etxeetan eta familietan nagusi. Familia Nafarroatik at dugunok, ezin jakin azken momenturaino ikusteko aukera izanen genuen, ikusiz gero, elkarrekin otordua egiteko aukera izanen ote genuen, noiz arte, nola... Azkenean, ziurtagiri batekin abenduaren 23tik 26ra eta 30etik urtarrilaren 2ra bai, gero Urtezaharretako datan ez, lehenik 01:30 arte, gero 23:00 arte...

A ze nolako buruhaustea izan dugun egunotan. Azkenean, eta etxeko egoera kontutan harturik, bakoitzak bere etxean egunak ospatzea erabaki dugu gehienok. Aurtengoan horrela beharko duela esan diogu geure buruari eta jarrera ardurasuena hori dela pentsatzen dut.

Baina denek horrela egin ote dute? Dirudien ez, izan ere, Urtezaharreko baimena bertan behera gelditu zen kutsatu kopuruak gora egin zuelako. Ze pena! Batzuk zuzen-zuzen bete ditugu Osasun Departamentuak emandako argibideak, eta beste batzuek, berriz,...

Axolagabekeria honekin jarraituz gero, ez dugu birus alu hau gaindituko, eta gehien sufritzen ari direnak gure xaharrek dira. Asko gerra, goseteak, eskasia... gainditzea lortu ondotik, birusak eraman ditu bakardadean. Ikaragarria!!!

«NIRE DESIOA 2021EAN NORMALTASUNERA BUELTATZEA DA»

Egunotan berria, berriz, txertoa dugu. Badirudi miraria dela, baina ez, ez da hala. Nahiz eta txertoa jarri, ez dugu lasaitu behar, izan ere, txertatuek ere kutsatzeko aukera dute, beraz, erne ibili eta asko zaindu.

Askotan pentsatzen aritzen naiz hau guztia pasatu ondotik nolakoa izanen den gure gizartea. 2020ko martxoan baino lehenagokora bueltatuko ote gara? Nahi bai, nik behintzat hala nahiko nuke, baina ez zait iruditzen. Beldurra sartu zaigu barruan, bakarkako bizitzara ohitu gara, etxetik lanera eta lanetik etxera musukoa momentu guztian erabiliz eta, musukoa kendu eta berriz lehengora bueltatzeko prest al gaude? Gogoia bai, badugu, baina geure buruak utziko al digu? Nik uste, horretarako prestatu beharko dugula, buruaren erruz zaila egingen zaigulako.

Nire desioa, berriz, 2021 urtean 'normaltasunera' bueltatzea da, familia eta lagunez askatasunez gozatzeko aukera izatea eta datorren urtean, data hauetan Eguberrietan izandako elkartasun eta pozaz idazten aritea da. Ea denon artean lortzen dugun!!!

11 GALDERA LABUR

PATXI GOYENETCHE SARA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN

«Nire ametsa munduari itzulia ematea da. Baina berriz Sarara itzuliz!»

Nola aurkeztuko zenuke zure burua?

Sartar euskaldun gaztea, 28 urte bete berriak eta, jada, Larrungo trenean 6 urte daramatzana.

Zein dira zure zaletasunak?

Zaletasun anitz. Kirolean, bereiziki, pilota, bidaiak, mendian ibiltzea eta, noizean behin, lagunekin besta egitea! **Zein herrialde bisitatu dituzu?** Munduan barna: Kolonia, Brasil, Argentina, Thailandia, Laos, Camboia eta Vietnam. Europan, berriz, Irlanda, Eskozia eta Katalunia.

Zein herrialdetan egon zara?

Hego Ameriketan biziki ongi sentitu naiz, jendea irekia da eta haiekin harremana egitea erraza izan da. Gero, Asiako kultura gurearekin alderatu-

ta hagitz ezberdina da eta hori zinez maite dut.

Hizkuntzeekin moldatu zara?

Bai, frantsesa nahiz gaztelaniarekin erraz moldatu izan naiz munduan zehar.

Baina beti Sarara itzultzen zara...

Hori segur! Sarako xokoak, lagunak, familia eta mendiak maite ditut. Hemengo bizitza maite dut, lasai bizi gara hemen. Parisen bizi banintz, ez nintzen itzuliko!

Lasterketetan parte hartzen duzu?

Egia errateko, baten batean bai. Baina ez anitzetan.

Aurtengo kontrabandisten lasterketan parte hartu zenuen

Bai, abuztuan kontrabandisten lasterketan parte hartu nuen. Ttikitatik nuen ametsa zen eta aurten bete dut. Aur-



tengo testuingurua berezia izan da, jende gutiago zegoen eta denak maskarekin. Baina, hala ere, biziki giro polita izan da.

Bestazalea, nola ikusten duzu sarako gazteria?

Gazteri ederra dugu Saran. Batzuk euskal mundua eta gaztetxea gehiago babestu eta sustatzen dute eta bertze batzuek kirolaren aldeko apustua egiten dute: errugbia, pilota eta lasterketak, bere-

ziki. Hori bai, denak bestazale ederrak!

Euskaraldia eta euskara Saran?

Nik ahobizi rolean izen-eman dut. Saran nahiko zabaldua atzematen dut euskara, nahiz eta frantsesa ausarki erabiltzen dugun. Hala ere, ahaleginak egiten direla ikusten dut, adinekoekin edo umeekin mintzatzean adibidez.

Amets bat?


Munduari itzulia ematea. Baina berriz Sarara itzuliz!

Merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Bizikidetzaren demokratikoa

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Euskal Herriak, segur aski, munduko gainerako nazio gehienek bezalaxe, aspalditik ezagutu ditu bere lurraldean, egundoko gatazkak eta liskarrak. Aski dugu pixka bat gogoratzea, azken hamarkada hauetan izandako ETaren borroka armatua eta estatuaren gerra zikina. Baina, atzerago jotzen badugu, hortxe agertuko zaizkigu Francoren altxamendu faxista bere errepresio, diktadura eta zapalkuntza guztiarekin, eta, erantzun moduan, ETaren sorrera. Baina, jarraitzen badugu atzerago, hor topatuko ditu Primo de Riveraren diktadura, Karlismenak, Iruñeko eta Nafarroako Erresumen konkista eta suntsipena, armen bidez eta abar.

Baina, bueno, itzul gaitezen berriz ere oraingo garaira, eta, zalantzarik gabe, berehalaxe ikusiko dugu, oraindik ere, premia handia dagoela gure herrian, benetako bizikidetzaren demokratiko osoa lortzeko; jakina, osoa ez dugu inoiz erdietsiko, baina, behintzat, hobe bat, uste dut, denok nahiko genukeela.

Foro Sozial Iraunkorra 2016an sortu zen, eta, alor honetan ere, bere ekarpena egin nahian ari da azken lau urteotan. Horretarako, beste hamazazpi erakundeen lankidetzarekin, printzipio-akordio baten bila dihardu lanean, eskubide zibil, politiko eta sozial guztiak babesteko eta indarrean jartzeko. Alde horretatik, guztiz ezinbestekoa da Frantzia eta Espainiako gobernuak pauso gehiago ematea, biktima batzuen diskriminazioari bukaera jartzeko, esate baterako, espetxe politikek egindako mina aitortu beharko lukete, oinarri demokratiko berriak ezarri, demokratizazio sakondu eta abar.

Baina, zoritxarrez, badakigu estatu horietatik, berez, ez direla etorriko halako ekintzak, eta, horrexegatik, Foro Sozial Iraunkorra, beste hamazazpi erakundeekin, saiatzen ari da eztabaida prozesu kolektibo eta parte-hartzaile bat aktibatzen. Pertsona eta kolektibo bakoitzak hausnartu behar du ea zer ulertzen duen

bizikidetzaren demokratikoaz eta bakeaz. Korapiloak desblokeatzeko, ezinbestekoa da gutxieneko adostasuna, eta, horretarako, zenbait gai hausnartzen dihardute: enpatia, mina, errespetua, berdintasuna... (...) Gogoeta nola eraman aurrera, nola dinamizatu, nola erraztu, interpelatu eta konprometitu ere lantzen ari dira.

Diagnostikoan, bi gaitan adostasun handia dago, alegia, indarkeria-adierazpen guztien biktima orori egitarako, aitortza ofizialerako, justiziarako eta erreparazioarako duten eskubidea bermatzean, eta, presoen, iheslarien eta deportatuen auzia behin betiko konpontzean ere bai, oraingo salbuespenezko espetxe politika desaktibatzean. Baina hirugarren gaitan, momentuz, ez dago adostasunik; gai oso sentikorra da eta hainbat ikuspuntu daude. Oroimen kritiko inklusiboan sakondu beharra dago, sufrimendu guztiak aitortzeko, iraganeko izugarrikeriak berriro ez gertatzeko (...), gizarte konpromisoa ezarri hurrengo belaunaldientzat, eta bat eta beste. Baina honetan guztian, gutxieneko eduki batzuk izatea behar-beharrezkoa da: erakunde demokratiko eta gizarte osoaren erantzukizuna, ezberdintasun ardatz asko daudelako, adina, sexua, egoera ekonomikoa, hezkuntza eta abar; parte hartze eta elkartasun handia behar da, pertsona guztien eskubide oro errespetatzeko; konpromisoa alderdi guztiek hartu beharko lukete, biktima ororen mina aitortzeko, zeren eta, oraindik dirauen sufrimenduari bukaera jarri beharko bailitzaioke. Biktima guztiak gure egin beharko genituzke, gizarte osoarenak, parekatze eta bereizkeriarik gabe. Halaber, motibazio politikoagatik dauden preso eta iheslariak, behin betiko konponbidea eman beharko litzaieke, behingoz, gizartera daitezzen. Konpromisoa hartu beharra dago, inongo biktimarik berriz ere biktima ez bihurtzeko eta giza eskubide guztiak errespetatuko dituen gizarte bat sortzeko. Azkenik, Euskal Herriak lortu nahi duen helburu politikoa eskuratu ahal izatea bermatzea, betiere, jokabide demokratikoen bitartez.

BOTA BERTSOA

EXHI ROJO RODRIGUEZ

LESAKAKO BERTSOLARIA
IRUÑEKO BERTSOPAPER
LEHIAKETA, A MAILAN
1. SARIA



Garai arraro hauetan

Doinua: Itsasoari begira

*Irailak 7 dituen hontan
giroa arraro dago
ikastolara etorri gabe
egondu gara luzaro
ta orain hemen arau pilakin
eroturikan zeharo
elkarregandik distantziatuta
musukoaren esklabo
oztopo pila ditugu baina
behintzat lagunekin nago!*

*Covidarekin ailegatu zen
espero ez genuena
konfinamendu, telelana ta
gurasoentzat dilema
ordenagailu eta tabletak
betez paper nabarmena
bizkotxo eta bertso artean
garatuz gure sormena
batzutan garai zailetan eman
ohi dugu gure onena.*

Hauexek dira, Foro Sozial Iraunkorra, une honetan, lantzen ari den gaietarako batzuk, gure herrian elkarbizitza demokratiko hobe bat erdiesteko. Argi dago dena hobetu ahal dela, baina, printzipioz, ez zait batere txikia iruditzen, Foro Sozial Iraunkorra aurrera eramaten ari den lan guztia. Horretarako, ekimen batzuk proposatzen ditu hurrengo hilabeteetarako: ekarpen gehiago jaso (elkarte, fundazio eta erakundeetatik) denen artean adosteko; pertsona erreferententzandik iritziak hartu; postontzi publiko bat jarri ekarpenak egiteko; konferentzia publikoak antolatu; eta bestelako ekimen batzuk ere egin, maiatzaren 16a bitarte, orduan ondorioak publikoki aurkeztu.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

* AHAL NAIZ KOMUNERA JOAN?

Gero eta gehiagotan entzuten ditugu izenburuko esaldien hurrenkera duten perpausak; hau da, *ahal + aditza* ordenan osatuak. Gaztelaniaren eraginez gertatzen da hori, *poder + aditza* baita ohiko ordena hizkuntza horretan eta ordena hori kalkatzen du zenbaitek.

Euskaraz, ordea, *ahalek* kokagune finko samarra du, lagun duen aditzaren ondotik, hain zuzen: *joan ahal, etorri ahal, jan ahal...*

Hona hemen adibide batzuk:

-*Ahal dut jan? > **Ja(te)n ahal dut?**

-*Ahal didazue lagundu? > **Laguntzen ahal didazue?**

-*Ahal dut hitz egin? > **Hitz egiten ahal dut?, Hitz egin ahal dut?**

-*Ahal naiz komunera joan? > **Komunera joa(te)n ahal naiz?, Joan naiteke komunera?**

Nola erran?

'A!' EDO '*AH'?

Euskaraz

interjekzioak *a!*, *e!*

eta *o!* dira, eta ez


**ah!*, **eh!* eta **oh!*

-A, ikusi banu!

-A, zer ona zaren!

Bitxikeriak

Osatu erran zaharra!



«20 urte nituenetik askatasun osoz lan egiten utzi didate»

ITZIAR ALDUNTZIN NAVARRO LEITZAKO KAZETARIA ETA KOMUNIKATZAILEA

ETB2ko 'Qué me estas contando' saioko aurkezlea da gaur egun Leitzako irrati esatari eta telebista aurkezle ezaguna. Hedabideetan egin duen 25 urteko ibilbideari erreposoa egin dio TTIPI-TTAPAREkin

G. PIKABEA | LEITZA

Ofizios eta pasioz «kazetaria eta komunikatzailea» da Itziar Alduntzin Navarro (Leitza, 1976). Aurkezpen gutxi behar duena, ezaguna baita bere ahotsa, ezaguna bere aurpegia. Urte luzez goxatu ditu Gaztea, Euskadi Irratia eta Onda Vascano entzuleen belarriak, eta telebistan ere ezagun egin da, ETBn, besteak beste, garai batean *Sorginen Laratzan* eta orain *Qué me estás contando* saioan. Zorteko sentitzen da, batetik, bere lana maite duelako eta bestetik, «libre» sentitu delako lanean, «nahi dudana edo neure buruak sortu duena egiten utzi didatelako». Azken 20 urteotan bizileku duen Donostiatik erantzun dizkio galderak TTIPI-TTAPARI, baina bihotzez «oso leitzarra» dela ageriko utziz, bere hitzetan, «haurtzarora non pasatu duzun, hori da zure herria». Haurra zela «Iruñe lagun minarekin pasatako momentu oso onak» ahaztu gabe, bere ibilbide profesionala gainbegiratu du tar-te honetan.

Argi zenuen kazetari izan nahi zenuela?

Txikitan irrati eta telebistako aurkezle lanak egiten aritzen nintzen eta bereziki irratarako zaletasunak erakarrira erabaki nuen kazetaritza ikastea. Aurreneko ikasturtean unibertsitateko irratiari hasi nintzen eta hirugarren mailan bekadun Euskadi Irratian. Gero, 15 urte eman nituen

Gaztean. Euskadi Irratian eta Onda Vascan ere aritu naiz.

15 urte Gaztean. Nolako oroitzapenak dituzu?

1998ko udan hasi eta 15 urte egin nituen. Hasierako bi urteetan asteburuetan aritu nintzen eta gero *Salgai* saioan. Horixe izan zen betitik sortzeko izan dudana gogoalibre uzteko lekua, eskola handia, irrati diferente bat egiteko aukera eman zidana. Komunikazioan trebakuntza, askatasuna eta ni izateko aukera eman zidan. Asko ikasi nuen.

2000-2002 artean Sorginen Laratzan ere ibili zinen...

Telebistan nire aurreneko lana izan zen. Irratia utzi gabe aritu

nintzen eta ez zen malaka izan. Gustura ibili nintzen, baina bi lanak batera egitea zaila da. Abentura potentea izan zen.

Aldaketa handia izan zen?

Irratiak eta telebistak ez dute zerikusirik. Irratia tikiagoa da eta produktua hasieratik bukatu zuten egiten duzu. Telebistan, produktuaren zati bat zara, lantalde handi baten parte, baina bakoitzak bere lan egiteko modua mantentzen du.

Euskadi Irratiko Kantu Kontari eta Blaierere zure saioen zerrendan daude...

Gaztean nengoenean, *Bostak Kanarietan* saioa ere egin nuen Euskadi Irratirako eta oso dibertigarria izan zen. Irudime-

na libre utzi eta oso produktu landua egin nuen. *Kantu Kontarin* egindako lanaz ere oso harro nago. Euskadi Irratian beti asko zaindu naute.

2017tik 2020ra Onda Vascan...

Bai, Gipuzkoako magazina egiten eta zuzentzen. Gauza berriek bertigoa sentiarazten dute, baina traba handienak norberak bere buruari jartzen dizkionak dira. Denborarekin ohartzen gara horiek gainditu eta egin ditzakegula. Onda Vascan, gai politikoak eta sozialak asko jorratu nituen, eta esperientzia bikaina izan zen, beste alderdi batzuk lantzeko aukera eman zidan.

Saio elebiduna zen. Hizkuntza aldatuta eroso sentitu zinen?

Ez nengoen ohituta eta horrek zer pentsatua eman zidan. Baina libre utzi zidaten eta ahal nuen guztia euskaraz egitea erabaki nuen. Elkarrizketatuak euskaraz ez bazekien edo erdaraz egiteko eskatzen bazidan, erdaraz egiten nituen, baina euskaraz ulertzeko gai bazen, euskaraz egiten nion eta berak nahi edo ahal zuen moduan erantzuten zuen. Asko izan ziren elkarrizketa erdaraz hasi eta euskaraz bukatu zutenak eta horrek izugarritzko poza ematen zidan. Konbentzituta

Motzean

Zeure burua hitz gutxitan.

Kazetaria eta komunikatzailea.

Zein afizio dituzu?

Irakurtzea; irrati, podcastak eta musika aditza; zinera eta tarteka mendira joatea...

Zer albiste ematea gustatuko litzaizuke?

Pandemia bukatu dela.

Nor elkarrizketatuko zenuke gustura?

Elkarrizketatu dut, Ramon Saizarbitoria. Asko gustatzen zait bera hizketan entzutea.

Kazetari bat?

RNE irratioko Pepa Fernandez. Esatari elegantea eta jantzia da, errespetuz aritzen dena.

Kamara edo mikrofono aurrean maniarik?

Asko. Beti denborarekin ibiltzea gustatzen zait. Irratian kasko estuak behar izaten ditut.

Dantzatzen duen herri bat?

Leitza.

Musika talde bat?

Denetarik pixka bat: Berri Txarrak, Ruper Ordokika, Mikel Laboa, Josu Gallastegi...

Jaki gustukoena?

Odolkia, txipiroiak tintan, paella, banabarrak...

Abesti bat?

Garai hauetarako Aita Donostiaren *Oinazez*.

Liburu bat?

Stoner eta *Martutene*.

Donostiako hondartza ala Leitzako mendiak?

Ezin bizi ez bata ez bestea gabe.

Leitzako txororik gustukoena?

Haurtzaroko txokoak: elizaren ingurua, ikastola zegoen toki, plaza, Iturrizar, Leitzalarrea, trenbidea, Usategieta...

Irratia edo telebista?

Bizitzak irratiara eraman nau baina ezin dut aukeratu.



ETB2ko *Qué Me Estás Contando* saioako aurkezlea da gaur egun Alduntzin. Astelehenetik ostiralera 17:30ean izaten da ikusgai.

nengoen hori zela bidea, euskara naturalki sartzeko modu hobereana izan zitekeela, baina aldi berean, beldurra sentitu nuen, zuzendaritzak, entzuleek edo elkarrizketatuak nola hartuko ote zuten beldur nintzen. Euskaraldia etorri zenean lasaitu nintzen, ongi ari nintzela baieztatzeke balio izan zidan. Ezin dugu euskaldunak edo euskaraz hitz egiten dugunak alde batetik eta euskaraz hain ongi egiten ez dutenak edo ez dakitenak beste aldetik ibili, naturaltasunez ari behar dugu. **2015ean EITBko erregulazio txostenean sartu zintuzten. Nola hartu zenuen?**

Oposizioak izan ziren, ez nuen plazarik atera eta kito, ez dago besterik. Badakit askoz ere modu dramatikoagoan bizitu zutenak izan zirela, baina nire kasuan, 20 urte nituenetik askatasun osoz lan egiten utzi didate eta oso eskertua egon naiz beti. Pena hartu nuen hain gustukoa nuen lana eta lekua izanda, baina horrek beste leiho

bat ireki zidan Onda Vascan. Niretzat ikaragarriko aukera izan zen, asko ikasi nuen magazinen bat zuzentzen. Segur aski EITBn gelditu izan banintz, ez nituzke orain ditudan trebezia batzuk hartu izanen. Denak zer baitetarako balio du.

EITBn aukera gehiago etorri dira. Iaz Dantzaten den herrian aurkezle ibili zinen...

Telebistara horrela itzultzea asko gustatu zitzaidan. Herriz herri jendea dantzan jarri genuen, eta lantalde on batekin lan egitea oso polita izan zen. **Eta irailaz geroztik ETB2ko *Qué me estás contando* saioan...**

Salto handia izan da. ETB2ra joatea eta gaurkotasunari lotutako saio bat egiteko aukera izatea oso polita izan da.

**«EITB-N GELDITU
IZAN BANINTZ EZ
NITUZKE TREBEZIA
BATZUK HARTUKO»**

Orain arte egin duzun lanaren oso bestelakoa da?

Ez da hainbesteko aldaketa. 25 urte daramatzat elkarrizketak egiten. Berdin dio mikrofono edo kamara aurrean jarri, elkarrizketatua Berri Txarrak-eko kantaria den edo Covid-19ak jota dagoena den. Komunikatzaile ona izatea da kontua. Lan bat gehiago da. Auskalo bihar zer tokatuko zaidan.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Bakoitzak bere lan egiteko modua du, eta niri, betidanik, dena asko lantzea gustatzen zait, eta goizean haurrak ikastolan utzi, eta prentsa digitala irakurri eta irratia pizten dut. Ahal den guztia irakurtzen dut, albiste-giak ongi entzun, apunteak hartu... Zuzenekora prestatu-

**«KAZETARITZAN
KONTUA
KOMUNIKATZAILE
ONA IZATEA DA»**

ta joatea gustatzen zait eta goiz guztia horretan pasatzen dut. Eguerdian makillajea nagoen bitartean *Gaur Egun* kaskoekin entzuten dut. Gero, gidoiari begirada bat ematen diot, gehiago irakurri... 17:30erako ongi prestatuta egon behar dut, gerta daitekeen edozein ustekabekori aurre egiteko prest.

Nola baloratuko zenuke zure ibilbide profesionala?

Beti dakidan hobekien egiten saiatu naiz, pasioz, eta entzule edo ikuslearenganako errespetu osoz. Aitortu behar dut lan guztietan oso gustura ibili naizela, eta ia beti libre sentitu naizela, nahi dudana egiten edo neure buruak sortzen zidana egiten utzi didatelako.

Kazetaritza aunitz aldatu da?

Bai, gizartearekin batera. Erremintak aldatu dira eta kazetaritza egiteko modua ere aldatu da. Dena oso azkar egiten da, labur eta motz. Ez dut esaten txarra denik baina hausnartetarako tartearak ere behar dira. **Zer diozu Internetari eta sare sozialei buruz?**

Elkarrizketak egiteko oso tresna onak dira, informazio asko har daiteke. Twitter, adibidez, momentuko informazioa jasotzeko oso tresna ona iruditzen zait baina gainontzekoak beste buruzko informazioa biltzeko ez bada, ez zaizkit hain inportanteak iruditzen... Niri nire kontuak argitaratzea ez zait gustatzen, herriko plaza dela iruditzen zaidalako eta oso kontuz ibili beharrekoa.

Zein amets dituzu?

Orain pandemia pasatzearekin konforme naiz. Gertatzen ari dena tragedia bat da eta oso kontziente izan behar dugu. Badirudi haserre gaudela ezin dugulako lehen egiten genuena egin, baina ezin dugu horrekin tematu. Ezin da eta kito. Jende asko oso gaizki pasatzen ari da eta ezin diogu gure zilborrari bakarrik begiratu. Pasako da, eta bitartean izan gaitezen arduratsua. Egoera hau drama bat dela ukatuta gaizki daudenak ikusezin bihurtu baino ez ditugu egiten.

Esklerosi anizkoitza: sendaezina den gaitza

Sendabiderik ez duen eta degeneratiboa den esklerosi anizkoitzari buruz gehiago jakiteko Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartera jo du TTIPI-TTAPAK. Horrekin batera, duela bederatzirte gaitza diagnostikatu zioten Noel Etxeberria arizkundarraren testigantza ere bildu du

G. PIKABEA

Mila aurpegi dituen gaixotasuna. Hala izendatua da esklerosi anizkoitza. «Hainbat sintoma eragin ditzakeelako eta ia-ia bakoitzari modu diferentean eragiten diolako». Nora Goñi Beltza Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteko fisioterapeutaren hitzak dira eta sintomak askotarikoak diren arren, «ohikoenak nekea, zentzumen, oreka eta ikusmen arazoak, solas egiteko zailtasunak, nahi gabe egindako mugimenduak, espastizitatea edo muskulu-zurruntasuna, beso eta hanketan indar falta eta batzuetan paralisia» direla azaldu digu. Horien artean, «lehendabiziko seinaleak ikusmen arazoak» izan daitezkeela gaineratu digu: «lausoturik edo bikoiztuta ikustea edo ikusmena galtzea. Gorputzean kili-kiliak edo lokartuta izatearen sentazioa ere ager daiteke, baita espasmoa, mina, ahultasuna edo nekea ere».

Sendabiderik ez

Sendabiderik ez duen gaixotasun neurologiko eta degeneratiboa edo endekapenezkoa da esklerosi anizkoitza. Ez da hilkorra, baina gaur egun ez du sendabiderik.

«Nerbio sistema zentralean, garunean eta hezur-muinean, sortzen den gaixotasuna», dela aipatu du Goñik: «nerbio zuntzak mielina izeneko proteina eta gantzez osaturiko material batek bildu eta babesten ditu. Esklerosi anizkoitzarekin neuronek mielina galtzen dute lesioak—esklerosia— sortuz eta garunera doazen nahiz berta-

tik ateratzen diren bulkada elektrikoaketen edo oztopatuz». Orduan agertzen dira sintomak.

Jatorria ere ezezaguna du esklerosi anizkoitzak: «orain arte, ez da jakin zehazki zein den gaixotasun honen jatorria. Gorputzeko immunitate sistemen zelulek neuronei eraso egiten dietela erran izan da. Gaixotasunarekin agerraldi batzuk izan ohi dira eta normalean agerraldi horietan galdutako gaitasuna pixka bat berreskuratzen da, baina zenbaitetan hasieratik degenera-

tiboa izan daiteke eta kasu horretan ez dago errekeratze aukerarik. Bien arteko nahasketak ere izan daitezke». Gehiago ere kontatu digu: «oraindik ez dakigu esklerosi anizkoitza garatzeko aldaketa immunologikoak zergatik sortzen diren». Aldiz, «frogatuta» omen dago «faktore genetikoaren eta ingurugiroaren arteko nahasketa baten» artean dela.

Emakumezkoak eta gazteak

Intzidentzia tasa ehun milatik 120koa da eta horren arabera,

ESKLEROSI ANIZKOITZAK HAINBAT SINTOMA ERAGIN DITZAKE

BEREZIKI GAZTEEI ETA EMAKUMEEI ERAGITEN DIEN GAIXOTASUNA DA

Esklerosi anizkoitzaren elkarteak

Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartek urteak daromatza esklerosi anizkoitza eta bertze gaixotasun neurodegeneratiboak dituztenei arreta integrala emanez. Nora Goñiren hitzetan, «gaixotasuna dutenen eta haien familien eta inguruko bizi kalitatea



hobetzea» dute helburu «behar sozialei, fisikoei eta psikologikoei erantzunez», eta aldi berean, «gizartea sentibilizatzeko kanpainak» egiten dituzte: «hitzaldiak, *Busti zaitez* egitasmoa, boluntario kanpainak...». 1995ean jarri zuten oinarria, «irabazi asmorik gabeko elkarte bat» sortu zutenean. Egun, Antsoainen du egoitza, baina bertze eremu batzuetara ere zabaldu dira: Tuteran, Lizarran, Sakana eta Tafalla aldera. 18 lagunentzako den eta gobernuak kontzertatutakoa den eguneko zentro batez ere arduratzen dira. 21 profesionaleko lantaldea dute eta 545 bazkide, horietatik 392 gaitza dutenak.

Nafarroan 700 batek izanen lukete esklerosi anizkoitza. Bereziiki gazteei eta emakumezkoari eragiten diela kontatu digu Goñik: «20 eta 40 urte artean dituzten gaixotasun artean diagnostikatzen den gaixotasun neurodegeneratiborik ohikoenak da eta %75 emakumezkoak dira».

Diagnostiko «konplexua»

Elkarteko fisioterapeutaren hitzetan, «esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa batzuetan konplexu samarra da, ez delako proba bakarrarekin lortzen. Sintoma batzuk bertze gaixotasunetatik eratorriak izan daitezke eta horiek baztertu behar dira». Proba nagusietako bat erresonantzia magnetikoa omen da, «baina batzuetan ez da behin betikoa. Hortaz, behin betiko diagnostikoa izan arte denbora aunitz pasa daiteke eta aunitzetan diagnostikoa izan baino lehen hasten dira arreta eta sintomak murrizteko tratamendu farmakologikoak jasotzen».

Behin diagnostikoa hartuta, berriz, «gaixotasuna moteltzeko tratamendu farmakologikoei segitzin dute eta horrez gain, agerraldiak daudenean sintomak murrizteko botikak ematen dizkiete». Osasun Departamentutik errehabilitazio saio batzuetara edo mediku espezialistengana bideratzen dute gaixoa, baina «saio horiek denboran mugatuak» direla eta «behin hitzartutako saioak bukatutakoa alta ematen dietela» dio Goñik. Bere irudiko, ordea, ez dira nahikoak: «bizitza osoan eragina izan den gaixotasun bat dela kontuan hartuz, denbora luzez arreta integrala ematea beharrezkoa da». Horregatik, «elkartean, ahalik eta prezio ekonomikoei erantzun, hutsune hori betetzen saiatzen gara».

Ikerketaren beharra ere azpimarratu du, «esklerosi anizkoitza dutenen eta haien familien itzaropena» hori dela irizita. Bide horretan, «elkarre barrenean ikerketa lerroak»

«Gurpil-aulkian gelditzeak ematen dit beldurra»

NOEL ETXEBERRIA ESKLEROSI ANIZKOITZA DUEN ARIZKUNDARRA

«Nahiko izorratua nago». Hitz horiexekin azaldu digu Noel Etxeberria Eiherragarak (Arizkun, 1954) bere momentuko egoera. Duela bederatzirte diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza eta geroztik bizitza «aunitz» aldatu zaiola aitortu digu. Bere esklerosi mota «primarioki progresiboa» da eta «%60ko mendekotasuna» omen du. Are gehiago: «eskuinteko alde paralizatua» du, eta horrek «ibiltzeko zailtasunak» sortzen dizkio.

Noiz jakin zenuen esklerosi anizkoitza zenuela?

2007an hasi nintzen. Behin baino gehiagotan musurkatu eta erortzen nintzen eta ez nekien zergatik. Behin sukarra izan nuen eta gero eta gehiago erortzen nintzela ikusita medikura joatea erabaki nuen. Honek traumatologoarengana igorri ninduen eta zenbait proba eta galdera egin ondotik, segituan ohartu zen ez zela bere lana eta neurologiara bideratu ninduen.

Nola oroitzen duzu diagnostikoa eman zizuten eguna?

Diagnostikoa ematerako denbora aunitz pasatu zen. Has-

mentan bertze gaixotasun baten sintomak zirela pentsatu zuten eta hondarrean, traumatologiatik eta neurologiatik behin baino gehiagotan pasatu ondotik, erran zidaten diagnostikoa. Ez nuen ezagutzen eta medikuek azaldu behar izan zidaten. **Nola eragin du gaixotasunak zure egunerokoan eta bizitzan?**

Gauzak aunitz aldatu zaizkit. Kirol aunitz egiteko ohitura nuen, mendian aunitz ibiltzen nintzen eta bizikletan ere bai. Orain ezin dut egin.

Nolako bilakaera izan du gaixotasunak?

Mantso-mantso etorri da. Badi-tut bederatzirte eritasunarekin eta gero eta neke gehiago sumatzen dut eta gero eta gutiago ibiltzen naiz. Besoa geldirik dut eta ez dut deus egiten ahal.

Nola egin diozu aitzin gaixotasunari?

Astean behin Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartera joaten naiz eta fisioterapia eta feldenkrais saioak jasotzera. Ibiltzeko, berriz, *foot-up* ortesia, ferula eta bastoi bat erabiltzen ditut.

garatzen dituzte eta «kanpoko ikerketetan ere parte hartzen dugu». Argitu digunez, «Nafarroako elkartera Espainiako elkarterko kide da eta honek lortutako dirua esklerosi anizkoitzaren ikerketa interesgarrienetara bideratzen du. Gaur egun esklerosi anizkoitza progresiboari premiazko irtenbide eraginkorrak aurkitzeko erabiltzen da».

Baina administrazio publikoari ere bere ardura eskatu

dio elkarterko fisioterapeutak, «gaixotasun honen eta bertzeen ikerketak diruz laguntzen segitu beharko lukeela» uste duelako. Horrekin batera, «administrazioarekin arreta iraunkorra eta kalitatezkoa izatea bultzatzeko hitzarmena sinatzea» dute begiz joa: «modu koordinatuan esfortzuak batuz lan egitea beharrezkoa delako, bai diagnostikoa jaso duenaren bai haren inguruaren bizi kalitatea hobetzeko».



NAFARROAKO ESKLEROSI ANIZKOITZAREN ELKARTEA

Psikologikoki nola zaude?

Nahiko ongi. Denbora lagunekin pasatzen dut eta egunero pare bat orduz oinez ibiltzera ateratzen naiz. Bizikleta estatikoan ere ibiltzen naiz.

Bada bereziki beldurtzen zaituen zerbait?

Gurpil-aulkian gelditzeak ematen dit beldurra.

Zein tratamendu jasotzen dituzu?

Muskuluak erlaxatzeko, eritasuna geldiarazteko eta martxa hobetzeko hainbat botika hartzen ditut. Egia erran, ez dakit botika horiek zerbait egiten didaten edo ez... Horrez gain, duela zazpi urte Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartereko kide egin nintzen eta astean behin han ematen dida-

ten fisioterapia eta feldekrais saioen ondotik, aise hobeki sentitzen naiz.

Zein aholku emanen zenieke zure egoera bertsuandudenei?

Posible badute, Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartera joateko, on eginen dielako. Jendea ezagutzeak lagun du egiten du eta elkartean behar diren zerbaitzuzuzkiak eskura daude.

Gizartean zein mezu luaztuko zenuke?

Esklerosi anizkoitza zer den hobeki jakin behar genuke. Jendeak gaitzaren inguruko informazio gehiago behar luke eta bide batez, sentsibilitate gehiago izatea ongi etorriko litzauguke.

Bizi kalitatea hobetzeko zer egin?

Baina bizi kalitatea hobetzeko bidean, norberak bere aletxoak jar dezakeelako, hainbat gomendio partekatu nahi izan ditu Goñik: «elikadura osasuntsu eta orekatua egitea, pisua kontrolatzea, gatzaren kontsumoa gutxitzea, lotarako errutina eta ohitura osasuntsuak ezartzea, estresa gutxitzea, jarduera fisikoa modu erregularrean egitea, tabakoa saihestea, egunero eguzkitara atera-

tzea, ahalmen mentala lantzea eta umore ona izaten saiatzea».

Hortik aparte, elkartean behar duenari «babesa eta laguntza emateko» daudela oroitarazi du, jakitun direlako «esklerosi anizkoitzaren diagnostikoak gaitza duenari eta haren familiari egokitze prozesua eskatzen diela. Normala da batzuetan zer egin jakin gabe sentitzea baina ez izan elkartera hurbiltzeko beldurrik. Ongi etorriak izanen zarete».



Ricardo Baroja eskolak 1980an ireki zituen lehen aldiz ateak. UTZITAKOA

Ricardo Baroja eskola 40. urteurrena ospatzen ari da ikasturte honetan

JOXERRA LOPEZ RICARDO BAROJAKO IRAKASLEA

2020-2021. ikasturtean Ricardo Baroja eskolaren 40. urteurrenarekin batera, izena ematen dion Ricardo Baroja Nessiren jaiotzaren 150. urteurrena da

IZASKUN REKARTE | BERA

Eskola 1980. urteko irailean sortu zuten eta, Ricardo Baroja Nessi 1871eko urtarrilaren 12an. Ikasturte honetan Berako ikastetxeak biak omenduko ditu «omenaldi xume bat, egoerak behartuta» Joxerra Lopez Ikastetxeko irakasle eta zuzendari ohiak adierazi bezala.

Ikastetxea

Duela 40 urte ireki zuten eskola eta artistaren omenez, Ricardo Baroja izena jartzea erabaki zuten. Lopezek erran duenez «orain dela 15 urte besta handia egin genuen eskolako 25. urteurrena ospatzeko. Orduko leloak zioenez, *25 urte bai, bertze horrenbertze ere bai*». Oraindik ez dira urtemuga horretara ailegatu, baina «urrats sendoz harat» badoazela gaineratu du. Bai artista, bai ikastetxea sortu


zirenetik «mundua ikaragarri aldatu dela» onartu du zuzendari ohiak eta «aldaketa hauek

irakaskuntza erabat baldintzatzen» dutela azpimarratu du. «Egunerokotasunean or-

Ricardo Baroja Nessi

Ricardo Baroja Nessi hainbat arlo jorratu zituen artista izan zen. Bere aitaren, Serafin Baroja, lanbidearen ondorioz, Rio Tinton (Andaluzia) jaio bazen ere, gaztetatik hagit lotura hertsia izan zuen Euskal Herriarekin, eta, bereziki, Berarekin. Bertan familia-etxea zuen eta han hil zen 1953ko abenduaren 19an.

Bere lan batzuk aipatzearen, grabatzaile lanetan Goyaren oinordekotzat hartzen da, idazle bezala, Espainiako Lite-



ratur saria irabazi zuen *La Nao Capitana* obrarekin. Margolari gisa, Espainiako gerra zibilaren inguruko sarraskiari buruzko hirurogei taula margotuzituen, gai honen inguruko lan zabalena.

denagailu, tableta eta chrombooken presentzia gero eta handiago da. Irakasleoketen-gabeko prestakuntzan dihardugu, jaiotzetik mundu digitaallean dabiltzan ikasleen erritmoari jarraitzeko».

Hizkuntzaren arloan ere, hainbat aldaketa sumatu ditu «euskararen presentzia gero eta handiago da esparru guztietan. Segur aski inoiz baino handiago izanen da euskara dakitenean kopurua». Baina, tamalez, «jakite horrek ez du beti hitz egitea ekarri. Anitz dira euskaraz jakin arren erdaraz aritzen direnak». Eskolak euskararekiko apustua egiten du eta «gure herrietako karrketan» euskararen presentzia handiago izatea «erronka makala» ez dela plazaratu du. Irakasleak irtenbidea zein den argi du: «euskararen transmisioan eta kontzientziazioan gizarte osoak du zer erranik eta, ez bairik gabe, eskolak ere paper garrantzitsua du». Gai honetan «gure eskolak konpromiso sendoa erakutsi du sortu zenetik, euskaraz irakasteaz gain, euskaraz bizitzearen aldeko apustua egin baitugu».

Ricardo Baroja ikastetxearen baloreei dagokionez honela mintzo da Lopez: «gurean jarrerak kritikoa lantzearen aldekoak gara. Gure gaur egungo ikasleen, etorkizuneko helduen, esku egonen baita zer nolako mundua eraikiko dugun».

Bertze horrenbertze urte betetzeko prest

Azkenik XXI. mendeko eskolak «erronka anitzi» aitzin egin behar diotela adierazi du Lopezek: «Ricardo Baroja Eskolak erronka horiei umiltasun eta konpromisoz aitzin eginen die, 40 urte hauetan egin dien bezala. Konpromiso honen ondorioa da eskolak berak azken urteetan bizi duen aldaketa. Duela 15 urte, eskolako 25. urteurrenean, 70 ikasle genituen eta momentu honetan 200 ikasle ditugu».

Isunik gabe bukatu da mugikortasun kanpaina

Ibilgailuen erabilera egokia bultzateko kanpaina egin du udalak eta balorazio positiboa izan dela adierazi du

IZASKUN REKARTE

Aspaldi honetan, herriko karririk eta espazioak herritarrentzat atseginagoak egiteko prozesuarekin jarraitu du udalak, mugikortasun eredu egokia eta jasangarriaren bidean. Bertze ekimenen artean, aparkalekuak ordenatzeko prozesua burutu dute eskola- eta denda-guneetan, Toki Onan eta Kanttonberrin jarritako herritarrentzat gordetako aparkaleku plaza berdeak ezarriz. Gainera, trafikoaren ordenantza berrizatu dute, eta une honetan badoen ordenantza ere tramititzen ari dira.

Behin eta berriro erran bezala, herriko etxetik gogoratu nahi dute «aparkatzeko arauak eta debekuak errespetatu behar direla Beran, bertze herrietan egiten den bezala». Hots, ezin dela aparkatu espaloietan, oinezkoen pasabideetan, mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako aparkalekuetan beharrezko txartelik gabe, garraio publikorako lekuetan, bigarren lerroan, badoetan eta, oro har, seinale bertikal edo horizontalekin debekatu-

tako eremuetan. Eta jakina, ezin da aparkatu aparkaleku berdeetan txartelik gabe.

Mugikortasun kanpaina bukatu ondoren honen gaineko balorazioa egin dute. Udalkideek aditzera eman dutenez «orokorrean, mugikortasun kanpainaren helburuak bete dira, eta emaitza positiboa izan da». Hala ere, herritar batzuek «albinte bakarra dela aprobetxatu eta arau-hauste gehiago egiten» dituztela salatu dute.

Proba astean arau-hausteak egin dituztenei «abisua» eman bazaie ere, ez zaie isunik paratu. Udalak argi utzi nahi izan du helburua ez dela «finantziario iturri bat bilatzea, herritarrek ezarrita dauden arauak errespetatzea da gure asmoa». Azkenik, Esteban Agirre zinegotziak aipatu digunez, ibilgailuen mugikortasuna kontrolatzeko «sistema berriak» aplikatuko dituzte urtariletik aitzinera. Adierazi duenez «kamerak paratuko ditugu eta urtariletik aitzinera denda inguruetan ordu erdiko muga ezarriko dugu».



UTZITAKOIA

'Esnatuko naiz' kabaret ikuskizuna

Urtarrilaren 23an 19:00etan, kultur etxean antzerkia, dantza eta musika uztartzen dituen ikuskizuna izanen da. Andoni Mutiloa izanen da udalak eta kultur batzordeak elkarlanean antolatu duten emanaldiaren protagonista. Sarrerak bortz euroren truke eskuratu ahal izanen dira.



UTZITAKOIA

Bateragunekoei elkartasuna

Bateraguneko bortz kideak berriz epaitzearen aurka eta erabaki honen aitzinean protesta egiteko abenduaren 19an hainbat herritar bildu ziren Herriko Etxeko Plazan *Demokrazia* aldarrikatuz. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, herritarrek ez zuten hitzorduari huts egin.

F. BRANDONEA, s.l.
 PROFESOR EN LA BARCELONA
BILTEGIA: 948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563
 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

ALBERTO RETEGI
 abokatu
 abokatu
 abokatu
 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABE ZAR
 Astelehenetik ortziratera:
 07:15etik aitzinera
 Larunbata eta igandea:
 08:00etatik aitzinera
 948 631 076 • BERA

F. LANCHAS
 Akutxiladorea eta bernizatzailea
 Parket eta parket flotatzailea jartzea
 Mota guztietako zolak
 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

MARITX
 · INGENIARITZA ELEKTRIKOA
 · PROIEKTU ELEKTRIKOAK
 · BOLETIN INDUSTRIA
 · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
 T. (0034) **636 617 450**
 Legia, 23 - BERA

la 3 milioi euroko aurrekontua izanen du aurten Udalak

laz baino 776.000 euro gehiago dira eta EH Bilduren aldeko botoekin eta Geroa Bairen abstentzioarekin onartu dute

AITOR AROTZENA

Abenduaren 23ko osoko bilkuran aurtengo aurrekontuari hasierako onespina eman zion udalak, EHBilduren aldeko bozkarekin eta Geroa Bairen abstentzioarekin. 2.980.550 euroko diru-sarrerak eta gastuak izanen ditu aurten, iaz baino 776.000 euro gehiago (%2,6). Andra Mari zahar etxearen aurrekontua, berriz, 776.000 eurokoa izanen da. «Aurrekontu kontserbadoreak dira, bizi dugun egoeran gastu arruntak kontrolatzeko saiakera egin baita udalaren funtzionamenduetaz erbitzuak mantenduz», dio Ladis Satrustegi alkateak.

Gastuen kontrolean lagunduko dute, berteak bertze, energia aurrezteko harturiko neurriek, tartean jada martxan dagoen herriko zati batean LED argiak jartzeko proiektuak. Orotara gastu arruntetan %4,4 murriztu da aurrekontua (52.300 euro gutxiago).

Bertzalde, transferentzien atalean emanen da igoera haundiena, 65.300 euro gehiago (%19,92ko igoera), bereziki zahar etxean eta udal kiroldegian Covid-19aren eraginez aurreikusi daitezkeen galerei aurre egin ahal izateko.

Inbertsioen alorrean oro har ohikoak diren inbertsio txikiei eutsi zaie, tartean lehengo urtean lehen aldiz sortu zen diru-atala, haur parkeak berrietzeko. Igoera haundiena izan duen inbertsioen atala landaketa eta baso lanena izan da, bikoiztu egin baita 200.000 eurora arte. Hain zuzen, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzetarako onartutako

gehieneko kopurua da 200.000 euro, hortik goiti ez baitu diruz laguntzen. Alkatearen erranetan, «ingurugiroarekin dugun konpromisoari eutsi beharra zaio une larri hauetan ere». Inbertsio nagusiak aitzineko urtetako soberakina erabiliz eta lor daitezkeen subentzioen bidez finantzatzeko asmoa dago. Finantzazioa lortzen denean aurrekontuak egokitu dira inbertsio hauek egin ahal izateko. Honen adibide da bide berdearekin lotura egiteko Nafarroako Gobernuaren laguntza (340.000 euro). Hainbat proiektu estrategikoetan lan egiten ari da udala, «herriarren egunerokotasuna eta bizi kalitatea hobetzeko eta ingurugiroarekin dugun konpromisoari aurre egiteko» eta finantzazioa lortu ahala ezagutzera emanen dituzte.

Birusak astindutako garai honetan aurrekontuen helburu nagusia udalaren ohiko lan eta zerbitzuak bermatzea da, baita herri eragileei eman ohi zaizkien laguntzak mantentzea eta ahalegin berezi bat egitea ekitaldi programazioa ahalbidetzeko, herriari bizia emateko. Honetaz gain, koronabirusak eragindako gastu gehigarriari aurre egin beharko zaie.

Kontribuzioa

Hau guztia egin ahal izateko, kontribuzioaren zergak pisu handia du aurrekontuetan. Bizi dugun egoeraz jakitun da udala. Horregatik, herritarrei esfortzu gehigarri eskatu gabe, kontribuzio berria minimo legalean (%0,25ean) ezarriko da, azken plenoan erabaki bezala.



AITOR AROTZENA

Olentzero lehiaketarik ez da izan

Olentzero lehiaketaren 75. urteurrena ez da ospatzerik izan. Horren ordez, osasun agintarien eta udalaren baimenarekin, ikastetxeetako taldeen burbuilak mantenduz, olentzero bizkar gainean hartu eta beraien ibilbidetxoak egin zituzten eskean neska-mutikoei abenduaren 24an.



UTZITAKOIA

Tantirumairu dantza taldeko saskia

Eguberrietako saskia zozketatu du Tantirumairu euskal folklore taldeak. Urko Telletxea Morante taldekideak saldu zien txartel sariduna (2.897) gurasoei, Joxe Angel eta Mirariri. Eskerrak eman nahi dizkiete familiei, «boletoa saltzeko esfortzua egiteagatik, taldearentzat garrantzitsua baita».



Neguko Orduetgia
Astelehenetik Ortziralera 09:00 - 14:00
Arratsaldez itxita

Larunbata 09:00 - 13:00
Igandea 10:00 - 12:00

LOREAK ETA LANDAREAK

Otxango, 6 · LESAKA · T. 948 637 826



IRU-BIDE
OSTATU · JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27



Hemen erabili
DenokBat

kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

36 Hektarea zuhaitz landatuko dituzte negu honetan

%40 koniferak izanen dira eta %60a bertako espezieak, pagoa, haritza eta, modu esperimentalean, gaztainondoak

AITOR AROTZENA

Negu honetan 36,32 Hektarea zuhaitz landatuko dituzte Lesakan, Lantzetarriko Malda, Zumarra, Egieder, Beltzaun, Eskolamendi inguruetan, udalak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean. Hauetarik %60 bertako zuhaitzak izanen dira, gainerako %40a koniferak.

Azken hauetan hiru espezie erabiliko dituzte, itsas pinua, Taeda pinua eta alertzea, ahal den heinean etorkizunean egon daitezkeen arriskuak ahalik eta gehien murriztu asmoz espezieak dibertsifika-

tuz. Izan ere, Lesakako mendietan agerikoak dira pinu espezie batzuek izan dituzten gaitzen ondorioak, eremu ikaragarriak bota behar izan baitira.

Erran bezala, landaketen %60 bertzelako espezieek osatzen dute. Izan ere, gehien bat

pagoak (9,5 Ha) eta haritzak (9 Ha) landatuko dituzte. Etorkizunean gaztainondoak berreskuratzeko asmoz, 2,6 Hektareko gaztain landaketa esperimental bat egingen dute, gaztainak dituen gaitzei aurre egin eta gure ingurura egokitu den genetika lortzeko asmoz.

Hurrengo urteetan ere ildo beretik jarraitzeko asmoa du udalak, «esfortzu handia egingez birlandaketetan eta bertako espeziek lehenetsiz». Hala ere, koniferen kasuan, landatzen diren espezieak dibertsifikatuko dituzte, etorkizunean egon daitezkeen arazoak ahalik eta gehien murrizten saiatzeko.

Txakur parkea erabilgarri

Abenduaren 31tik aitzine-ra erabilgarri dago Landazelaieta zakur parkea.

Bertako araudia errespetatuz erabil daiteke, 08:00etatik 22:00etara.

Ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek

VII. ipuin lehiaketako sariak banatu ditu Beti Gaztek. 99 ipuin aurkeztu zituzten herriko neska-mutikoeek lau kategoriatan eta zortzi lan saritu zituzten. **A kategorian** (3. maila), Nahia Ubiria Artolaren *Txoriak basoan* eta Intza Sargardia Oiarzabalen *Aneto Mendia* izan ziren ipuin sarituak. **B kategorian** (4. maila), Maialen Ormaetxea Erroren *Abentura New York-en* eta Iorritz Iriarte Azpiroren *Sorgin aroa* izan ziren saritutako lanak. **C kategorian** (5. maila) Eneritz Iratzoki Porturen *Kapa ikusezina* eta Uxue Apeztegia Bañezaren *Munduaren leherketa* saritu dituzte. **D kategorian** (6. maila), azkenik, Ekhi Rojo Rodriguezen *Katu bidaiaria* eta Kattalin Castro Ordokiren *Solasten duen marrazkia* izan dira sarituak.

BERA

LESAKA

Agenda

2021

URTARRILA

www.berakoagenda.eus

www.lesaka.eus

LESAKAKO UDALA

| | | | |
|--|--|---|--|
| <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">8</p> <p style="font-size: 0.8em;">ORTZIRALEA</p> | <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">ANTZERKI JARDUNALDIAK KEINU LEIHOAK</p> <p style="font-size: 1.5em; font-weight: bold;">16</p> | <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">16</p> <p style="font-size: 0.8em;">LARUNBATA</p> | <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">KONTZERTUA HAIZEAREN OIHARTZUNAK</p> |
| <p>ETAren agiri bulegoa (Gilkitxaro)</p> <p>20:00 Arranon</p> <p>Antolatzailea Mairu Antzerki taldea</p> <p>Laguntzailea Lesakako Udala eta Arrano ostatua</p> | | <p>Organo eta oboe musika emanaldia</p> <p>19:00 Sanesteban elizan</p> <p>Antolatzailea Berako Kultur Batzordea</p> | |
| <p style="background-color: #c00000; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">LESAKA</p> | | <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">BERA</p> | |
| <p>8 ORTZIRALEA</p> | | <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">23</p> <p style="font-size: 0.8em;">LARUNBATA</p> | |
| <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">LIBURU AURKEZPENA NOBILIARIO DE BORTZIRIAK</p> <p style="font-size: 1.5em; font-weight: bold;">14</p> <p style="font-size: 0.8em;">ORTZEGUNA</p> | | <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">KABARETA ESNATU NAIZ (ANDONI MUTILOA)</p> | |
| <p>Inaki Garrido Yerobi eta Carlos Rilova Jerico</p> <p>18:00 Kultur Etxeko areto nagusian</p> <p>Antolatzailea Berako Kultur Batzordea</p> | | <p>19:00 Kultur Etxean</p> <p>Sarrera 5€ Iraupena 50 min</p> <p>Antolatzailea Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea</p> <p>Laguntzailea Nafarroako Antzoki Sarea</p> | |
| <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">BERA</p> | | <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">BERA</p> | |
| <p>14 ORTZEGUNA</p> | | <p style="font-size: 2em; font-weight: bold;">30</p> <p style="font-size: 0.8em;">LARUNBATA</p> | |
| <p>18:00 Kultur Etxeko areto nagusian</p> <p>Antolatzailea Berako Kultur Batzordea</p> | | <p style="font-size: 1.2em; font-weight: bold;">SAN ANTON EGUNEAN KONTZERTUA TRIKIDANTZ</p> | |
| <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">BERA</p> | | <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">LESAKA</p> | |
| <p>18:00 Kultur Etxeko areto nagusian</p> <p>Antolatzailea Berako Kultur Batzordea</p> | | <p>18:00 Harriondoa Kultur Etxean</p> <p>Sarrera 3€</p> <p>* Ekitaldietarako sarrerak ohiko lekuetan jarriko dira salgai.</p> | |
| <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">LESAKA</p> | | <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; font-weight: bold;">LESAKA</p> | |

Sute Elkarteak ez du urte hasierako batzarrik egingen

Egoerak hobera egiten badu baliteke ekainean egitea eta urtea ezbeharririk gabe joan dela gogorarazi dute

IRUNE ELIZAGOIEN

Bizi dugun egoera berezia dela eta, urte hasieran egin ohi zuen batzar orokorra ez egitea erabaki du Sute Elkarteak. Egoera hobetzen bada, baliteke 2021eko ekainean egitea. Dena den, aipatzekoa da bertze urte bat joan dela ezbeharririk gabe. Aurtengo kuotak, lehengo urteko kopuru berean mantenduko dituzte. Gogorarazi dute mendiko suak itzaltzeko pala bereziak baserrietako ondorengo ordezkariak dauzkatela: Urritzokietan Zamudieneko-bordan, Larrapil-Sarrikun

Iturraldeko-bordan, Lakain-Apezborron Arrineko-bordan, Orizkin Tolareko-bordan, Lurriztederran Goinetxegaraian eta Gorosurretan Mais-terreneko bordan.

Errebisioa

Aitzineko urteetan erositako su itzalgailuen errebisioa ekainean egingen da kultur etxeko arkupean egoerak hobera egiten badu eta aitzinetik abisatuko dute data zehatza. Errebisioaren kostua eta bertzelako mantentze-lanak jabearen kontura izanen dira.

Axun Elizalde herritarrak ETB1eko 'Baserria' saioan parte hartuko du

TTIPI-TTAPA

Axun Elizalde baserritarrak laster hasiko den ETB1eko Baserria saioan parte hartuko du. Baserritarrak eta kaletarrak lehiari arituko dira. Hagitz emakume mugitua, urduria eta aktiboa izanik, ziur zer erran handia emanen duela.



Axun Elizalde



UTZITAKOAK

Saski ederrak zozketatu dituzte

Eguberri garaian, aurten ere saski ederrak zozketatu dituzte herrian. Hauek izan dira zortedunak: Usoa Kooperatiban Xanti Elizagoien, Herriko Ostatuan Jaime Urroz, Aiora Danboriena eta Periko Galarregi, Elutsan Iruñeko Patricia eta herriko janari dendan Iñigo Igoa eta Irene Zelaieta.

Porc D'Or lehiaketan zilarrezko sari bat Maritoneko bordara

Maritoneko bordako Mikel Irigoien saritu dute aurten ere Porc D'Or sarietan. Aurten Internet bidez egin den sari banaketan, 48 sari banatu dituzte; 5 autonomia erkidegotako 40 haztegiaren artean. Mikelek zilarrezko saria du zerrien bizitza-luzera arloan.

Paris 365 elkartearen eskertza eta ezohiko Eguberriak

Paris 365 elkarte solidarioak eskerrak eman nahi dizkie etxalartarrei, parrokiak martxan jarri zuen diru bilketa solidarioan 2.330 euro bildu direlako beharrea daudenei janaria emateko. Bertzalde, Olentzero eta Mari Domingi ezustean herrian ibili ziren.

KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBIK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Antenak

Sukaldeak, etxetresnak
eta orain sukaldeko diseinua 3D

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Astoa eskutik zuela ibili zen Olentzero karrikaz karrika. MAITE, ANA ETA ITZIAR

Kalejirarik eta txapelketarik gabe etorri da Olentzero

Gazteek ez zuten Urtezahar arratsean 'santakta' egiterik izan eta Errege bezpera ere bertzelako moduan egin zen

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Abenduaren 24an ez genuen ez olentzero kalejirarik ezta txapelketarik ere izan baina Olentzerok ez zuen aukerarik galdu herrira hurbildu eta haurrak agurtzeko. Astoa eskutik zuela karriketan barrena ibili zen. Goizean, haurrak etxez etxeko eskean ibili ziren nahiz eta ezin izan zuten etxe barrenetan sartzeko gonbiterik onartu, arauak eskatzen zuten bezala. Oraingoan ere, haurrak txapeldun!

Hala ere, ez zen ohitura guztiak betetzerik izan. Herriko gazteek Urtezahar arratsean



Haurrak eskean ibili ziren.

egin ohi duten *santakta* ez zuten egin. Errege bezperako kabalgata betiko moduan ezin zenez egin, Guraso Elkartearen laguntzari esker, opariak etxez etxe banatu ahal izan zituzten erregeek eta pajeek.

Oskar Txoperena postariak erretiroa hartu du

Aski ezaguna dugu Oskar Txoperena, urte aunitzez herriko postaria izan baita bertze gauza eta lan aunitzen artean, eta orain, erretiroa hartzeko ordua ailegatu zaio. ТТИП-ТТАПАН ere urte aunitzez herriko berrie-maile izan da eta eskerrak eman nahi izan dizkiogu egindako lanarengatik. Hala ere, herriko 'argazkilari ofiziala' izaki, ez diogu aisa arlo hortan erretiroa hartzen utziko (uzten bagaitu behinik behin) eta sarritan ikusiko dituzue bere argazkiak; hauxe gure omenalditxoak egiteko modua.

Biltoki Ttiki, Guraso Elkartearen zarea eta Haur Txokoa

Biltoki ttikiko gazteek behar-tutako itxiera hau zenbait moldaketa egiteko aprobe-txatuko dute. Udalaren eskutik dirulaguntza eta baimenak eskuratuak dituzte eta datozen egunetan hastekoak dira (zolare moldaketa, leiho berri bat egin...). Bertzalde, guraso elkarteak bertako produktuez osatutako zarearen zozketa egin zuen. 074 zenbakiarekin Viqui Guerra izan du zen sariaren irabazlea. Eguberrietako Haur Txokoan, azkenik, 11-12 haur aritu ziren, Maiana begirale zutela.



MAITE ALTxu

Kultur Astea arrakastatsua izan zen

Ekitaldi andanaz gozatu genuen Kultur Astea, hala nola, hitzaldiak, bertsolariak, musika, ipun-kontalariak, antzerkiak, pelikula emanaldiak... eta jendearen partehartzea aipatzekoa izan zen; Baratzondo beteta izan zen egunero. Aurten ere «gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan».



PRIM, c.b.

Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allyane metodoa





gauko konfort-kuxina










 Centro Prim
  regina tolosaechepare



www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementsiak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irun, Hondarrabia eta Hendaiara
 - Iparaldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780

BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



Ikusmina piztu zuen abenduaren 16an egindako aurkezpenak.

Bertako gaztainak txertatzeko ikastaroak martxoan

Udalak deituta, joan den abenduaren 16an, gaiari buruz solastatzeko lehenbiziko bilera egin zuten

NEREA ALZURI

Bertako gaztaina barietateak galtzen ari direla ikusita, joan den abenduaren 16an, udalak deituta, horren inguruko bilkura interesgarria egin zuten eskolako gimnasioan. Efredin Martin gaztainetan aditua, Mikel Diaz Nafarroako Gobernuako mendiko ingeniaria eta Joseba Ibargurengoitia Euskal Herriko Hazien Sareko kidea izan ziren hizlariak eta 17 herritar bildu ziren hitzorduan.

Garai batean, 14 gaztaina barietate omen zeuden herrian, eta zoritxarrez, erditsiak galdu dira eta herritarrek ez da-

kite non kokatuak dauden. Udalak, ordea, daudenak zaindu eta gaztaina zaharrak berreskuratu nahi ditu eta horri ekin dio. Orain arte, bertako baserritarrek ondoko barietate hauek identifikatu ditu: Roketarra, Anboltsa, Por-kaltsa, Gaztain zuri/Morkots Zuri, Txertagorria, Meauregorri eta Sanmigela.

Abenduko saioaren ondotik martxoan izanen da hurrengoa. Heldu den martxorako bertako gaztaina barietateak txertatzeko ikastaroak antolatu dituzte baina oraindik datak zehazteke dituzte.



ARANTZAKO HERRI ESKOLA ETA UTZITAKOIA

Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Egoeragatik, Eguberrietako zenbait ekitaldi bertze modu batera antolatu baldin baziren ere, Olentzero eta Mari Domingik ez zuten hutsik egin. Abenduaren 22an Mari Domingiri harrera beroa egin zieten eskolako lagunek. 24an Olentzero eta Mari Domingik frontoian agurtu zituzten neska-mutikoak.

Parkea goitik beheiti berri du udalak

Harrera ona izan du parke berriak. Aitzinekoa zaharkitua gelditua zela eta, udalak berria paratzea erabaki zuen eta duela aste batzuk egin zuten aldaketa. Neska-mutikoez gustura hartu dute.





Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanttonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MASSI MERIDA BIKES
BERGAMONT BH COLUER LOOK

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

**Abokatutza orokorrean · Herentziak
Alokairuak · Lan aferak**

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

«Azoka arrakastatsua izan den arren, urteroko berotasuna falta izan da»

IOAR OTEIZA GOIENETXE DURANGOKO AZOKAREN KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

Durangoko azken online azoka «arrakastatsua» izan den arren, 2021ean azken urteetako azokara bueltatzea espero du loar Oteiza lesakarrak

N. BAZTERRIKA | LESAKA

7.800 erosketa, 27.758 produktu eta 50.000 kulturzale. Horiek izan dira abenduaren 4tik 8ra ospatu zen Durangoko Azokak utzitako datuak. Hilabete luzetako lanaren emaitza jaso dute antolatzaileek. Ioar Oteiza, hondarreko lau urteetan Durangoko Azokan komunikazio arduraduna izan duen lesakarra, zenbaki bakoitzaren giblean «euskal kultura laguntzeko kontzientzia» dagoela sinetsita dago.

Irailetik abendura Durangoko Azoka antolatzen aritzen zara. Nolako hilabeteak izaten dira?

Hasieran lasaiak. Irail-urri aldera kartela aurkezten dugu eta azoka hurbildu ahala lan gehiago izaten dugu. Azaroko azken asteak eta azokako egunak eromena izaten dira: prentsaurrekoak, seinaleak, publizitatea, komunikabideekin bilerak... Horrelako ekitaldi batek prestaketa lan luzea izaten du, gauza aunitz lotu behar izaten dira.

Zertan aldatu da azken edizioa?

Aitzineko edizioetan bagenekien azoka nolakoa izanen zen. Antolatzekeo egitura eta egutegi bat genituen. Azken azokan hori hankaz goiti jarri zaigu. Prentsa bulegoarekin irailen hasten garen arren, Sorlan agentzian udaberrian hasten gara idazten. Aurten pandemiak erdiz erdi harrapatu gintuen. Ez genekien egiten ari ginen horrek balioko zigun, ezta azoka egiterik izanen genuen ere.



Azoka antolatzekeo egindako lanak merezi izan duela uste du Oteizak.

Inoiz baino beharrezkoagoa zela jakin arren, ez zen erraza izanen antolatzea.

Bai, aitzineko urteetako bezalakoa izatea ezinezkoa zen arren, egitea inoiz baino beharrezkoagoa zela ikusten genuen.

Egoera honek hainbat sektore kaltetu ditu eta horietako bat kultur gintzarena izan da, euskal gintzarena. Horrekin lotuta, aretoetako teknikariek, sortzaile

leek, argialetxeek, disketeek... denek izan dute krisi honen eragina. Azokan urteko fakturazioaren zati handi bat ateratzen dute horietako aunitzek eta aurten, liburuak aurkezteko, kontzertuak emateko... aukerarik izan ez den honetan, inoiz baino zentzu handiagoa izan delako plaza hau izateak.

Nolakoa espero zenuen eta nolakoa izan da online azoka?

Egia erran ez genekien zer izanen zen. 'Aurreikuspenak bete eta gaitu dira' erraten dugu, uste genuena baino handiagoa izan delako. Sorpresa eraman dugu parte-hartzaileekin. 2.300 produktuko katalogo bat osatu genuen eta kulturzaleen aldetik jasotako erantzuna ere kristorena izan da. Jende aunitzek kuxkuxeatzera etorri eta zerbait erosten zuen. Aurten, etxetik erosteak, esfortzu handiagoa eskatzen zuen.

7.800 erosketa, 27.758 produktu eta 50.000 kulturzalek gozatu dute egitarauaz.

Ikaragarria iruditu zaigu. Sortzaile eta kulturzaleak azoka hau egitea zer garrantzitsua zen bazekitela uste dut. Jende aunitz bere onena ematen saiatu da eta honetan sinetsi du. Erosketa bakoitzaren giblean euskal kultura laguntzeko kontzientzia hori badagoela uste dut. Denok paratu dugu gure aletxoaren hemen.

Azoka ia hutsik ikusteak zer eragin ditu?

Sentsazio arraroa izan da. Biltzean aritu galaranean, mahaia liburuz beteak, kutxak lurrean eta azoka erdi hutsik. Ez dut ezagutu azoka nola sortu zen baina ikusi ditudan argazkiak kontuan hartuz hasiera hori ekarri dit gogora. Orain artean ohituak ginen erakusmahaiak falta ziren. Jendea lanean ari zen, baina jende gutti zegoen. Klean ere giro horren falta izan da.

2021ean Durangora bueltatzea garrantzitsua izanen da?

Bai, kontent gaude, ongi ater da... baina urteroko azokaren berotasuna falta izan dugu. Azken urteetako azokara bueltatzeko esperantza dugu.

Azoka bat baino gehiago

Ioar Oteizarentzat (Lesaka, 1988) euskal kultur gintzaren «topaleku» da Durangoko Azoka, «zentzu aunitzetan» gainera: batetik, sortzaile eta hartzaileak elkartzen direlako eta «liburu bat erosi eta idazlearekin solas egiteko edo disko bat sinatzeko» aukera ematen duelako; eta bertetik, «arlo aunitzetako sortzaileak elkartzen direlako». Horrek, sortzaileei gogoetarako tartea ematen diela eta «proiektu batzuk bertan sortzen direla» dio. Bai azokan baita azokatik kanpo ere, euskal kultur gintzaren bueltan sortzen den giroa «berezia» izaten delako, azoka bat baino gehiago da Durango Oteizarentzat.

DESKONTUAK BORTZIRIAK TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!



Caser
RESIDENCIAL ANAKA

%5 DESKONTUA
Egonaldietan, erreabilitazioan eta eguneko zentroan. Txartelduna eta bere 2. graduako senideak barne

Anaka, 8 | IRUN
T. 943 66 77 80

ttipi-ttapa

%10 DESKONTUA
eskeletan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

Turi Sari
LAND

%50 DESKONTUA
sarreran

Irisarri, 1 | IGANTZI
T. 948 92 89 22

Semper
autozuekula

%10 DESKONTUA
matrikulan

BERA | T. 948 63 02 98
LESAKA | 948 63 82 99

Arturo

%5 DESKONTUA
arropetan

Altzate, 30 | BERA
T. 948 63 01 36

bixkiak
KIROL ETA MODAKO
arropa denda

%5 DESKONTUA

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 81 10

KATEA BIKE

%5 DESKONTUA
konponketetan

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 63 12 18

Xulufraia

%5 DESKONTUA
30€tik gorako
dekorazio gaietan

Altzate, 18 | BERA
T. 948 63 12 66

GAEA
Datu nagusiarekin

%5 DESKONTUA
kosmetikan
%5 DESKONTUA
oparietan 50€tik gora.
Promozioetan ezik

Pio Baroja, 11 behekoa | Bera
T. 666 42 61 96

ALZURI
ELEKTRIZITATEA

%5 DESKONTUA
etxetresnetan
promozioetan ezik

Bittiria, 33 | LESAKA
T. 948 62 75 31

KARLOS ALZUGARAY
OSTEOPATA Euz. Oñ. D.O.

%10 DESKONTUA
hamar saioko
bonoan

Itzea, 20 behekoa | BERA
T. 607 85 32 08

bortziradi

DESKONTUA
%15 Kamisetetan
%10 Inprenta lanetan
%5 kopia, enkoadernazio eta plastifikazioetan 5€tik gotti
* Aurrekontutik kanpo

Eztegara, 26 eska. behekoa | BERA
T. 948 63 15 21

LESAKAKO UDAL
KIROLDEGIA

%40 DESKONTUA
matrikulan

Komentu, 2 | LESAKA
T. 948 63 74 00

Urdu Bera
BERRIEN BERRIEN eta BERRIEN

%20 DESKONTUA
urteko abonarean
matrikulan

Toki Ona Kiroldegia | BERA
T. 948 63 02 15

AGARRA
KIROLAK

%5 DESKONTUA
kirol artikuluetan
%15 DESKONTUA
ehiza arropetan

Altzate, 22 | 31780 BERA
T. 948 63 09 99

zela
KIROLAK

%5 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Altzate, 6 | BERA
T. 948 63 05 98

kattogarra

%10 DESKONTUA
lentzerian

Behoko Plaza, 10 | LESAKA
T. 948 62 75 14

ZU lorendea
dekorazioa
osagarriak

%5 DESKONTUA
lore moztuan
30€tik gorako
erosketetan

Altzate, 33 | BERA
T. 948 62 57 86

elika
Dietetika
eta elikadura

%5 DESKONTUA
kontsultan

Itzea, 6 behekoa | BERA
T. 948 63 12 83

oreka
nutrizioa eta dietetika

%5 DESKONTUA
kontsultan

Arretxea, 11 | LESAKA
T. 948 63 73 73

Intzuri
OPTIKA

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bittiria, 28 | LESAKA
T. 948 62 75 50

Ostargi optika

%5 DESKONTUA
produktu guztietan

Bidasoa, 8 | BERA
T. 948 63 07 53

HKpodologia
NORA MAIZA

5€ DESKONTUA
ibilkeraren
azterketa digitalean

Legia, 42 | BERA
T. 688 878 177

txinelka

%10 DESKONTUA
erosketa
guztietan

Plaza Zaharra, 25 | LESAKA
T. 948 63 75 94

Tokiko komertzioak eta tokiko komunikabideak: Elkar zainduko duen komunitatea



«Txokolatea kakao hazitik zuzenean egiten dugu»

GARAXI URTASUN ERASO
ARKUPE TXOKOLATEAK



Iruritan, Arkupe gozotegiko obradorean aritzen da lanean Garaxi Urtasun, hain ezagunak eta ospetsuak diren pastak, pastelak, izozkiak eta txokolateak egiten. Pastak dira Arkupe Gozotegiko produkturik ezagunenak baina azkenaldi honetan Arkupeko txokolateak ere *–Hurrarekin egina*, tabletak, bonboiak– gero eta gehiago ezagutzen eta baloratzen dira. Izan ere, txokolatea kakao hazitik zuzenean egiten duen Nafarroako txokolategi bakarria direla azaldu digu Garaxik. «Guk geronek kontrolatzen dugu prozesu osoa: kakao hazia zakutan erosi, aleak garbitu, txigortu, azala kendu, errotan xehetu, birfindu eta gero txokolatezko produktu desberdinak egin arte». Zalantzarik gabe, artisaun-lan metodikoa eskatzen duen prozesua da, kalitate goreneko lehengaiekin egiten dena.



«Laneko arropen eta kirol ekipamenduen pertsonalizazioa»

ITZIAR MARTIN IBARRA
MALE-REKA / DONEZTEBE



2013an Male-Reka izeneko kamisetak serigrafiatuz hasi zuten ibilbide profesionala eta, urteak joan ahala, nabarmen zabaldu dute euren eskaintza komertziala. Berehala laneko arropak pertsonalizatzeari ekin zioten, edozein gremiotako arropetan biniloak eta estanpatuak serigrafiatuz eta baita bordatuak eginez ere: ezkontzetarako gauzak, pilota txapelketetako txapelak... Orain kirol arropen pertsonalizazioa ere egiten dute eta, *Sport Maillot* markarekin, internetez saltzeko prestatua dagoen webgunea estreinatu berri dute. Eta aurten, Covid-a dela medio, merkatua zabaltea erabaki dute. «Garbiketa-produktu industrialak saltzen hasi gara» dio Itziar Martinek. «Orain hidrogelak, markarak eta garbitzeko produktu industrialak ere saltzen ditugu, landetxeentzat-eta».



«Oso eskertuak gaude jendearen erantzunarekin»

ASIER ARZALLUS GIL
LEITZA KIROLAK



Umeetatik hasi eta helduetaraino, jendeguztiaren beharrak asetzeko moduko kirol-denda irekitzeko ametsa gauzatu zuen Asierrek 2013an eta, geroztik, urteak joan ahala, «jendeak eskatzen digunari kasu eginez, kalitate oneko produktuekin eta marka gehiagorekin hornitu dugu gure kirol-denda. Oso eskertuak eta pozik gaude jendearen aldetik jaso dugun erantzunarekin» dio Asierrek. «Herri kozkorra da Leitza eta, aldi berean, inguruko herrietako jendearentzat oso eroso erosketak egitera etortzeko. Tolosa edo beste hiri batzuekin konparatuz gero, Leitza ez dago apartatzeko zailtasunik» gaineratu du. Gauza bat eta beste, ageri da Leitza Kirolak erreferentziako kirol-denda bat dela honez gero kirolzaletasuna puri-purian dagoen inguru honetan.



«Garrantzitsuena jendearen konfiantza izatea da»

MERTXE ANZIZAR IRIARTE
TXINELKA ZAPATA-DENDA



Txinelka zapata-dendaren arrakasta non dagoen galdetu diogunean, berehala erantzun digu: «bezeroarekin dugun harremanean». Aski argi du hortxe dagoela giltza. «Dendara datorren bezeroak, berdin dio gaztea izan edo adinekoa, lasai sentitu behar du bere burua, presiorik gabe. Beharbada egun horretan ez du deus erosiko, baina konfiantza sortzen bada, berriz etorriko da eta hurrengo batean erosiko du. Garrantzitsuena jendearen konfiantza da». Aurten 20 urte dira negozioa abiatu zuenetik eta, denborarekin, bere eskaintza ere eguneratu egin du. «Zapatekin batera, kazadorak ere ederki saltzen ditut orain. Eta lasaiago begiratu nahi badu (Covid-aren arazorik ez zegoenean), etxera eraman, probatu eta lasai etortzeko aukera ematen diot».

Eguberri berezietan ekitaldi bereziak egin dituzte

Eskolako neska-mutikoen eta gazteek bideo bana egin dute eta Olentzero eta Mari Domingi ere etorri ziren bisitan

MAIDER PETRIRENA

Eguberri bereziak nola ezberdinak izanda ere a zer nolako lan ederrak egin dituzten herritarrek. Eskolako urteroko jaialdirik izan ez bada ere, aurtengoan talde bakoitzak kanta bat aukeratu eta koreografia eta guztiarekin bideo eder bat sortu dute, eskolako ondorengo webgunen ikusgai dagoena: <https://sunbillakoeskola.educacion.navarra.es/web/>

Zorionak eta eskerrak aunitz bideo eder horrengatik.

Olentzero eta Mari Domingi

Eguraldia lagun izan ez bazen ere, Olentzero eta Mari Domingi Sunbillara bisita egin zuten. Urduritasuna eta ilusioa tarteko, haurrek pozez espeparatu zieten, beraien aitzinetik pasatu, harriduraz begiratu eta laguntzaileei eskutitza emateko. Olentzero eta Mari Domingi ongi apaindutako karro eder batean etorri ziren eta Leku-eder karrikatik abiatuta, inauterietako ibilbidea egin zuten, gibeletik trikitalari, panderojole eta bonboare-



Olentzero eta Mari Domingi herrian.

kin alaiturik. Euria egin bazuen ere musika eta poza ez zen faltatu etorrera polit honetan. Bertetik, aipatu beharra dago herria eta eliza barrenetik ederki apainduak zeudela.

Gazteen bideoa

Eguberri Egunean herriko gazteek urteroko hitzordua ezin izan zuten bete, baina hori ordezkatzeko a zer nolako lan ederra egin zuten. Bideo batean isladatua dago beraiek herriari eskaini nahi izan zioten eguberri on ederra. Aldi berean, gazteek Beñat Mitxelena musikariak eta Ekaitz Bertiz Apezetxea herriko gazteak egindako lana eskertu nahi izan dute. Ekaitz Bertizek grabazioak egiteaz gain bideo muntaketa ederra egin du.



Olentzero eta Mari Domingi laguntzaileekin atsedenaldira. AITZIBER JUANENEA



Eliza barrenetik ederki apaindu zuten Eguberrietan. MAIDER PETRIRENA



Gazteek bideo baten bidez 'Eguberri on!' eskaini zieten herritarrei. EKAITZ BERTIZ

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERTATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Gestel
nuntz optikoa
irratzi-uhinak
4G

KSAT

TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA

T. 637 40 86 40 - 31780 BERA
andonimabako@gmail.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Zalain

JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

«Baldintza hauetan lan egitea ez da errentagarria»

JAIONE OTXANDORENA ANDIARENA OSTALARIA

Abenduaren 17tik aitzinera edukieraren %30arekin ostatuak irekitzea baimendu arren, kexu dira ostalariak «ixten lehenbizikoak eta irekitzen azkenak» izateaz gain «neurriak zorrotzegiak» direlako

N. BAZTERRIKA | SUNBILLA

«Ohiko baldintzetan lan egin nahi dugu eta hori ezinezkoa izanez gero dagokigun ordain ekonomikoa jaso beharko genuke». Argi eta garbi adierazi du Nafarroako ostalarien eskaera Jaione Otxandorena Andia-rena (Sunbilla, 1980). Bizi duten egoera «gogorra» da eta «egiazko erreskate plan bat» izan ezean «sektorearen etorkizuna kolokan» egon daiteke. **Aunitz zarete Nafarroan ostalaritza bizi zaretenak... Martxoaz geroztik, kopuru hori aldatu da?**

2019an Nafarroan 18.500 familia –langile eta autonomoak– ginen ostalaritza bizi ginenak. Orain 15.600 familia gara.

Martxoko itxialdia kolpe handia izan zen ostalaritzarentzat. Nola bizi izan zenuen?

Hasieran 15 eguneko kontua izan zen zela pentsatu genuen baina kontua luzatu zen. Guk ekainaren 22ra arte ezin izan genuen ireki. Birusaren agerraldiak hasi zirenean, neurriak zorrotz zizkiguten, edukiera mugatzen hasi ziren eta, horrekin batera, lanaguttitu zitzaigun. Edukiera %30era jaitsi zutenean egoera okertu zen. Bezeroak etorri eta, tokia izan arren, ezin dela sartu erran behar izatea gogorra da, ekonomikoki eta psikologikoki zaila izan zen.

Dirulaguntzak izan zenituen?

Hasieran, Nafarroako Gobernuak 2.200 euroko dirulaguntza eman zigun autonomo guztioi. Hilabete horietan mutuatik 600-700 euro eman zizkiguten. Gero,



Ekonomikoki eta psikologikoki «momentu gogorak» bizi dituzte ostalariak.

ekainean, irekitzearekin batera, dirulaguntzarik gabe gelditu nintzen. Hiru langileak %50eko lan erregulaziora pasatu nituen eta Gizarte Segurantzaren kuota erdia ordaintzen nuen. Irailetik aitzinera, ordea, Gizarte Segurantzaren osoa nagusiaren esku gelditu da. Are gehiago, lan erregulaziotik langile bakarra atera arren, nagusiak langile guztien Gizarte Segurantzaren ordaintzen segitu behar du. Non-dik ordainduko dugu ez badugu fakturatu? Ez digute %30eko edukiera baino gehiago baimentzen baina dena ordaintzen segitu behar dugu...

Urrian berriz ere itxi beharra...

Jatekoa eramateko egiten hasi ginen eta martxan segitu ahal izan dugu. Laguntzarik gabe

aritu gara. Irekita duzunean, iaz tenore horretan baino %75 baino guttiago kobratzen ari zarela justifikatu behar da. Hala ere, %30eko edukierarekin irekita izan genuenean baino hobe aritu gara. Eta orain, hain justu, horixe da berriz etorri dena...

Abenduaren 17tik aitzinera barrenekoa irekitzeko baimena duzue.

Erabat itxia duenarentzat eta merezi dien horientzat ongi da. Bertze batzuek edukiera horrekin ez dute irekiko... Gure kasuan baldintza horietan irekitzea da txarra. Irekitzera behartuta nago goizetan etortzen dena, itxia baldin badago, kafeamahi batean hartzen ahal duen toki batera joan delako. Nahiz eta galera izan dudala eta aunitzetan jendeari ezin duela sartu

erran beharko diodala jakin, irekitzea bertzerik ez dut. Baldintza hauetan lan egitea ez da errentagarria.

Nafarroak bertze erkidego batzuek baino datu hobekak izan arren, neurriak zorrotzagoak direla salatu nahi izan duzue.

Hemen 22:00 arte utzi dute eta EAEn 20:00 arte baina eurerek %50eko edukiera dute eta guk %30ekoa. Ostatu bakoitza mundu bat da, baina nik pertsonalki nahiago dut 20:00 arte eta %50eko edukierarekin, eguerdian bazkari batzuk gehiago eman ahalko nituzke... **Ostalaritzan 2.850 eurotik 25.000 eurora arteko laguntzak iragarri zituzten...**

Gezurra, hori sinetsarazi nahi izan dute. Eta halakoak irakurtzeak izugarriko amorrua eragiten dit. Ez da inor ailegatu 25.000 euro kobratzera. 5.000 euro kobratzen ahal dituenak ere, horrekin ez du hilabete bateko kostuentzako ere aski izanen. Hipoteka edo alokairua dela, argia dela, ura dela, langileen Gizarte Segurantzaren... Eta hori kobratu ahal izateko kristoren baldintza pila bete behar dira. Horrez gain, nabarmentzeko da Nafarroa izan dela ostalaritza ixten lehenbizikoa eta irekitzen azkenekoa. **Sektorearen eskaerak ez dituztela kontuan hartu diozue... Zer da eskatzen duzuen?**

Lehenbizi lan egiten uztea nahi dugu. Ostalaritzan arazoa dagoela frogatuz gero, eta ixtea beharrezkoa bada, bertzelako alternatibak beharko lirake. Edukieraren %30arekin ez da errentagarria ateratzen eta %50arekin kasu guttitan. Beraz, erreskate plan bat behar dugu. Ezin badugu ohiko baldintzetan ireki, dagokigun ordain ekonomikoa eman beharko ligukete. **Zer eraginen du egoera honek?** Aunitzek ez dute irekitzeko aukerarik izan eta gelditzen garenontzat iraupenaren arabera koa izan dena etorkizuna. Horrez gain, ez dugu ahantzi behar ostalaritzak duen katea: hornitzaileak, edari banatzaileak...

Urteko lehenbiziko mendi irteera 19an Hondarribiara

Osasun egoerak aldaketak ekar ditzakeela jakitun izanagatik, irteeren aurreikuspena egin dute

PABLO IRASTORTZA

Mendi Batzordeak prest du aurtengo urterako irteeren egutegia. Abenduaren 1ean elkartu ziren batzordeko kideak eta joan den urteko hitzorduen balorazioa egitearekin batera, aurtengo egitasmoak jorratu zituzten.

Heldu den urterako helmugak zehaztuak

Egindako irteerei dagokionez, osasun egoerak agindutako arauak errespetatuz ahalik eta irteera gehien antolatze-ko lan egin dutela nabarmen-

URTEKO IRTEERA GUZTIAK PREST DITU MENDI BATZORDEAK

du zuten eta datozeni heltzeko prest agertu ziren. Osasun egoerak aldaketak ekar ditzakeela jakitun izanagatik, honakoak dira aurreikusi dituzten irteerak: urtarrilean Hondarribiara; otsailean Legatera (Baztan); martxoan Berastegira; apirilean Leitzara, maiatzean Arizkunera; ekainean Urdazubira; uztailan Uharte-Arakilera; abuztuan Hernio mendira (Tolosaldea); irailean Kartxela mendira (Pirinioak); urrian Pagoeta parkera (Hernio mendilerroan); azaroan Irunera; eta abenduan Etxalarrera joanen dira.

Asteartean lehenbizikoa

Aurtengo lehenbiziko hitzordua heldu den asteartean, ilbeltzaren 19an, izanen dutela iragarri dute.



Urtarrilean zozketatuko duten produktu sorta. ARTXIBOKOA

Hilero lehiaketa bidez janari sorta bat banatuko du elkarteak

PABLO IRASTORTZA

Urte hasierarekin batera, lehiaketa bat antolatu eta abiatu berri du Arkupeak elkarteak. Hori horrela, hemendik aitzinera hilabetean behin arteari, geografiari, kirolari, kulturari edo musikari buruzko galdera bat egingen dute. Galdera TIPI-TTAPA aldizkarian argitaratuko da eta parte-hartzaileek

erantzuna bidaltzeko hilabete horretako azken egunera arteko epea izanen dute. Whatsappez 618 56 78 37 telefonora idatziz bakarrik erantzun ahal izanen da eta asmatzen dutenen artean janari sorta bat zozketatuko dute. Lehiaketako irabazlearen izena hurrengo TIPI-TTAPA aldizkarian argitaratuko da.

Lehiaketa

Nola du izena Iñaki Perurenak Leitzan duen erakusketak? Bidali erantzuna Whatsappez 618 56 78 37 telefonora.



PABLO IRASTORTZA

Urteko azken irteera Lesakara

Azarorako iragarria zegoen Lesakako Kopako Harrira igoera, baina Covid-19agatik abenduaren 15era gibelatu behar izan zuten. 18 ibiltari Nabaz auzotik abiatuta, Alasta eta Gardelsoroko pistan barrena, Kopako Harriaren tontorrera ailegatu ziren. Bertako parajeez gozatu eta indarrak hartuta, Endara urtegia eta San Anton Ermita bisitatu zituzten. Buelta Gardelko eta Zalaburun barna egin zuten eta Nabaz auzora itzuli ziren. Bortz ordu eskaseko joan-etorria osatu zuten.

Urteko kuota otsailean kobratuko dira

Elkarteko bazkideei aurtengo urteko kuota hurrengo hilabetean, hau da, otsailean, kobratuko zaie, euren kontu korrante zenbakitik. Iaz bezala, elkarteko kideek 12 euro ordaindu beharko dituzte.

Bazkidetza uzteko azken egunak

Hori horrela, bazkidetza bertan behera utzi nahi dutenek baja eman beharko dute. Aurtengo ordainketarik egin behar ez izateko, baja eman nahi dutenek urtarrileko azken eguna baino lehen jakinarazi beharko dute.

Udalak 2 milioi euroko aurrekontua onartu du

San Migel eta Mendaur ikastetxeetako patioa estaliko dute, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin

MARGA ERDOZAIN

Herriko Etxeak 2.078.155,77 euroko aurrekontua onartu du 2021erako (udala eta Agorreta musika eskolako batuta).

Zerbitzuen jarraipena

Diru kopuru horrekin herriko zerbitzuen jarraipena bermatuko du eta bertze hainbat erronkari eutsiko dio.

2021ean burutzekoak diren ekimenen artean honako hauek azpimarratu behar dira: Parrokia karrikaren egokitzapena, Amezti zeharbidearen bigarren fasea, herrigune historikoaren

plan urbanistikoaren jarduerak... Aurten egingen den bertze lan handia San Migel eta Mendaur ikastetxeetako patioaren estaldura da. Lan hau burutzeko Nafarroako Gobernutik dirulaguntza jasoko da, aurrekontua ia 300.000 eurokoa baita.

Azpimarratu behar da, pandemiaren ondorioz, Madrilek ezarritako gastu-sabaia kenduta, herriak duen diruzaintzako geldikina edo erremantea, beharrezkoa balitz, hainbat inbertsioetarako erabilteza aukera ere izanzen lukeela.

Enplegu formakuntzarako ikastaroak antolatu ditu Nafar Lansarek

MARGA ERDOZAIN

Enplegu formakuntzarako honako ikastaro hauek aurreikusi ditu Nafar Lansarek: ekimen antolakuntza ikastaroa (urtarrilaren 26tik otsailaren 11ra emanen dute); frantses ikastaroak (oinarizko maila eta erdi maila) eta

erdi mailako ingeles ikastaroa. Horiei buruzko argibideak jasotzeko eta ikastaro horietan izena eman ahal izateko Doneztebeko Enplegu Agentziara deitu behar da (848 421801 telefonora). Ikastaro hauek guztiak dohainik izanen dira.

Ipuin txokoa asteartero liburutegian

Martxan da berriz ere ipuin txokoa. 0-3 urte bitarteko txikiek asteartero ipuin kontaketa batez gozatzeko aukera izanen dute 11:00etatik 12:00etara. Haizea Loirak bideratutako saiora ipuin eta kanta gehiago ekarri ditu Olentzerok.

Eguberrietako postalen artean sarituak

Udalak Eguberrietako postalak egin eta bidaltzeko deia eginga zien herritarrei. Jasotako postalen artean zozketa egin dute eta Noa Gallego, Miren Martin eta Asier Huarte izan dira sarituak.



UTZITAKOIA

Olentzero eta Erregeen bisita

Desfilerik ez, baina Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan dute Eguberrietan Donezteben. Txiki, heldu, atautxi-amatxiek... balkoietatik agurtu zuten bikotea. Erregeek antzeko ibilbidea egin zuten. Meltxor(ra), Gaspar(ra) eta Baltasar(ra) eskuzabal portatu zarete, berdintasun keinu ederra oparitu diguzue.



UTZITAKOIA

Ene Kantak taldearen emanaldi liluragarria

Liluraturik gelditu ziren abenduaren 27an, hondarreko igandean, Ene Kantak taldeak eskainitako *Liluragarri* izeneko emanaldietara hurbildu ziren 210 ikusleak. Edukiera mugak zirela eta, bi emanaldi izan ziren. Dantza, txalo, irri eta algarek hartu zuten zinema.



DONEZTEBEKO UDALA



Arantxa Diez, Carlos Gimeno, Javier Bereau eta eraikitze enpresako ordezkariak.

Pulunpa eskola berrian hasi dute 2021a ikasleek

Nafarroako Gobernuak 2,6 milioi euro inbertitu ditu proiektuan

ARKAITZ MINDEGIA

Urte aunitzez eskaturiko eskola berria akituta, Eguberrietako oporretatik bueltan, Pulunpa eskola berria estreinatu berri dute 70 ikasle inguruk.

Eraikinak 1.214,70 m²-ko azalera eraikia du eta 6 unita-tetarako edukiera. Gainera, berariazko gelak, jantokia, irakaskuntza-bulegoak, komunak eta bertzelako gela osagarriak ditu. Proiektua Díaz Arquitectos enpresak egin du eta eraginkortasun energetikoari dagokionez, «kontsumo ia nuluko eraikinen» kalifikazioa omen du. Eraikuntza

lanak Excavaciones Osés SL enpresariesleitu zion Hezkuntza Departamentuak 2.207.899,34 euroren truke eta, gainerako gastu guztiak sartu ondotik, inbertsioaren gutzitiko prezioa 2.685.774,34 eurokoa izan da. Obrak 2019ko azaroaren 4an hasi ziren, eta zazpi hilabeteko epea zuten akitzeko; beraz, 2020ko ekainerako akitua behar zuten. Hala ere, lurra mugitzeko lanak hasi zirenean, ondoko mendi-hegala egonkortu behar izan zuten eta segurtasun-arazoengatik akabera-epaia atzeratu egin da.

Olentzeroren bisita izan dute iturendar eta aurtiztarrek

Osasun neurri guztiak betez ospatu dituzte Eguberriak herritarrek. Aurtizko haurrak abenduaren 24an herrian barna ibili ziren kantari eta ondotik Olentzeroren bisita izan zuten. Iturenen ere izan zen ikazkina.



UTZITAKOAK

Guraso elkarteak aurtengo egutegia salgai du

Pulunpa eskolako guraso elkarteak bi saski zozketatu ditu. Aurten zozketa txartelak egin beharrean, herriko komertzioetan 1-99 laukitxoak salgai paratu zituzten bi eurotan. Eguberrietako loterieren azken bi zenbakiak, hau da, 97a, erosiak zituztenak izan dira sarituak, Irune Altxu eta Sheila, hain zuzen. Horrez gain, guraso elkarteak aurtengo egutegia salgai paratu du. Herriko Ostatuan, dendan, Eiderile-apaindegian eta Aurtizko tailerlean esku-ra daiteke.

Egoitz Gorosterrazu Mariano Izeta sariketan izan da

Abenduaren 27an Irurritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean Mariano Izeta bertso sariketa egin zuten. Goizean bikanporaketak egin ondotik, arratsaldean final handiaren txanda izan zen. Guztira Nafarroako 16 bertsolari gazte taularatu ziren eta horien artean izan zen Egoitz Gorosterrazu herritarra. Finalera sailkatzeko modurik izan ez bazuen ere, bertso politikak kantatu zituen iturendar gazteak. Xabat Illaregi leitzarrak jantzi du IX. edizioko txapela.



ARKAITZ MINDEGIA

Kontzertu gustagarria herrian

Abenduaren 26an Trikidantz taldeak bi kontzertu gustagarri eman zituen herrian. *Bizitzaz goxatu* diskoko abestiak eta bertze bertso polit batzuek gozatzeko aukera izan zuten entzuleek. Dantzarako grina izanagatik, eserita aditu behar izan zuten kontzertua. Sarreran Enaitz laguntzeko ekarpenak egin zituen jendeak.

Elizara eta Lasagara joateko bideak txukundu dituzte

Udalak 2020ko azken lanak egin eta elizara eta Lasagara joateko bideak txukundu zituztu. Aurtiztik elizara joateko bidean zuloak zeuden eta nahiko egoera kaskarrean zegoen eta Lasagara joatekoak ere moldatzeko beharra zuen. Bata zein bertzea zolaberritu dituzte.



7-8 urteko hamaika gaztetok parte hartu zuten tailerrean. IZASKUN ZUBIALDE

Haurrentzako margo tailerrak emateko aukera aztertuko dute

FERMIN ETXEKOLONEA

Gurasoek antolatuta, abenduaren 29an eta 30ean haurrentzako margo tailerrak izan ziren herrian. Parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko, 11 lagunetara mugatu zuten edukiera eta herriko eta inguruko artista gazteak hurbildu ziren, plaza guztiak betez. Iciar Mi-

kelperizena gidari zutela, 7-8 urteko gaztetxoek ikasteko eta gozatzeko aukera izan zuten eta kontatu dutenez «oso gustura» aritu ziren. Aurrera begira, tailerren eskaintza eta eskaria aztertu eta beste herrietan bezala Zubietan ere margo tailerrak ematerik badagoen ikusi beharko da.

Herrian gastatzeko sei txartel zozketatu ditu Donamariako Udalak

TTIPI-TTAPA

Donamariako Udalak Donamariako Bentak jatetxean eta Herriko Ostatuan gastatzeko sei txartel zozketatu zituen abenduaren 24an. Zozketa horrekin, egoera kaxkar honetan herriko ostalaritzarekin bat egin nahi izan zuten.

Zozketan Estibaliz Erasun, Leire Mutuberria eta Kleofe Goñi egon ziren eta honako hauek izan ziren onuradunak: Maria Victoria, Xabier Inda, Miguel Mari Goñi, Benita Grazenea, Juan Jose Urroz eta Ortega familia. Zorionak eta gozatu!

Egur loteak markatu ditu Donamariako Udalak

Herriarrek eskatutako egur loteak markatzera joan dira urte hasieran Donamariako Udaleko ordezkariak. Joan den urteko haize boladek botatako arbolak aprobetxatu dituzte aurten. Guztira 50 eskaera inguru jaso ditu udalak.

Berriz ere irekita dago Zubietako errota

Eguberrietako etenaren ondotik, urtarrilaren 2az geroztik berriz ere irekita dago Zubietako errota. Urtarriletik ekainera, asteazkenetik igandera goizez irekiko dute, 11:00etatik 14:00 arte. Astelehen eta astearteetan, berriz, itxita egonen da.



IZASKUN ZUBIALDE

Olentzero eta Mari Domingi Zubietan

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Olentzero eta Mari Domingiren bisita izan zuten abenduaren 24an Zubietan. Jende pilaketak saihesteko etxez etxe ibili ziren ikazkina eta laguntzailea. Bikotea batetik bestera ibili bitartean, trikitalari eta joaldunek girotu zuten herria.

San Anton Eguneko ospakizunik ere ez da izanen aurten

FERMIN ETXEKOLONEA

Udalak antolatutako mokadutxoak eta musika izaten dira San Anton Egunean herriko pizgarriak. Aurten, ordea, egoera ikusita, urtarrilaren 17ko mezaren ondotik mokadutxoak eta txokolate beroa ez eskaintzea eta ilu-

nabarrerako dantzaldirik ez antolatzea erabaki du udalak. Lerro hauek idazterako orduan, ermitan urteroko meza eman edo ez erabakitzeke zuten herriarrek, baina edukiera mugak errespetatzeko zailtasunak arteko, zail ikusten zuten.



UTZITAKOIA

4 milioi euro Mainer Santestebanen eskutik

Urte berri eguneko Oncerren estraren zati bat banatu du Mainer Santesteban zubietarrak. Donostiako Loiola karrikan dagoen Oncerren kioskoan saldu zituen 93.437 zenbakidun 10 txartel sarituak, guztira 4 milioi euro banatuz (txartel bakoitzeko 400.000 euro).

1,2 milioi bisita baino gehiago izan ditu ERRAN.EUSek 2020an

Bisita horietan 2.572.898 orrialde ikusi dituzte erabiltzaileek, 2019ko datuak ia-ia bikoiztuz

TTIPI-TTAPA

2020a urte zaila izan da: Covid-19aren pandemiak arlo guztietan eragin du bete betean, elkar zaintzak inoiz baino pisu handiagoa hartu du eta tokian tokikoak garrantzia irabazi.

Hala izan da ERRAN.EUSEn kasuan ere, koronabirusaren azken ordukoek eta eguneroko datuek markatu dute agenda.

Erabiltzaileek TTIPI-TTAPAK eskaintzen dien hurbileko informazioan erakutsitako interesa eta konfiantza altua izan da, eta hori aise nabaritu da 2020an ERRAN.EUS webguneak lortu dituen datuetan: 1.255.433 bisita egin dituzte ERRAN.EUS atariko erabiltzaileek 2020an eta bisita horietan 2.572.898 orrialde ikusi dituzte.

Erabiltzaileak, saioak eta orrialde bisitatu kopuruak goiti

Urtetik urtera, sendotzen ari da ERRAN.EUS kanal digitala eta, beldurrik gabe erran dezakegu *Xorroxin* irratiak eta TTIPI-TTAPAK elkarlanean egi-

2019KO ERABILTZAILEEN DATUAK IA-IA BIKOIZTU EGIN DIRA

KORONABIRUSAREN DATUAK URTEKO HAMAR ORRIALDE IKUSIENEN ARTEAN

ten duten edizio digitala Nafarroako medio digitalen artean erabiltzaile gehien eta audientziarik handiena duen hedabidea izateaz gain, Mendialdeko tokiko informazioaren kontsumoan oinarri-oinarrizko azpiegitura bihurtu dela. 2020ko datuak aztertuta, kopuruak adierazgarriak dira benetan.

2019an 1,4 milioi orrialde bisitatu zituzten ERRAN.EUSEko erabiltzaileek, 2020an ia 2,6 milioi izan dira guztira. Erabiltzaile kopurua ere altuagoa izan da, eta 2019ko 167.581etik 256.711ra igo da 2020an. Webguneak guztira jasotako bisita kopurua 2019ko 661.999tik 1.255.433ra igo da.

Bisita gehien izan dituzten atalak

Koronabirusaren pandemia hasi zenetik, webgunean egunero eman diren datuak izan dira zalantzarik gabe interes handiena piztu dutenak. Eta hilabete dezente igaro bada ere, ia egunero albisterik irakurriena izaten segitzen du. Hala, koronabirusari lotutako bi atal bereziak; *Covid-19a gurean* eta *Azken datuak* (grafikoen orrialdea), urteko hamar orrialde ikusien artean kokatzen dira.

Gainerako orrialdeei dagokienez, eskelak, merkatu titiko iragarki sailkatuak eta urtebetetzeak ere hamar bisitatuena artean sartu dira. Eta ez hori bakarrik, hauek ere gora egin dute, %62,17 eskelak eta %54,69 iragarki sailkatuak.



UTZITAKOA

Eguberrietako zozketan sarituak

Merkatarien eta zerbitzuen elkarteak, udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, Eguberrietako bi saski eder, Errigoraren bertze bat eta Belarra jatetxean lau lagunendako otordua zozketatu ditu. Iratxe Telletxea-argazkian alaba-, Xixili (Donamaria), Iruñe Bazterrika (Ituren) eta Martin Irisarri (Legasa) izan dira sarituak.



ERREKA KIROL ELKARTEA

Bixi Ameztorentzat Errekako saskia

Legasako Bixi Ameztoti Arrijuriarentzat izan da Erreka elkarteak zozketatutako saskia. 2.531 zorbakiari esker sari ederrak eraman ditu etxera: merkataritza eta zerbitzu elkarteetan erosteko 150 euroko erosketa txartela, erregaian gastatzeko bertze 150, *Roomba* robota, asteburu-pasa bi lagunentzat, ordenagailua, bizikleta...

Eguneko albisteak ERRAN.EUS gunean

erran.eus ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA
ESKELAK eta HILBERRIAK %10eko deskontua TTIPI TXARTELArekin

1 - Animaliak
2 - Etebetzeak

Arizkun Kirikoketa besta



Terraza irekian elkar daitezke herritarrak, beti ere, segurtasun neurriak hartuta.

Estalpea erantsi diote Maisueneko eraikinari

Nafarroako Gobernuak herriko azpiegituretan hobekuntzak egiteko emandako dirua estalpea egiteko erabili du udalak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak herriko azpiegituretan hobekuntzak egiteko 16.700 euro inguruko dirulaguntza eman dio udalari eta hori Maisueneko eraikinari aterpea erantsi aurretik du udalak. Aurrekontua 16.500 euro ingurukoa izan da eta obra

abenduan hasi eta bukatu zuten. Egindako lanari esker, urte berriarekin batera, herritarrek terraza ireki horretan elkartzeko aukera dute. Hala ere, udaletik azpimarratu dutenez, Covid-19a dela eta, indarrean dauden babes neurriak hartzea ezinbestekoa izanen da terrazan biltzeko.

Ohiko bueltarik gabe baina Eguberri bezperako seinalea egin dute haurrek eta gurasoek

AINHOA ANSA

Abenduaren 24an ezohiko buelta egin zuten Aranoko umeek beren gurasoek lagunduta. Suron bi lekutan kantatu ondoren, Bentaberriko ateak jo zituzten. Beheko Herringune batean aritu ziren kantari eta herrian bertan azkenik. Aldi honetan ez zen betikoa bezalako izan eguna, baina bisitatu gabe gelditu ziren base-rietan gabon zoriontsuak ospatu izana espero dute haur eta gurasoek. Beti bezala, zozketa ere egin zuten eta Mari-nari tokatu zitzaion saskitxo.



Haurrak kantuan ibili ziren abenduaren 24an. A. ANSA



Herritarrak kamera ilunak bizkarrean.

Kamera ilun erraldoia laster inauguratuko dute

AINHOA ANSA

Landarteren proiektua bukaerara arrimatzen ari da eta dagoeneko, eguraldiak baimentzen duenean, inaugurazioaren eguna jartzea geldituko da. Itxura polita hartu du kaxa ilun edo *camera obscurak*. Azken hilabete hauetan Nader Koochakiren gidaritzapean kamera ilunaren proiektua ezagutzen ibili ondotik, ea laster argazkiak gure begietarako behin eta berriz sortzeko erabiltzen hasten garen...

Gazte plana osatzeko emaitzak jaso eta aztertuko dituzte

Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatuta, irailean hasi ziren eskualdeko gazte plana idazten eta azaroan, gazteen artean galdetegia eta hainbat elkarrizketa egin zituzten. Abenduan, bisaio ireki egin zituzten: Leitza, Leizta eta Aresoko gazteekin, eta Goizuetan, Goizueta eta Aranokoekin. Azken saioan, adibidez, 20 bat gazte bildu ziren eta lana, kirola, aisialdia, parekidetasuna, sexualitatea, sare sozialak, etxebizitza eta euskara izan zituzten hizpide. Hurrengo fasean, emaitzak aztertzen hasiko dira.

Gosaltzearen onurez sentsibilizatzen kanpaina

TTIPI-TTAPA

Adin txikikoen obesitate tasa murriztea helburua duen Kikili Salda ekimenak *Lehenengo gosalduta* kanpaina abiatu du. Helburu nagusia osasuntsu gosaltzearen onurez sentsibilizatzea da. Izan ere, NUPeko ISFOOD institutuaren ikerketa baten arabera, 8 eta 12 urte bitarteko haurren %13k ez du gosaltzen. Datua «oso kezagarria» dela iritzita, besteak beste, Areso, Goizueta eta Leitzako eskoletako ikasleei gosaltzeko katilu bana eta gurasoei ohitura osasungarriak bultzatzeko eskuorriak banatu dizkiete, herrian kartelak jarri dituzte, Haur Hezkuntzan elikadura eta ohituren semaforo joko didaktikoa sortu dute...



190 estatutan ikusiko den telesail bat grabatuko dute

Eskola eta institutu eremuan ariko dira nerabeei zuzendutako fikziozko telesaila grabatzen

JM BARRIOLA

Oria Films egoiztetxeak Estibaliz Burgaleta gidoilariaren *Tu no eres especial* (Zu ez zara berezia) telesaila grabatzeko asmoa du aurten, Netflix plataformarako izanen dena eta 190 estatutan estreinatuko dutena.

Erdigunea Lekunberri izanen badute ere, inguruetan ere grabaketak eginen dituztela iragarri dute, horien artean, Leitzako eskola eta institutu inguruan. Nerabeei zuzendutako fikziozko telesaila izanen da, Salavarría asmatutako herrian kokatua.



UTZITAKOIA

Errusieratik euskarara ekarri du Uhartek

Aleksandra Kollontairen (San Petersburgo, 1872 – Mosku, 1952) *Erle langileen amodioak* narrazio liburua euskaratu du Aroa Uhartek herritarrak. Literatura lan baten lehen itzulpena du Uhartek eta lana errusieratik euskarara ekarri du zuzenean, EIZIE elkarte eta Erein eta Igela argitaletxeen eskutik.

Xabat Illarregik jantzi du IX. Izeta Sariketako txapela

JM BARRIOLA

Mariano Izeta bertsozale eta euskaltzale baztandarra gogoan, abenduaren 27an jokatutako Iruritan bere izena daraman sariketa eta 16 bertsozale artean, Xabat Illarregi izendatu zuten txapeldun. Zorionak!



Xabat Illarregi txapela soinean.

Alaia Telletxearentzat izan da irakurgailu elektronikoa

Irakurzaletasuna sustatzeko, udal euskara zerbitzuak eta Topaguneak, liburutegiarekin elkarlanean, *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* kanpaina antolatu zuten eta parte hartu zuten artean irakurgailu elektronikoa bat zozkatu zuten abenduan. Alaia Telletxearentzat izan da.



Alaia Telletxea saritua. DABID ANAUT



UTZITAKOIA

Bateraguneko auzipetuei elkartasuna

Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Leitza ere Bateraguneko bost auzipetuei babesa emateko kontzentrazioa egin zuten abenduaren 19ko eguerdian herriko plazan. *Demokrazia* zioen pankartaren atzean hainbat herritar bildu ziren.



UTZITAKOIA

Itzaire udal haur eskolako logoa

Itzaire udal haur eskolak logoa berria du, Edurne Jauregiren, hain zuzen. 300 lagunek parte hartu zuten udalak eta haur eskolak deituta egindako bozketa irekian eta Jauregiren *Gaztaina* lana izan da saritua, bigarren Ireber Arangoaren *Kimu berriak* eta hirugarren Aingeru Zabaletaren *Haur eskola, denan eskola*.



Herri Aretoaren inaugurazio egunean dantzariak. LEITZAKO UDALA

Kulturaren aldeko apustua iragarri du udalak Herri Aretoaren inaugurazioan

TTIPI-TTAPA

«Euskal kultur paisaian espazio berri bat jaio da». Halaxe esanez aurkeztu zuen Mikel Zabaleta alkateak Herri Aretoa, abenduaren 18an egindako inaugurazio ekitaldian.

Musikari, umoreari eta dantzari keinu eginez zabaldu zituzten garai bateko zine zaharreko ateak. Kristina Urrutiak egin zituen aurkezle lanak, eta zeharkako txirula eta biolontxeloaren doinu artean, Jeiki Abesbatzako kideen kantuen artean, Aurrerako dantzarien saioarekin eta nazioarteko kongresu umoretsuarekin ba-

tera, alkateak herritarren alde-
tik jasotako babesari eskertu nahi izan zuen: «orain dela 64 urte herritarren ekimenez sortu zen zine zaharra, eta herritarren babesari esker sortu dugu Herri Aretoa». Ekitaldian Rebecca Esnaola Kultura eta Kirol kontseilaria ere izan zen.

Hainbat motatako sorkuntzei bide emateko, erabilera anitzeko areto bat izatea du helburu udalak, «Leitza herri bizi-bizia» delako. Are gehiago, alkateak «aurten kulturaren aldeko apustua» egiteko asmoa dutela azpimarratu zuen inaugurazio ekitaldian.



ARGAZKIA ETA TESTUA: JM BARRIOLA

'Orantzaro' dokumentalaren estreinaldia

160 ikusleren aurrean abenduaren 20an aurkeztu zuten *Orantzaro* dokumentala, ALKEkoen azalpenen ondotik. Orain *leitzakultura.eusen* dago bertsiotik, ikusi nahi duenarentzat. Ohitura zaharrari eutsiz, hainbat orantzaro agertu dira etxez etxe. Auzoetan kalejiran ere ibili zen Orantzaro.

Ilbeltzaren 24rako inauterien seinalea iragarri dute Atekabeltzen

TTIPI-TTAPA

Negun atekan hotzik ez! lelopean urte hasiera mugitua dute Atekabeltzen, gaztetxeak antolatuta hainbat hitzordu izan baitituzte. Ilbeltzaren 2an, esaterako, *Skape Room* egitekoa zuten lauko taldetan banatuta, 3an Anariren kon-

tzertua eta hilaren 9an *Urten behin* txapelketa, Atekabeltzeke, herriko edota bestelako galderekin osatutako txapelketa.

Aurrera begira, ilbeltzaren 24an inauterien inguruko zer-bait egiteko asmoa dutela iragarri dute.



UTZITAKOAK

Abenduko kultur agendari errepassoa

Bertso saioa, bakarriketa, Herri Aretoaren inaugurazioa, azoka, *Orantzaro* dokumentalaren aurkezpena, ikuskizunak, filmak, antzerkia, Xabi Solano eta Kimu Dantza Kolektiboaren saioa, Jeikikoen kantu kalejira... Kultur eskaintza oparoa izan zen abenduan, eta herritarren erantzuna ere neurri berekoa, bikaina.



Abenduan zehar egindako auzolanetan hainbat lagun bildu dira. GOIZUETAKO UDALA

Sei lokal egokitu dituzte Tifanitxo eraikinean

Aurreneko solairuan lau gela eta bigarreanean beste bi izanen ditu Iriarteneak

TTIPI-TTAPA

Itxuraldatua gelditu da Iriartenea edo Tifanitxo izenez ezaguna den eraikina. Pandemiaren eraginez lanak nahi baino gehiago luzatu badira ere, poliki-poliki aurrera doaz. Abenduan, esaterako, herri-tarrak auzolanean margotzen aritu ziren eta udalaren hitzetan, «auzolana benetan arrakastatsua» izan zen, udalak berak egindako auzolan deialdian 20 lagun bildu baitziren. Gaineratu duenez, «historia eta istorio askoren sehaska izandakoa da Tifanitxo erai-

kina eta seguru hemendik aurrera ere herriari bizia emanen dioten hainbat proiektu ikusiko dituela jaiotzen». Horri bidea emateko aldatu dute eraikinaren antolaketa.

Lehen espazio handiko gelaletan banatua zegoen eta orain sei lokal izanen ditu: lau aurreneko solairuan eta bi bigarreanean. Gazte Asanbladak, Ezker Abertzaleak, GoizuKoop kooperatibak eta Basauntz elkarteak lokal bana izanen dute eta beste biak ikastaro, tailer eta hitzaldietarako erabiliko dituzte.

Umore Onak 2021eko egutegia salgai jarri du

Ikasturte honetan esku pilotan eta pala eskolan ari diren kideen argazkiak bilduz, egutegia egin du Umore Ona pilota eskolak eta salgai jarri du sei euroren truke. Oraindik erosi ez duenak estankotan izanen du eskura. Egutegien bidez lortutako dirua bi eskolak sostengatzeko izanen da.

Zuntz optikoa herritarrentzat erabilgarri

Duela zenbait aste zuntz optikoren hedapena egiteko lanakegiten aritu ziren herrian eta horiei esker, herriko etxeek zuntz optikoa jartzeko aukera dute orain. Hala, Internetarako abiadura azkarragoa, datuen igoera eta jaitsiera simetrikoa eta seinalearen kalitatea hobea izanen dute.



FELIX LOIARTE

Olentzero eta Mari Domingiren bisita

Segurtasun neurriak hartuta eta urteroko ospakizun eta kalejirarik gabe, baina Olentzerok eta Mari Domingik ez zuten hutsik egin abenduaren 24an. Frontoian bildutako hainbat lagunek ohiko hurbiltasunik gabe izan bazen ere, beraiekin egoteko aukera izan zuten.




Argazki lehiaketako sari banaketan Lamurren ikuskizunaz gozatu zuten bildutakoek.

Itsaso Lujanbioren 'Etorkizuna oraina da' argazkiak irabazi du lehiaketa

TTIPI-TTAPA

Joan den abenduaren 12an banatu zituzten eskualdeko prebentzio programaketa berdintasun zerbitzuak antolatutako Zaintza pandemiagarria argazki lehiaketako sariak. Epaimahaiak Itsaso Lujanbioren *Etorkizuna da oraina* argazkia aukeratu zuen eta berarentzat izan zen lehenengo saria. Zozketa bidez, berriz, Garbiñe Etxegiaren *Zeruaren koloreak* argazkia saritu zuten. Sari banaketaz gain, bildutako 36 lagunek Pantxika Lamurren clown ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten.



Lujanbio eta Etxegiaren argazkiak.



Leihoak estreinatu dituzte eskolan J. OTERMIN

Eskolako leihoak aldatzeko beste 28.000 euro udalari

Toki Administrazioaren Departamentuak iragarritako 29.000 euroez gain beste laguntza bat jasoko du Hezkuntzatik

TTIPI-TTAPA

Eguberri aurretik bukatu zituzten eskol-etxean leihoak aldatzeko lanak, eta urtea leiho berriekin hasi dute bai eskolako lagunek, bai Pake Toki elkarteak.

Jose Otermin alkateak TTIPI-TTAPARI azaldu dioenez, proiektua 87.489,26 euro kostatzen da eta bere garaian, Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioaren Departamentuak 29.369,40 euroko laguntza ematea erabaki zuen. Berriki, berriz, beste dirulaguntza baten berri jaso du udalak, Hezkuntza Departamentuarena, hain zuzen.



Abenduan aldatu zituzten leihoak.

«Onartutako proiektuen zerrendan gure aurretik zegoen batek proiektua egiteari uko egin dio eta 28.000 euroko dirulaguntza emango digute», adierazi du Oterminak.

Ehizatza etorri ezin izan dutenei dirua itzuli die udalak

TTIPI-TTAPA

Covid-19a tarteko agintariek ezarritako neurrien ondorioz, hainbat ehizatza ezin izan dute denboraldia aprobetxatu. Horiei dirua itzuli diela jakinarazi du udalak. Zehazki, uso postuen enkanteko diruaren bi heren itzuli du.



ANE URRETA, ENERITZ IRAOLA

Eguberri bereziak baina ederrak

Modu berezian bada ere, ez dira ospakizunik gabeko Eguberriak izan. Giroten lehenak guraso eta haurrak izan ziren, jaiotza-rekin ederki apaindu baitzuten plaza ingurua. Abenduaren 22an eskolatik kalejira egin zuten eta 24an herritarrak kantuan atera ziren. Olentzero ere etorri zen, estreinakoz Mari Domingirekin.

Guraso elkarteko saskia Ane Bustorentzat

Guraso elkarteko saskia aurten Donostiara joan da. Aroa eta Laia izan dira txartel sariduna saldu dutenak eta Ane Bustok eskuratu du saria. Argazkian ageri dira hirurak saski ederrarekin. Otordu bat baino gehiagotarako badute... Zorionak eta aprobetxatu!



Aniz ikergai duen lanaren aurkezpena Elizondon

Arizkunenea kultur etxean ilbeltzaren 29an aurkeztuko du Maitane Maritorenak bere lana, 19:00etan

TTIPI-TTAPA

Maitane Maritorenak aniztarrak joan den urte bukaeran argitaratutako *Aniz, 11 etxe, 11 labe, 22 zetabe, bat bertzearen behartu gabe* lana aurkeztuko du ilbeltzaren 29an, hondarreko ortziralean, Elizondon. Aurkezpena Arizkunenea kultur etxean izanen da 19:00etan. Edukiera mugatua egonen denez, joan nahi dutenek gonbidapenak 18:30etik aitzinera eskuratu ahal izanen dituzte. Bertaratzen direnek Aniz herriazena eta denaz gehiago jakiteko aukera izanen dute, Maritorenak herria (biz-



Maitane Maritorenak.

tanleria, etxeak, armariak, parajeak...) eta aniztarren bizimodua (ohiturak eta ospakizunak, erraterako) biltzen dituen lanaren nondik norakoak izanen baititu solasgai.



Abenduan Anizen izan zuten hitzordua.

Baztan Kantuz egitasmoaren urteko lehenbiziko geldialdia Arizkun

TTIPI-TTAPA

Herriko eta inguruko kantuzaleek Arizkun musika doinu eta ahots goxoz girotuko dute urtarrilaren 24an, laugarren igandean.

Izan ere, Baztan Kantuz egitasmoaren urteko lehenbiziko hitzordua izanen dute. Eguerdian, 12:00etan, plaza-

tik abiatuta herrian barna, karriz karriz, ibiliko dira ordubetez.

Nahi dutenek Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako deialdiarekin bat egin dezake. Izan ere, antolatzaileek gonbidapena luzatu eta parte hartzera animatzeko deia egina dute.

Truke azokek izan duten harrera ez dela «espero gisakoa» izan adierazi dute

TTIPI-TTAPA

Baztango Gazte Asanbladak «Eguberrietako kontsumo masiboa birpentsatzeko» helburuz antolatutako musu-truke azokek «ez dute espero gisako erantzuna izan». Antolatzaileek, hori kontuan hartuz, «baztandarrek gisa horretako ekital-

dietan parte hartzeko lotsa edo aurreiritziak» dituztela uste dute, eta beraz, «halako ekitaldi gehiago» behar direlakoan daude, «hori alda eta normalizatu dadin». Horrekin batera, Anizi eskerrak eman nahi izan dizkiote, «jasotako harrera eta goxotasunagatik».



Baztango Gazte Asanbladak Anizen jasotako harrera eskertu du.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Plazaolak irabazteari edo galtzeari buruzko hausnarketarako tartea eskainiko du.

'Irabazi' antzezlanak ikusgai Iruritan urtarrilaren 17an

Emanaldia 19:00etan izanen da eta ikusleek gonbidapenak 18:30etik aitzinera jaso ahal izanen dituzte

TTIPI-TTAPA

Baztango Kultura Batzordeak antolatuta, Jon Plazaola protagonista duen *Irabazi* antzezlanak ikusteko aukera izanen da urtarrilaren 17an, igandean, Iruritan. Nafarroako Gobernu-ko Artea eta Kultura egitasmoaren barne antolaturiko hitzordua 19:00etan izanen da. Edukiera mugatua izanen denez, bertaratu nahi dutenek gonbidapena beharko dute (18:30etik aitzinera banatuko dituzte).

Sinopsia

Galtzeari edo irabazteari buruzko hausnarketa egiten duen

lanak da. «Garrantzitsuena parte hartzea da». Gizarte lehiakor, krudel eta mesfidati batean, jendea prest dago gainontzekoak zapaltzeko bertzeen gainetik gelditze horrekin, edo hala diote *Irabazi* lanean. Felix protagonistak ez daki zer den bere bizitzan deus irabaztea. Bere erosotasun-eremua aurkitu du ez gibelera ez aitzinera daraman egoera horretan. Baina gau horretan dena aldatuko da, Felixek sari bat jasoko du. «Bizitzak erakutsi digu galtzen, baina, bala dakigu irabazten?» galderaz hausnartzera bideratuko dituzte ikusleak.

Kantu herrikoiak ikusteko aukera asteazkenetan

TTIPI-TTAPA

Kalakan taldeko kide izandako Thierry Biscaryren gidaritzapean, kantu herrikoiak ikusteko eta horiek interpretatzeko ikastaroa abian da Baztanen. Urtarrilaren 13an izan zuten lehenbiziko saioa eta martxoaren 17ra arte as-

teazken arratsaldeetan Arizkunenea kultur etxean bilduko dira. 18:30etik 20:30era, bi orduz, kantu herrikoiak kantatzeko guneak eta bertze ezaugarri batzuk aztertuko dituzte. Baztan ere kantatzen duen bailara izanen da aste-eroko hitzorduetan.

Klaustrofilia erakusketa otsailaren 14ra arte ikusgai Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

Centro Huartek antolatuta, arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko *Uholdeak* erakusketa programaren barne, *Klaustrofilia* erakusketaz gozatzeko aukera izanen dute ilbeltzaren 19tik, heldu den asteartetik, otsailaren 14ra

bitarte Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Erakusketa astelehenetik larunbatera bisitatu ahal izanen da eta artistei edo lanei buruzko informazio gehiago nahi dutenek www.centrohuarte.es atarian izanen dute eskuragarri.



Eraiki nahi duten hotelaren maketa.

Udalak Arozteguiko hotelaren baimena ofizioz berrikustea erabaki du

TTIPI-TTAPA

Palacio de Arozteguía SL-k hotela egiteko administrazioaren isiltasunaren bidez lortutako baimena berrikustea erabaki zuen Baztango udalbatzak abenduaren 24ko bilkuran. Akordio horren aldeko botoa eman zuten EH Bilduren eta Ezkerraren zortzi zinegotziek, Geroa Bairen bi zinegotziek abstentziorat jo zuten eta Navarra Sumako hirurek kontra bozkatu zuten.

Hotelaren auzibidea aspalditik heldu den gaia da. Udalak prentsa-oharrean zehaztu zuenez, «2019ko ekainean, Vianako Printzea erakundeak eta udal-arkitektuak proiektuaren kontrako eginak zituzten txostenak kontuan hartuz, alkatetzak hotelaren obra baimena balio gabetzeko ebazpena egin zuen. Baimen hori administrazioaren isiltasunaren bidez erdietsi zuen Palacio de Arozteguía SL-k. Beterie, ebazpena auzitegian erre-

kurritu zuen sustatzaileak. Horrela, azaroaren 20an Palacio de Arozteguía-ri arrazoia eman zion epaileak, erranez alkatearen ebazpen bidez ezin zela balio gabetu baina, aldi berean, baieztatuz baimenak indarrean den legedia bete behar duela eta, balio gabetzeko prozedura, ofiziozko berrikusketa dela». Horiek horrela, «epaian errandakoari kasu eginez», EH Bilduk hotelaren baimena ofizioz berrikusteko proposamena aurkeztua zuen.

Bertzalde, Palacio de Arozteguía-ak salatutako guztiei elkartasuna adieraztea erabaki zuten, enpresaren jazarpen judiziala salatzea eta, Gobeuari eskatzea lekaroztarren eta baztandarren erranari kasu egitea eta, ondorioz, Arozteguiko proiektua gelditzea. Erabakia EH Bilduren eta Ezkerraren aldeko 8 botoekin hartu zuten, Geroa Bai eta Navarra Sumakoek aurka bozkatu zuten.

Kirikoketa eta txalaparta ikasteko aukera Arizkun

Baztandarra dantza eskolaren eskutik, mutildantza erakusten ikasteko eta mutildantzak ikasteko aukera ere izanen dute

TTIPI-TTAPA

Urte hasierarekin batera, negurako ikastaroak prest dituzte Baztanen.

Kirikoketa eta txalaparta ikastaroa

Baztango kirikoketa-txalaparta eskolak antolatuta, zazpi urtetik goitiko haurrek eta helduek bi arlo horietako jakintzak eskuratu ahal izanen dituzte. Arizkungo Gamioxarrea etxean hasiberriendako eta maila ertaina dutenendako saioak emanen dituzte eta guztira 12 orduko ikastaroak izanen dira. Parte-hartzaileak astearte eta ortzegun arratsaldetan bilduko dira, 16:00etatik goiti.

Mutildantza erakusteko eta ikasteko prestakuntza

Baztandarra dantza eskolak emanen dituen saioetan, mu-

tildantzak erakusten trebatu nahi dutenek edo mutildantzak ikasi nahi dituztenek ere izanen dute aukerarik. Dantza-erakusleendako ikastaroa ortzirale arratsaldeetan eta larunbat goizetan izanen da, 19:00etan eta 11:00etan hurrenez hurren. 20 orduko prestakuntza saioetan interesa dutenek lehenbailehen jakinarazi beharko dute parte-hartzaile kopurua mugatua izanen baita.

Dantzatzen ikasteko, berriz, ortzegunetan bilduko dira, 19:00etan.

Informazio gehiago eta izen-ematea

Ikastaro horiei buruzko informazio gehiago eskuratzeko edota izena emateko 676 204430 telefonora deitu behar dela jakinarazi dute.

Jostailu bilketa «arras arrakastatsua» izan dela diote Gizarte Zerbitzuek

TTIPI-TTAPA

Egoera ekonomiko zaugarrian dauden familiak laguntzeko jostailu bilketa solidarioa egin zuten Baztango Gizarte Zerbitzuek abenduan. Herritar anitzek erantzun zioten deia-ri eta, Iratxe Perez hezitzaileak adierazi duenez, «guztiz arra-

kastatsua izan zen, jende aunitzek ekarri ditu jostailuak, egoera hagitz onean gainera» adierazi zuen. Jostailuak eta objektuak desinfektatu ondotik, Arizkunenean bildu zituzten eta egoera ekonomiko zaugarrian dauden 40 familiari banatu zizkieten.



AINHOA ASTIZ

Mari Domingiren bisita Lekarozen

Abenduaren 22an Mari Domingiren bisita izan zuten Lekarozen. Legate aldetik jautsi eta zaldi eta xaretoarekin sorpresaz betea etorri zen lekaroztarrengana. Herritarren eskutitzak hartuta, txokolatada eta su artifizialekin agurtu zuten. Gabon gauean herriko etxeak bisitatu zituen Olentzerorekin batera.

OTEIZA
ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43
www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

[oteizaarquitectos](https://www.instagram.com/oteizaarquitectos)

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.
VALLE DE CAJERIA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Hamaika herritako alkateak izendatu dituzte

Amaiur, Arizkun, Elizondo eta Iruritako karguak bete gabe gelditu ziren abenduko batzarretan

TTIPI-TTAPA

Bi urtero egun seinalatua izaten da abenduko hirugarren igandea Baztanen, hamabortz herritako alkateak aukeratzeko baitituzte batzarrean. Horrelaxe izan zen abenduaren 20a ere. Hamabortz herrietatik hamaikatan lortu zuten hurrengo bi urtetarako alkatea lotzea. Berroetan, Arraiozen eta Gartzainen gaur egungo alkateek segituko dute, Carlos Garaikoetxeak, Joxelu Reteig eta Fernando Arraztoak, hurrenez hurren.

Elbeten **Imanol Juanikotena** aurkeztu zen eta, batzarreak hala baieztatuta, Xabier Urreagaren lekukoa hartu zuen; Erratzun **Kaiet Itoitzek** hartu zuen Joxe anaiaren lekukoa; Oronoz-Mugairin **Jorge Oteiza** da alkate, azken urteotan lan hori bete duen Ruth Peña-

ren lekua hartuz; Zigan **Joxean Etxeberria** da alkate, Idoia Arrietaren orde; Almandozen **Pello Sarrateak** hartu du aspaldiko urteetan Luis Roldanen esku izan den alkate; Azpilkuetan **Aitor Iturraldek** hartu du Luis Azkarragaren lekua; Anizen **Kristina Fernandezek** Ainhoa Maritorenarena; eta Lekarozen, **Ernesto Pratek** Mattari Plazarena.

Bertze lau herrietan, Amaiurren, Arizkun, Elizondon eta Iruritan ez zen inor aurkeztu eta gauegungo alkateek, Joxe Urrutiak, Francisco Jose Lakarrek, Alazne Sansiñenak eta Oihane Primek kargua uzteko borondatea erakutsi zuten. Errege egunean, berriz ere batzarrak egitekoak zituzten hautagaitzarik ba ote zegoen aztertze.



500 bat lagun bildu ziren abenduan zahar etxeari babesa adierazteko ekitaldian.

Zahar etxea kudeatzeko dauden aukerak aztertuko ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Udalak zahar etxea kudeatzeko dauden aukeren azterketa ekonomikoa egitea onartu du. Proposamena EH Bilduk eta Ezkerak eraman zuten abenduaren 24ko ezohiko osoko bilkurara eta bi alderdien aldeko zortzi botoak nahikoak izan ziren aitzinera egiteko. Geroa Baiko bi zinegotziek abstentziorat jo zuten eta Navarra Sumako hiruak aurka bozkatu zuten.

Udalak bere prentsa oharrean zehaztutakoaren harira, «zerbitzu publikoak modurik eraginkorrenean kudeatzeko go-goeta egiten» ari dira azken

urteetan. Horrela, «kirol instalazioak kudeatzeko Giltxaurdi enpresa publikoa sortu zuen eta, orain, garbiketarako Lixura enpresa publikoa sortzeko bidean da. Adinekoen egoitza ere zerbitzu publiko garrantzitsua izanik, kalitatea, arreta eredu, langileen baldintzak, bideragarritasun ekonomikoa... kontuan hartuko duen kudeaketa eredu publikoa» nahi dute.

Aldi berean, «zahar etxea berritzeko bulkaldiak segitzen» du: «Gobernuaren aurtengo aurrekontuetan zahar etxearen berritze-proiektua idazteko 200.000 euroko laguntza» onartuta dago.

ferreteria

Quevedo

TXERRI HILTZEAN ERABILTZEKO TRESNAK

Santiago 31 · ELIZONDO · Tel.: 948 580 234 · www.ferreteriaquevedo.com



Taupada egitasmoko parte-hartzaileak bertze hainbat gai lantzeko gogotsu daude. UTZITAKOIA

«Tailerrek saretzeko eta elkar zaintzeko aukera eman digute»

GARAZI SAROBE TAUPADA EGITASMOAN PARTE HARTU DUEN BAZTANDARRA

Emagin elkarteko kide baten laguntzaz, emakumezkoen ahalduntzea lantzeko gune bat eraiki eta biltzen hasi ziren joan den urtean. Taupada egitasmooaren barne, tailerrekin segituko dute aurtan

N. BAZTERRIKA | ELIZONDO

Taupadak elkartu zituen eta taupadak taupada gune feminista sortu eta tailerrak egin zituzten urritik urte bukaerara arte hainbat emakumezko Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Bederatzi saiotan, Baztango dozena bat lagunek 14 eta 25 urte bitarteko emakumezkoen errealitatea eta mikromatxismoari aurre egiteko estrategiak izan zituzten solasgai. Emagin elkarteko kide bat gidari dutela, urtarriletik aitzinera tailer horiek segida izanen dute. Orain arte formakuntzan parte hartu du eta urtarriletik aitzinera segitzeko gogotsu dago Garazi Sarobe elizondarra. Bertan landuta-

koaz, emakumeen egoeraz eta gisa honetako tailerren garrantziak aritu da ТIPI-ТIПAРЕKIN. **Emakumeen errealitateaz zer ikuspegi zenuten tailerren aitzinetik? Eta lanketa horren ondortik ikuspegia aldatu da?** Zenbait zapalkuntza identifikatuak genituen baina aunitzetan izen-abizenak jartzea falta zitzaigun. Tailerrak, bertzeak bertze, zapalkuntza horiek izendatzeko baliagarri izan zaizkigu. Gainera, bertan

«AURRERAPAUSSOAK EMAN DIREN ARREN AUNITZ DAGO BORROKATZEKO»

gure lekua defendatzen ikasi dugu eta gure iritziak argudiatzeko tresnak eskuratu ditugu. Horrez gain, feminismoak eskaintzen dizkigun ekarpenen inguruan hausnartu dugu, ahizpatasunaz, prostituzioaz, androzentrismoaz eta bertze hainbat kontuz aritu gara. Tailerretan hainbat gai potolo jorratu ditugu eta gehiago lantzen segituko dugu. **Zer motatako jarduerak egin dituzue tailerretan?**

«GURE BIZIPENAK PARTEKATU DITUGU ETA DEIGARRIAK IZAN DIRA»

Covid-19a dela eta arras mugatuta egon gara. Hala ere, saioak nahiko dinamikoak izan dira.

Nolakoa da zuen ustez emakumeen egoera gaur egun?

Mugimendu feministari esker, gizartean aurrerapauso handiak izan dira gure amaxien garaitik gaur egunera bitarte. Hala ere, oraindik aunitz dago borrokatzeko. Izan ere, geroz eta kontzientzia handiagoa hartu, orduan eta hutsune gehiago identifikatzen ditugu. **Zergatik dira beharrezkoak gisa horretako egitasmoak?**

Elkarren artean saretzeko, elkarrengandik ikasteko eta elkar zaintzeko aukera ematen dutelako. Emakumezkoen arteko elkartasuna beharrezkoa da, eta horretarako horrelako gune gehiago behar dira. Taldean, elkarrekin, diskriminazio egoerei aurre egiteko indar handiagoa dugulako elkartzea beharrezkoa da.

Zein izan da gustukoena izan duzuen saioa?

Indarkeria matxista, sexualitatea eta prostituzioa landu ditugun saioak arras interesgarriak izan dira. Hala ere, guztietan gozatu dugu.

Zer egin zaizue deigarrien?

Gure artean bizipenak parte-katu ditugunean ikusi ditugun egoera guztiak izan dira deigarriak.

Nola animatuko zenukete jendea halako saioetara?

Arras interesgarria dela erranen genieke. Nahiz eta hasieran motibazio guti izan, probatzeran animatu nahiko genituzke. Gure esperientzia arras-arras ona izan da, tailerretan etxean bezala sentitu gara, espazio segurua eta goxoa eraiki dugu eta nahi duena parte hartzera gonbidatuta dago.

Zer egin dezakegu gizarte feministago bat izateko?

Emakumeari subjektu politiko izaera eman eta borrokan segitu beharko genuke.

Nola ikusten duzue etorkizuna? Morea. Heldu denari aurre egiteko gogotsu eta indartsu gaude.

Bukatu dira zure buruko minak!

Zer lortuko du komunitateak zuek kontratatuz?

Bertzeak bertze, lasaitasuna, komunitate bateko afera guztiez arduratzen garelako. Zerbait hautsi bada edo arazoren bat baldin badago, komunitateko presidentek guri jakinarazi baino ez digu egin behar, eta gu arduratuko gara gainerakoaz. Zenbaitendako komunitatearen kudeaketaz arduratzea zama haundia da; batzuen kasuan adinagatik, bertze batzuetan denborarik ez dutelako, kanpoan bizi direlako... Batzuetan, barride batzuek lana egiten dutelako, komunitateak ongi funtzionatzen du, baina badira ahal den gutxiena eginez ardurak ondokoentzako uzten dituztenak. Ardura hori gure esku utziz gero, denak behar bezala funtzionatuko du.

Bertzetik, dena legearen barne egiteak lasaitasuna ematen du: deialdiak behar den denborarekin egitea, aktak bere epean bidaltzea...

Zalantzaren bat izanez gero, argitzeko prestatuak gaude, jabetza horizontalaren legea menperatzen dugulako.

Zein zerbitzu ematen dituzue?

Kontabilitateaz arduratzen gara: ordainagiriak igorri edo barrideen ordainketak kontrolatzen ditugu, urtean behin kontuak aurkezten ditugu, hurrengo urterako aurrekon-

tua egiten dugu... Barrideek informazio hori guztia nahi duenean eskura izanen du.

Bizilagunen artean sortzen ahal diren desberdintasun edo arazoan aitzinean, **bitartekari** lana egiten dugu eta **bileren deialdiak** egiten ditugu, eta horietako bakoitzean aktak jaso eta barrideei bidaltzeaz arduratzen gara.

Matxuraren bat izanez gero, **profesionalei deitzen** diegu, eta behar bada, aurrekontuak eskatzen ditugu.

Obraren bat egin behar bada, bizilagunek erabakitzen duten gremioei aurrekontuak eskatzen dizkiegu eta behin erabakita, **obraren jarraipena** egiten dugu.

Aseguruen kudeaketa eta bitartekaritza ere egiten dugu. Komunitatean gerta litezkeen ezbeharrez arduratzen gara. Era berean, aseguru agente garen aldetik, indarrean dauden polizak optimizatzen ditugu, prestazioak hobetuz eta aurrezteko bide emanez.

Administrazioekin egin beharreko **tramite guztiez** arduratzen gara: dirulaguntzak, Nafarroako Gobernua, udalak, mankomunitateak... Adibidez, berriki komunitateetan izandako antenen frekuentzia aldaketetan dirulaguntzaren eskaera egin dugu, ahalik eta agudoen kobratzeko.



Berankortasunaren kontrola ere egiten dugu, egoera horretan dauden bizilagunei, gutun arruntaren bidez edo gutun ziurtatuaren bidez, horren berri emanez. Beharrezkoa izanez gero, berankortasuna erreklamatzeko aparteko batzordea dei daiten.

Komunitatearekin zerikusia duten gai guztietan esperientzia handia duen abokatu talde baten laguntza dugu aholkularitza juridiko zerbitzua emateko.

Noiz hasi zineten komunitateak kudeatzen?

Orain dela hamar bat urte hasi ginen. Ustekabean izan zen, barride batzuk komunitatearen kudeaketaz arduratuko ote ginetekeen galdetu zigutenean. Hala hasi ginen eta pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiagorengana ailegatu gara. Gaur egun espezializatuak gara.

Zenbateko kostua dute zerbitzu horeik?

Ezin dugu prezio jakin bat zehaztu. Komunitate bakoitzak bere beharrak ditu eta haietara egokitzen gara: ez da berdina sei bizilagunen komunitate bat edo 24koa.

Konpromisorik gabe aurrekontua prestatuko dugu. Nahi izatera, bileretara joan gaitzake, eta informazioa eman eta zalantzak argitutakoan, barrideek erabakiko dute zer nahi duten.

Zein herritan ematen duzue zerbitzua?

Baztanen, Xaretan, Bertizaranan, Malekerran, Bortzirietan eta Leitzan.

Zuen zerbitzuak kontratatze-ko zalantza daudenei zer erranen zeniekete?

Gurekin harremanetan jartzeko. Elkar ezagutu eta beren beharrak ezagutu ondotik, aurrekontua egiten dugu, eta proba dezatela. Ez dira damutuko. Komunitateaz arduratzeko kezkarik izan gabe, dena legean barne dagoela eta denak behar den bezala funtzionatzen duela jakiteak zenbat balio du? Seguru gaude uste baino merkeago izanen dela.



www.mañonea.com



Baztan Ikastolaren gaur egungo eraikina kanpotik ikusita. UTZITAKO ARGAZKIA

«Urteak pasatu eta konturatu gabe etorri dira ikastolaren 50»

KARMENTXU ELIZEGI URRUTIA BAZTAN IKASTOLAKO KIDE

Elizondorra Baztan Ikastolako ikasle ohi, irakasle, guraso eta ikastetxearen 50. urteurreneko talde eragileko kide ere bada. Ikastola eta honen ibilbidea xeheki ezagutzen ditu

I.REKARTE | ELIZONDO

Elizondon sortu eta bizi izan da Karmentxu. Betidanik Baztan Ikastolan inplikaturik egon da, lehendabizi ikasle, ondoren irakasle eta azkenik guraso. Baztan Ikastolan irakasle gisa 12 urte daramatza lanean, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko irakaslea da. Honetaz gain, Baztan Ikastolaren 50. urteurreneko talde eragileko kidea da. Ikasturte hau urte garrantzitsua da ikastetxearentzat, izan ere, Baztan Ikastolak 50. urte beteko ditu bere ateak ireki eta Baztanen aurreneko euskara eta euskal kontzientzia pizten hasi zenetik. Ikastetxearen hasieraz, erronkez, ibilbideaz, ikasle eta ira-

kasleen aferaz aritu da TTPII-TTAPAREKIN.

Nola, noiz eta nondik sortu zen ikastola? Nork hasi zuen? Nor izan ziren lehen irakasle-ikasleak? 1970eko garai hartan herrietako eskoletan ez zen euskararen presentziarik. Horrek bultzatuta eta Elizondon euskara galtzear zegoela arduratuta zegoen guraso talde batek, beren seme-alabak euskara ikasi eta euskaraz bizitzeko

«EUSKAL KONTZIENTZIA PIZTU DU IKASTOLAK»

asmoarekin ikastola bat sortzeko ausardia izan zuten. Ordurako Iruñean ikastola bat martxan zegoen eta haiei zer pauso emanak zituzten galdegin ondoren, ikastola martxan paratu zuten. Elizondoko parrokiaren babesean, *Centro Cultural Santiago* izenpean, *Miserikordia* deitzen zen zahar egoitzan hasi zuten ikasturtea 27 umek Mari Carmen Goñi andereño zutela.

«TXARRENARI ONENA ATERATZEKO GAI IZAN DA IKASTOLA»

Ikastolaren sorrerak zer aldaketa ekarri zuen Baztanera?

Aldaketa handi eta nabarmena Baztanen euskaraz ikasteko aukera izan zen. Ikasle guti batzuk hasi ziren, baina poliki-poliki bertze herrietako haurrak etortzen hasi ziren: Arizkundik, Iruritatik, Narbarretetik eta bertze hainbat herrietatik etortzen ziren ikastolarak. Horrek garrantzi handia izan zuen bertze eskoletan euskararen erakusten hasteko. Ikastolaren metodologia ere desberdina zen. Alde batetik, mahairik gabe eta lurtean eserita ematen ziren klaseak. Material aldetik arunt eskas, papera, margoak eta txotxongilo batzuk ziren baziren baliabide bakarrak. Gainera, sortu zenetik Baztan Ikastolaren helburua bertako ohiturak indartu eta ezagutzera ematea izan da.

Zein behar asetzen ditu eta zein dira Baztan ikastolaren ekarpenak?

Gure hizkuntza eta kulturarekiko maitasuna belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta Baztango zein Euskal Herriko hainbat ohitura eta ekintza berpiztu edota bultzatzea dira ikastolaren ekarpen nagusiak. Hala nola; Olentzero, inauteriak, Orakunde, Santa Ageda, Korrika, Euskaraldia eta Euskararen Eguna. Ingurumenari ere begirunea diogu eta urtero-urtero zuhaitzak landatzen ditu. Ekintza hauen guztien bitartez, ikastolak herriko bizitzan parte hartu du betidanik, gizartearen parte-hartzailea izatea zein garrantzitsua den erakutsiz. Bertzalde, metodologia berriak sartu dira. Hezkuntzaren erronkak eguneroko afera dira, berau bizia baita eta aldaketa berrietara egokitu eta aitzin egin die ikastetxeak. Eraikinak berriro eta egokitu ditugu eta hezkuntzaren ikuspuntua berrantolatzeko apustua egin dugu; etengabe formatuz metodologia aktiboetan, *Skolaen* nahiz hezkuntza emozionalen. Ikastolan metodologia eta material propioa ditugu,

baita irakasle talde egonkorra ere. Bertzetik, Nafarroa Oinezko *Txikiak Handi* proiektua aipatu behar dugu. *Txikiak Handi* munduko hizkuntza gutxituen handitasuna aldarrikatzeko eta haien arteko zubiak eraikitzeke sortutako Nafarroa Oinezko proiektu iraunkorra da. Poloniar estatuan dauden kaxubiarrek hirugarren ikasturtea dute beraien zentroa sortu eta beraien hizkuntza, kultura eta hizkuntza eskaintzen. Eta zentro gehiago ireki dituzte. Baztan Ikastolak 2015ean Kaxubiarrerekin izandako harreman estua aipatzekoa da. Izan ere, kaxubiarrak beraien ikastola sortu dute gure ikastetxea eredu hartuta.

Zaila izan al da Baztan Ikastolaren 50. urtemugara ailegatzea?

Dudarik gabe hasmenta, eta batez ere, izandako borroka urteak zailak eta gogorrak izan ziren. Baina urteak pasatu dira eta konturatu gabe etorri dira. Hainbat egoitzatan ibiliak ziren hasierako ikasle eta irakasleak: Miserikordiako gelan, Elbeteko plazan eta frontoian, parkean, Elbeten elizak zuen apezaren etxean, gela ttipi batean eta Pilarren, bertzeak bertze. Ikastola handitu ahal-lakua eskasten hasi zen eta erabiltzen ziren eraikinak ttipi gelditu ziren. Udalarekin harremanak ez ziren errazak eta borroka izugarria hasi zen. Hau ere ezin dugu atzendu. Administrazioaren aldetik aurkakotasuna eta dirulaguntzen gabezia izan zuen ikastolak. Hasmentako urteetan ikastetxea legezatu gabea zenez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentutik eskola libururik ez ziren ailegatzen eta guraso batzuen artean ezinegona eta beldurra sortu zen. 1990eko hamarkadan Haur Hezkuntzako gela bateko modulua galdtu genuen, eta hortaz, laguntza ekonomikoa ere bai. Horretaz gain, matrikulazioek nabarmenki beheiti egin zuten eta urte batzuk gaizki pasatu genituen.



Karmen Elizegi Lehen Hezkuntzako tutorea da egun. UTZITAKOIA

Gainera, oraindik gazte ziren ikasle eta guraso batzuen agurrak, gogorrak, hunkigarriak, ahaztu gabeak ziren eta oraindik dira ikastolarentzat.

Momentu gogoangarriak?

Txarrenari onena ateratzen zaio momentu gogorretan, eta Baztan Ikastola horren adibide izan zen, eta da. Ekaitzaren osteko barea bezala, garai zailen ondotik, garai ederrak bizi izan genituen; ikastolarendako leku bat harrapatzea,

hau handitzen ikustea, erai-kinari kolorea eta zentzua ematen zieten geroz eta haur gehiago izatea, gurasoen bertiereko inplikazioa, gure arteko harremanak familia harremanak bihurtzeraino sendotak ikustea, ikasturte bukarako egonaldiak, umeen abesti, bertso eta antzerki emanaldiak, eguneroko egin-beharrak joera ona zuela ikustea... Hau guztia izugarria izan da. Gero, 1985ean, *Pilarreko*

egoitza erdietsi zenekoa ezin atzendu. Borroka gogorraren ondotik, azkenean ikastetxe dezentean kokatu ginen. Ze prozesioa antolatu genuen Parketik Pilarrera, txistuaz lagunduta. Eraikuntza aitzinean guraso baten eta irakasle baten hitzak eta ondotik dantzatutako zortziko erraldoia. Hunkigarria. Lehendabiziko Nafarroa Oinez 1982an antolatu genuen. Lan handia suposatu zuen, baina ilusioa handiarekin bizi izan genuen. Garai hartan lau kamiseta eta txapelak saltzen ziren eta han ibiltzen ginen herri batetik bertera, kotxea gaineraino kargatuta bestarik besta hauek saltzen. Eta eguna bera ikaragarria izan zen, jendetza izugarria bildu zen eta jendearen babesa jaso genuen. 1993an Eslovenian *Hizkuntza Gutxituen Biltzarrean* parte hartu genuen. Esperientzia arras polita eta aberasgarria izan zen. Bigarren Nafarroa Oinez, 2015ean ospatu genuen. Gurasoen inplikazioa, eta Baztan mailan eta eskualde mailan herriak eman zuen erantzuna. Ahaztezina izan da. Gogoan ditut urte hauetako guztieta-ko auzolanak: Parkeko ikastola berritu zenekoa, Pilarreko ikastolaren estalpea paratu eta ikasgelen berritza zenekoa edo igerilekua soinketa gela bihurtu eta komunak berritu zireneko auzolanak. Hala ere, dena ez da lana izan elkarrekin sagardotegiko irteerak eta bazkariak ere egin izan ditugu tartean.

Hau guztia egiteko ikastolako gurasoen inplikazioa, ilusioa eta lankidetzaz pimarraztekoak dira. Ikastolan proiektu bat aitzinerat eramateko, auzolana eta lankidetzaren garrantzia agerikoak dira. Eta akitzeko, erran nahi nuke xarmangarriak direla eta gogoan atxikitzekeoak guraso, irakasle eta ikasle arteko harremanak. Ezaugarri horiek guztiek deskribatzen dute Baztan Ikastolaren familia. Anitz urtez Baztan Ikastola!

Motzean

Non sentitu zara erosoan: ikasle, irakasle edo guraso rolean?

Bizitzaren fase bakoitzak bere xarma du eta denetan zerbait aberasgarria ikasi dut. Lehenik ikasle, ondotik irakasle eta azkenik ama.

Hizkuntza bat?

Euskara, noski! Zein bertzelaz?

Zein dira ikastolaren ekarpen nagusiak?

Gure hizkuntza eta kulturarekiko maitasuna belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta Baztan-go hainbat ohitura eta ekintza berpiztu edota bultzatzea.

Baztanen euskara barra-barra?

Doike! Ikastolako kideak nahiz Baztango euskaltzaleak bizi garen bitartean, euskara Baztango karriketant entzuten segituko da.



Juan Angel Perotxena eta Izaskun Gutierrez, aurkezpenan.

'Erraldoiaren istorioa' liburua aurkeztu dute Gutierrezek eta Perotxenak

TTIPI-TTAPA

Izaskun Gutierrez Arruabarena eta Juan Angel Perotxena elizondarrek *Erraldoiaren istorioa* ipuin-liburua eman dute argitara eta urtarrilaren 2an egin zuten aurkezpena Elizondoko plazan. Saltzen, sinatzen eta ipuina kontatzen aritu ziren.

Istoria laburra da *Erraldoiaren istorioa*, lo egiteko eta aldi berean, oinarri sozialekoa, bertzeak bertze, berdintasuna,



Izaskun Gutierrez ipuin kontari.

esker ona, lankidetzeta eta laguntza bezalako balioak transmititzen dituena.



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITANE MARITORENA

Urtetxak izan dituzte Anizen

Egoerak eskatzen dituen arauak errespetatuz, aurten ere urtetxak biltzen ibili dira etxez etxe Anizko haurrak. Etxeko larrainean *Urte berri-berri, zer dakarrazu berri* kantatu ondotik, etxeokandrea edo etxeok gizonak urtetxak bota eta haurrek, gerruntzetik lotua atxikitzen duten mandarra urtetxex bete dute.



Javi eta Anka magia ikuskizun ederra eman zuten. ARANTXA ETA IRAIA

Urtea akitzeko magia eta musika Dantxarinean

Javi eta Anka magia ikuskizuna eskaini zuten Landibar eta Axular bentetan; musika, Felixen, Pacon eta Pantxon izan zen

ARANTXA ETA IRAIA

Eguberrietako izpiritua gal ez dadin, Dantxarineko merkatariek elkartek bi egun berezi antolatu zituen, abenduaren 23a eta 30a. Bi egun horietan goizean eta arratsaldean magia ikuskizuna izan zen Landibar eta Axular bentetan, Javi eta Ankaren eskutik.

Musika animazioa

Bertzalde, eguerdietan Felix, Paco eta Pantxo bentetan musika animazioa izan zen. Iparraldeko lagunak deskofinamenduak Dantxarineak berriz ere bizi pixka bat izatea ekarri zuen eta animazio hauetara ere jende andana bildu zen, segurtasun neurriak betez.



ARANTXA ETA IRAIA

Herriko traktoreen azterketa

Urtea finitzean egiten den bezala, aurten ere herriko traktore eta erremolkeen azterketa teknikoak, ITVa, egin zen herrian abenduaren 9an eta 10an. Bi egun horietan 09:00etatik 14:00etarat izan ziren errebisio guztiak pasatzen. Herriko plaza nekazarien lan tresnez bete zen bertze urte batez.

Duela 37 urte etorri zen olentzero lehen aldiz herrira

Aurten zuhurtziarekin ibiltzeko gomendioa zuen eta plazan ezarri zuten panpinarekin konformatu behar izan genuen

MARIFA ETA KORO

Aurten bete dira 37 urte olentzero gure karrketan ezagutu genuen lehenbiziko alditik. Herriko apeza zen Don Jabier Sanzberrok Lesakan ezagutua zuen ohitura hau, eta berak proposaturik, garai haietako neska-muttiko koxkorren artean olentzero xume bat presatu zuten. Don Jabierrek erakutsi zizkien kantak, lagundu zien angailak egiten, eta bizkarrean harturik, olentzerok bere lehenbiziko bisitaldia egin zuen Zugarramurdirat. Gaur egun olentzeroren pan-

pina ez da angailetan ibiltzen, plazan bere etxolan jarrita trankil ederrean egoten baita, baina gabon gauean olentzero menditik etortzen zaigu, eta orga apaindu batean karririk kurrutzen ditu. Gero frontonerat gan eta han haurrei muxu eta goxoki batzuk eman ondotik, gau hortako bere lanera partitzen da.

Aurten olentzerok zuhurtziarekin ibiltzeko gomendioa zuen, eta ez zaigu karrikara etorri. Beraz, plazan zegoen panpinarekin konformatu behar izan dugu.



1983an atera zuten lehen aldiz Olentzero Zugarramurdiko karriketana. UTZITAKOIA



Olentzeroren panpina, plazan, azken Eguberrietan. UTZITAKOIA

Leizeak eta museoak asteburuetan bakarrik zabalik

Osasun kontuak ez badira aitzinetik hobetzen, leizeko eta Sorginen Museoako atearak bakarrik irekiko dituzte. Negu partean eta Eguberriak pasatu arte hartu zen erabakia, baina, oraingoz, otsail hondarrera arte bere horretan segituko du.

Olentzerori ezin izan zaio urteroko ongiatorrik egin Urdazubín ere

ARANTXA ETA IRAIA

Eguberriak pasatu dira eta Urdazubín ezin izan da urteroko Olentzeroren ongiatorria egin. Urte berezi honetan ezin izan zuten herriko haurrek Olentzerorekin herriko plazan bildu eta berarekin solastatu. Urteroko Dantxaríneko buelta ere ezin izan zuten burutu Eguberrietako pertsonaia honek. Halere, herriko ttipienek Landa haurtzaindegiareskutik Olentzero herriko karrikatik pasatzen ikusi zuten.

Dena den, nahiz eta Olentzerorekin mintzatzeko aukerik ez izan, haurrek opari andana hartu zuten haien etxetan abenduaren 25ean. Espero dezagun aurten Olentzero beti bezala herriko plazan ikustea haurrekin!

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN
31780 Bera

BEHOBIA
20305 Irun

LUZAIDE
31660 Luzaide

DANTXARINEA
31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800



Olentzerok eta Mari Domingik ikastolako haurrak bisitatu zituzten.

Eguberrietako ospakizunak bereziak izan dira

Aurten ez zuten Olentzero eta Mari Domingiren etorrera usaian bezala ospatu. Hala ere, seinalea egin nahi izan zuten

Egun berezi hauetako seinale gisa, herriko plazan izai eder bat eta Olentzero eta Mari Domingiren panpinak paratu zituzten.

Ikastolan ustekabeko bisita

Urtea ongi bukatzeko, Olentzerok eta Mari Domingik ikastolako haurrei bisita egin zie-

ten. Ikasleek Eguberri onak opa zizkieten eta bertso, asmakizun eta marrazkiak eskaini zizkieten. Bisita aprobetxatuz, haurrek beraien eskutitzak eman zizkieten. Eguna borobiltzeko, Olhain Ikastolako gurasoek matahami goxoak prestatu zituzten denen artean partekatzeko.



UTZITAKOA

Herriko ostalaritza kexu

Sei hilabetez hetsiak izan dituzten jatetxeek eta ostalduak, eta ez dakite noiz edekiko dituzten berriz. Frantziako lehen ministroak errandakoaren arabera ezin da ziurtzat eman heldu den urtarri-laren 20an ostalaritza zabaltzeko egoeran izanen denik. Erabaki honen aitzinean herriko ostalariek beraien aserrea adierazi dute.



Mixel Urbistondok herrian hainbat ekarpen egin zituen. ARTXIBOKOA

Herrian agurra egin zioten Mixel Urbistondo, 'Kaikuri' abenduaren 7an

GANEX

Urbistondo familia Urruñatik Sarako *Hiti* baserrirat joan zen bizitzera. Hiru seme izan zituen bikoteak: Xan, Mixel eta Fermín. Azken honek hartu zuen burasoen segida baserrian eta, Xan eta Mixel anaiek hargintza hartu zuten lanbide, sortetxea utzirik. Herrian hainbat lan egin zituzten: Sarako elizako berritze lanetan barneko al-darearen harri pikatuak anaiek egin zituzten, baita Kanboko Xalbador ikastolako zenbait lan ere. Xan anaia zendu zuenean, Mixelek jarraitu zuen hargintza lanetan Xan semearekin eta hilarri berrietan oroitari ikusgarriak egin zituzten elkarrekin.

Hainbat trebezia

Bertze hainbat lanetan ere aritu zen Mixel. Erraterako, 2011n Miguel Barandiaranen liburua euskarara itzuli zuen. Urte hartan, auzapezak, Battite Labordek, hainbat egile laudatu zituen: Erramun Bochoc, Xabier Elozegi, eta bi saratar: Pantxo Michelena eta Mixel Urbistondo, *Kaiku*.

Urbistondokanitz maitezuen euskal kulturarekin zerikusia zuten ekitaldietara joatea; bertso eta kantu afarietara maiz joaten zen. Baina, batez ere, pilota zuen maite. Sarako herrian ere ekarpen ugari egin zituen. Herriko Kontseiluan hamabi urtez aritu zen eta

auzo nahiz herriko seinaleak euskaratzen lan ederra egin zuen.

Urte hauetan guztietan *Kaikuene* etxean bizi izan da bere emazte Maritxurekin, Xan semearekin eta Christine alabarekin. Hain zuzen ere, etxe honi zor dio bere izengoitia.

Herrian omenaldia

Abenduaren 7an goizean ehortzi zuten 70 urterekin. Herri-tarrek, omenaldi ederra egin zioten elizan. Battite Laborde Sarako auzapezak ere hitz batzuk eskaini nahi izan zizkion: «egun zurekin liburu bat hetsi da *Kaiku*, edozein lanetan laguntza ekartzeko hor zinen izan eskuz edo buruz, zizelkari ezin hobea. Euskal Herriko zazpi probintzietan ongi ezagutua, hamabi urtez herria zerbitzatu, axuantan kontseiluan desafio guziak altxatuz, etorri da Mixel berresteko tenorea, ez ahantzi eremu berri horretan sartzean zure lasaitasuna kapelua buruan atxikitzea. Bide on eta ikusi arte!». Gorpua Pettan Errandonea, Stéphane Barneix, Mixel Elizalde eta Battite Laborde Herriko Kontseiluko kideek eraman zuten.

TTIPI-TTAPAKO berriemai-le den Ganexek ere «ene partetik, dolumin beroenak familia guziari. Ez adiorik *Kaiku*, ikusi arte!» hitzak eskaini nahi izan dizkio.



Ana Ollo kontseilaria eta Nafarroako Gobernuko bertze ordezkariak, bortz ikastetxeetako zuzendariekin. UTZITAKOIA

Bortz ikastetxetan 'Memoria duten Eskolak' programa

Berako Toki Ona eta Labiaga, Elizondoko Lanbide Eskola, Lekarozko institutua eta Doneztebeko Mendaur sartu dira

TTIPI-TTAPA

Berako Toki Ona institutua eta Labiaga Ikastola, Elizondoko Elizondo Lanbide Eskola, Lekarozko Lekaroz BHI eta Doneztebe Mendaur DBHI ikastetxeak *Memoria duten Eskolak* programaren parte dira irakasleen prestakuntza sustatzeko eta ikasleen artean memoria belaunaldi belaunaldi transmititzeko jarduerak egiteko.

Nafarroako Oroimenaren Institutuak 2016. urtean abian jarri duen programaren barruan, Baztan-Bidasoa eskualdean hainbat proiektu garatu dituzte azken urteotan, erbestean eta «muga gotortua» deritzonaren oroimena berreskuratzeko, inguruko bunkerrak berreskuratuz.

Ikastetxe horiei esker, Erratzuko bunkerrekin zerikusia duten proiektuetan eta eskualdeko erbestertuen inguruan lan egingen da, Elizondo Lanbide Eskolaren eta Lekaroz Institutuaren kasuan. Berako Toki Ona *BHIk Bidasoako departatuen erakusketa* progra-



'Babesaren muga' eskultura.

ma garatuko du, Gerra Zibilaren ondotik eta Bigarren Mundu Gerran Frantzian eta Alemanian kontzentrazio-eremuetara erbestertu zituzten pertsonen inguruan.

Bertzalde, Berako Labiaga Ikastolak memoria historikoa belaunaldi gazteenengana hurbildu nahi du, Lehen Hezkuntzako ikasleekin eta DBHIko lehen zikloarekin lan eginez. Doneztebeko Mendaur DBHIak laster bat egingen du programarekin. Emakumearengana errepresioaz ariko dira, eta Juana Josefa Goñi Sagardiaren oroimenean jarriko du arreta. Donamarian, Gazteluko leizera botatako zazpi seme-alabetako seirekin batera

hil zuten Juana Josefa Goñi Sagardia.

Ana Ollo, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetarako kontseilaria bortz ikastetxeetako zuzendariekin bildu zen abenduaren 28an Bertizko jauregian: Igor Arruabarrena (Toki Ona), Mikel Iriarte Antxorena (Elizondo Lanbide Eskola), Iñaki Beltran Gallego (Lekaroz Institutua), Maite Elgorriaga Errandonea (Labiaga) eta Bihotz Unanua (Mendaur). Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia eta Nafarroako Memoriaren Institutuko zuzendaria ere ekitaldian izan ziren.

'Babesaren muga' eskultura egin du Mikel Iriartek Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoaldeko bortz ikastetxeetako zuzendarietzekin elkartu ondotik, Ollo kontseilaria, Joseba Otondo Baztango alkatearekin batera, Babesaren muga eskultura bisitatu zuen Elizondon. Eskultura hori indarkeria frankistatik ihesi erbesteko bidea hartu zuten pertsonen omenez paratu dute, baita pertsona horiek babesteko sortu diren elkartasun-sareen oroimenez ere.

Eskulturak, bere konposizioarekin erbestertutako pertsona bat iradokitzen du, bere jatorritik kanpoko lurralde batean bizi dena. Mikel Iriarte eskultorearen lana da, eta udaberrian inauguratzea aurreikusi dute, pandemiak uzten badu, Nafarroatik erbestertutako pertsonen eta haien familiei omenaldia eta errepresioa eginez.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatu



Dibortzioak, herentziak,
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

LARRALDEA eta LINDDURRENBORDA Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera URTARRILAK 23

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

Mendialdeko eskuz banakako II. pilota txapelketa erabakia

Abenduko azken aste hondarrean jokatu zituzten finalak Goizuetan, Leitzan eta Lekunberrin

TTIPI-TTAPA

Goizuetako Umore Onak, Leitzako Aurrerak eta Larraun Pilota Elkarrekin antolatutako Mendialdeko buruz buruko bigarren pilota txapelketako kategoriaz guztietako finalak jokatu zituzten abenduko azken asteburuan Goizuetan, Leitzan eta Lekunberrin. Guztira, hamaika kategorietako txapelak erabaki ziren.

Goizuetan

Bigarren mailako benjaminak
J. Larin (Umora Ona), 18 – E. Lekuona (Larraun), 5.

Bigarren mailako alebinak
A. Salaberria (Umora Ona), 14 – G. Zabaleta (Aurrera), 18.

Lehen mailako kadeteak
E. Elizegi (Umora Ona), 18 – J. Sotil (Larraun), 15.

Leitzan

Hirugarren mailako alebinak
B. Legarra (Larraun), 17 – I. Sotil (Araxes), 18.

Lehen mailako alebinak

J. Baleztena (Aurrera), 18 – E. Bidart (Aurrera), 10.

Lehen mailako infantilak
X. Telletxea (Aurrera), 18 – I. Dorronsoro (Aurrera), 17.

Bigarren mailako kadeteak
J. Sagastibeltza (Aurrera), 18 – A. Ijurko (Larraun), 16.

Lekunberrin

Lehen mailako benjaminak
A. Goikoetxea (Larraun), 18 – E. Jaka (Larraun), 7.

3. mailako infantilak
E. Larreta (Larraun), 18 – J. Sotil (Araxes), 10.

Bigarren mailako infantilak
X. Jauregi (Larraun), 10 – M. Goikoetxea (Larraun), 18.

Lehen mailako jubenilak
A. Goldarazena (Larraun), 18 – E. Goikoetxea (Aurrera), 12.

Finalen ondotik sariak banatu zituzten. Leitzan Abel Barriola pilotari profesional ohia izan zen eta Goizuetan Aitor Aizkorbe pilotaria.



Goizuetako finalistak sariak jaso ondotik. UTZITAKO ARGAZKIA



Leitzako finalistak Abel Barriola herriko pilotari profesional ohiarekin. UTZITAKO ARGAZKIA



Lekunberriko finaletan aritu ziren pilotariak. JUAN ANTONIO

Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Goizuetan, Leitzan eta Larraungo elkarrekin

TTIPI-TTAPA

Leitzako Aurrera elkarrekin, Goizuetako Umora Ona kirol elkarrekin eta Larraungo pilota elkarrekin lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten abenduarren 26an, «gure eskualdean pilota sustatzeko eta babes-teko helburuarekin, elkarrekin beraien gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak ezarriz». Mendialdeko elkarrekin elkarlaneari arituko dira, «txapelketak antolatuz, entre-

namendu trukaketak eginez, kanpoko txapelketetarako gure pilotarien beharren arabera bikoteak osatuz...». Elkarrekin helburua norberaren herriko eskolak indartzea eta horretarako ekimenak burutzea izanen da eta elkarrekin baten kalterako izanen den ekimenik ez da egingen. Hortaz, ekimen guztiak «elkarrekin adostasunarekin egingen dira, hauek gainontzeko elkarrekin eragina baldin badute».



Goizuetan, Leitzan eta Larraungo pilota elkarrekin elkarrekin elkarrekin. UTZITAKO ARGAZKIA



Arraioz eta Iruritako pilotariak abenduaren 24ko finalaren ondotik. UTZITAKOIA

Arraioz nagusitu zaio Iruritari promozioko laxoa txapelketan

Abenduaren 24an Iruritako plazan jokaturako finalean 8-9 irabazi zuten arraioztarrek, 8-5 galtzen joan ondotik

TTIPI-TTAPA

Laxoa Elkartek lehen aldiz antolatutako promozio txapelketako finala jokatu zuten abenduaren 24an Iruritako plazan. Irurita eta Arraioz aritu ziren nor baino nor gehiago eta lehia estu eta ikusgarri baten ondotik, arraioztarrak nagusitu ziren, 8-9. Kontuan

hartu behar da Irurita 8-5 irabazten izan zela.

Arraiozko talde txapeladun Xabi Bengoetxea, Mikel Mindegia, Aritz Alunda eta Migel Maritorea aritu ziren eta Iruritan, Gorka Urtasun betearnoarekin batera, Jon Sagaseta, Imanol Zoco eta Egoi Iturregi gazteak. Izan ere, Tiburtzio

Arraztoak aipatu digunez, «txapelketa honetan helburua gazteak taldetan sartzea zen, jokatzeko eta heldu den urteko txapelketa nagusirako pausoa ematea». Alde horretatik, helburua bete dela uste du Arraztoak, eta «bizpahiru talde apuntatuko dira, txapelketa jokatzeko bada, noski». Promozio txapelketa hau irailean abiatu zuten, herriz herri jokaturako kanporaketekin. Abenduaren 20an jokatu zituzten finalerdiak. Arraioz 7-2 irabazi zion Donezteberri eta Irurita 7-1 gailendu zitzaion Oizi. Gabon eguneko finalerekin, ezohiko urteari akabaila eman dio Laxoa Elkartek. Pandemia eta guzti, «hiru txapelketa eta bertze hainbat ekintza» gauzatu ahal izan dituztela azpimarratu dute.

Laxoa eskola eta panelak

Haurrendako laxoa eskolak urrian abiatu zituzten. 25 gazte hasi ziren eta Donezteben (astelehenetan) eta Iruritan (ortzegunetan) ari dira. Bertze aldetik, abenduaren 26an laxoari buruzko panel handi batzuk paratu zituzten Irurita, Arraioz eta Oizko plazetan, Donezteben duela pare bat urte paratu zutena bezalakoak.

Sei hirukoterekin abiatu da paxaka txapelketa Iruritako Aranabian

TTIPI-TTAPA

Sei hirukotek emana dute ize-na ilbeltzeko lehen asteburuan abiatu den paxaka txapelketan. Beti bezala Iruritako Aranabia pilotalekuan jokaturako dituzte Laxoa Elkartek antolatutako txapelketaren partida guztiak. Oiztik eta Doneztebetik hirukote bana plazaratu dute eta Baztango pilotariak nahasiak izanen dituzte bertze lau taldeek:

1. Gorka Urtasun (Irurita) - Egoitz Prim (Irurita) - Juan M. Maia (Elizondo).
2. Oskar Urrutia (Irurita) - Aritz Alunda (Arraioz) - Mikel Sagaseta (Irurita).
3. Xabi Barberena - Guillermo Etxenike - Miguel A. Iñarra (Irurita).
4. Manu Irigoien (Erratzu) - Mikel Mindegia (Arraioz) - Kaiet Itoitz (Erratzu).
5. Ioritz Zelaieta - Laurendi Zelaieta - Iker Bereau (Oiz).
6. Jon Apeztegia - Ramontxo Etxebeste - Mikel Telletxea (Doneztebe).



UTZITAKOIA

Beti Gaztek bi txapel urtea borobiltzeko

Euskal Herriko 4x4 txapelketako azken bi txapelak lortu zituen Beti Gaztek abenduaren 19an Getxon (Bizkaia). Mutilek 300 kiloko kategorian tiraldi guztiak irabazi zituzten eta neskek bertze horrenbertze egin zuten 240 kilokoan. Mutilek 320 kilokoa ere irabazi zuten aste batzuk lehenago.



ERREMONTE FUNDAZIOA

Azpiroz ezusteko txapeladun Lodosan

Xabier Azpirozek ezustea eman zuen abenduaren 27an Lodosan eta Eguberrietako XV. buruz buruko erremonter txapelketako hiruko finalean nagusitu zitzaion Xanti Uterga doneztebarrari (20-16) eta Ion Etxeberria azpeitiarrari (20-16). Utergak 20-12 irabazi zion Ioni, baina alferrik.



UTZITAKOIA

ARIZKUN **Baztan Kantuz**

12:00etan plazatik abiatuta.
Arizkunen, urtarrilaren 24an, 12:00etan.

IKUSIKZUNAK

IRURITA

'Irabazi' antzezlana

Jon Plazaola protagonista duen lana.

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, ilbeltzaren 17an, 19:00etan. Gonbidapenak 18:30etik aitzinera eskuragarri.

BERA

'Esnatu naiz' ikuskizuna

Udalak eta Kultura Batzordeak Nafarroako Antzoki Sarearen laguntzaz antolatuta.

Kultur etxean, ilbeltzaren 23an, 19:00etan. Sarrera: 5 euro.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

'Aniz, 11 etxe, 11 labe, 22 zetabe, bat bertzearen behartu gabe' liburu aurkezpena

Arizkunenean, ilbeltzaren 29an, 19:00etan. Gonbidapenak: 18:30etik aitzinera.

BERA

'Nobiliario de Bortziriak' liburu aurkezpena

Iñaki Garrido Yerobi eta Carlos Rilova Jericóren eskutik.

Kultur etxean, ilbeltzaren 14an, 18:00etan.

KONTZERTUAK

ARIZKUN

Baztan Kantuz

Plazatik abiatuta, urtarrilaren 24an, 12:00etan.

BERA

Haizearen oihartzunak

Organo eta oboerako musika emanaldia Kultura Batzordearen eskutik.

San Esteban elizan, ilbeltzaren 16an, 19:00etan.

LESAKA

Trikidantz taldearen kontzertua

San Anton Egunari keinu.
Harriondoan, ilbeltzaren 17an, 18:00etan. Sarrera: 3 euro.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Klaustrofilia erakusketa

Xehetasunak: www.centrohuarte.es webgunean.

Arizkunenean, ilbeltzaren 19tik otsailaren 14ra, astelehenetik larunbatera.

IKASTAROAK

ARESO

Haurrentzako psikomotrizitate ikastaroa

Urtarriletik maiatzera, astearteetan, 15:30etik 16:30era. Izen-ematea: abenduaren 25era arte, 649 50 23 10 telefonoan.

ELIZONDO

Kantu herrikoiak

Kalakan taldeko Thierry Biscaryren eskutik.
Arizkunenean, urtarrilaren 13tik martxoaren 17ra, asteazkenetan, 18:30etik

20:30era.

ARIZKUN

Kirikoketa eta txalaparta ikastaroak

Gamioxarrean, astearte eta ortzegunetan 16:00etatik goiti. Iraupena: 12 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

DONEZTEBE

Ekimen antolakuntza ikastaroa

Nafar Lansareren eskutik.
Urtarrilaren 26tik otsailaren 11ra. Argibideak: 848 42 18 01 telefonoan.

BAZTAN

Mutildantza erakusleendako ikastaroa

Ortziraleetan 19:00etan eta larunbatetan 11:00etan. Iraupena: 20 ordu. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

Mutildantza ikastaroa

Ortzegunetan, 19:00etan. Informazio gehiago: 676 20 44 30.

Nire aukera

«Musikaz gozatu nahi dugu, ematen dizkiguten aukerak aprobetxatuz»

MAIALEN JAURENA ETXART URDAZUBIKO MUSIKARIA



Kirola eta musika zaletasun dituen Urdazubiko gaztea da Maialen Jaurena Etxart (2001). Ikasketek uzten dioten denbora bi arlo horietan ematen du: «klasetik atera, telesail bat ikusi eta musikari tartetxo bat eskaini eta bizikletan buelta bat ematen dut normalean». Azkenaldian, ordea, «belauneko lesio batengatik» egunerokoa aldatu behar izan du eta «kirolari ematen nion tarte txakurrarekin egoteko eta gitarra jotzeko» baliatzen du.

Etxean ikasia

Jo eta konposatu, konposatu eta jo ibiltzen da urdazubiarrak. Eskolan, musika irakasgai egin beharreko lan batek piztu zion sorkuntzarako txirrinta eta orduan hasi zen «konposizioan interesa-

tzen, gitarra ikasten eta musika bertze modu batean ulertzen».

Etxea izan da bere musika eskola; belarriak, begiak, eskuak eta zintzurra lanabesak. Izan ere, «belarriz ikasi dut dakidana, kontzertuetan jendeak nola jotzen duen ikusiz, bideoetatik... Partiturarik gabe, sormena landu dudun arren, solfeorik ez ikasi izanaren pena dut, musika bertze modu batean ulertzea ez legoke gaizki». Orduetik, ikasten eta lantzen, dabil eta ahizparen trikitixa notekin

«EUSKAL POP ETA FOLK TALDEEN BERTSIOAK EGITEN DITUGU»

batera, bere gitarra doinuek girotzen dute etxea.

Laguntasunak eta musikak elkartuak

Etxean hasitakoari etxetik kanpo eman dio segida Jaurenak. Izan ere, Joanes Altxu, Kattalin Arizmendi eta Irati Elizalde baztandarrekin batera, taldetxo bat sortu du. Egungo taldekideak lehenetik lagunak zituen: «Kattalin eta Irati Baztan Futbol Taldetik eta Joanes institututik» eta laguntasunaz harago, musika-zaletasunak elkartzen zituen: «elkartzen ginen ia guztietan gitarra batekin egiten genuen. Kattalinekin biolina jotzen zuela jakin nuen eta elkarrekin jo behar genuela aipatu nion. Gelditzen hasi ginen, Irati kaxarekin animatu zen eta Joanes entsegu batera baxuarekin etorri zen». Bakoitzak berea emanez eta elkarrena adituz sortu zuten taldea.

Sormenari ateak irekiz

Kulturzale eta musikariendako, Covid-19a tarteko, garai zailean eman dituzte lehenbiziko pausoak eta, urdazubiarrak kontatu digunez, «kontzerturen bat egiteko aukera galdu dugu, harremanean ere aunitz eragin du eta hasieran entseguak egiteko ez da erraza izan». Orain, berriz, «astean behin» elkartzen saiatzen dira: «ikasketak direla eta, ez da erraza izaten, asteburuetan saiatzen gara, baina beti ez da posible izaten».

Trabak gaudituz, aitzinera egiteko modua bilatu dute. «Euskal pop eta folk taldeen bertsioak» egiten eman zituzten lehenbiziko pausoak.

«MUSIKA ADITU BAINO NAHIAGO DUT JO ETA KANTATU»

Horrez gain, «orain arte bakoi-tza bere kabuz aritu da kantak sortzen eta orain elkarrekin forma ematen ari gara». Momentuz, bi kanta sortu dituzte baina «denborarekin gehiago izanen dira». Helburu argirik gabe eta aitzinera gehiegi begiratu gabe, «musikaz gozaten» segitu nahi dute: «elkartzen garenean gustatzen zaizkigun kantak jo, proposamenak egin eta nonbait jotzeko aukera aprobetxatuko dugu».

Jendaurrera salto

Badute egindakoa erakusteko gogoia eta, dagoeneko, jendaurrera kontzertu batzuetan izan dute aukerarik: «abuztu eta urriaren Elizondoko Arizkunenean izan ziren lehenbiziko emanaldiak». Abenduan herrian bertan erakutsi zuen bere trebezia musikari gazteak: «herritarren aitzinean jotzea berezia izan zen». Orain arteko esperientziak «arras onak» izan dira, «gustuko duzun zerbait landu eta sentitzen duzuna partekatzea beti polita delako». Euren burua plazaratu dute eta plazaz plazaz segitzea gogotsu daude: «eskaintzen diguten edozein tokitara joateko prest gaude».

Aditu eta jo

Telefonoak jo artean, dauden kontzertu aukera txikiez gozatu nahi du: «denok gaude musika jotzeko eta aditzeko gogoz». Gauez ezin bada egunez, eta taldean ez bada txakurrarekin, urdazubiarrak badu proposamenik: «aurikularrak jantzita Urdazubiko Azkar mendira joan daiteke». Eta aditu ondotik, jotzeko momentua ailegaten da: «musika joz eta kantatuz gehiago sentitzen dut. Aditu ez dudun kantaren bat aditzean, nola joko eta kantatuko dudun pentsatzen dut eta gitarra hartu eta halaxe egiten dut».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LESAKA. 5 logelako etxebizitza salgai. 3 komun, sukalde handia eta tximiniarekin. Txoko, garaje eta lorategia handia. Eskaintzak aditzeko prest. Argibide gehiagorako eta



konpromisorik gabe ikusteko deitu. ☎609 47 72 77.

BERA. Herriko Etxeko Plazan etxea salgai. ☎616 24 35 30.

EROSI

Borda bat erosi nahi dute, berdin da non eta zein egoeratan dagoen. ☎693 69 49 76.

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Pertsona batentzako logela bat errentan emateko. Erretzaila ez dena.. ☎678 85 50 56.

BERA. Legia karrikan 100 m²ko pisua errentan emateko, igogailuarekin eta mobleztatua. ☎653 02 13 20 / 685 76 44 00.

ELIZONDO. Lanbide eskolatik 100 metrotara etxebizitza errentan emateko. Altzariz hornitua eta eraberitua. Bi logela, gela, sukaldea eta bainugela. Gela guztiak kanpoaldera begira. Balkoi bat. Prezioa 520 eurokoa da, ez ordaintzeagatik aseguru barne. WhatsApep erantzuten dugu. ☎644 42 53 36.

ERRENTAN HARTZEKO

LARRAUNen bikote bat etxe ttiki baten bila. Haurrik eta animaliarik ez dute. ☎674 87 02 73.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. 150 m²ko pabiloia salgai. 130.000 eurotan. ☎648 26 56 63.

LANA

ESKARIAK

Orduka **garbiketa** lanak egiteko edo **adinekoak** zaintzeko esperientzia duen neska lan bila. ☎674 87 02 73.

Mutil bat **edozein lanetan** aritzeko prest. Klase guztietako etxetresnak konpontzen esperientzia duena. ☎697 70 48 98 / 674 87 02 73.

Tornuekin aritutako eta soldaduraren inguruko jakintza duen 39 urteko gizona **lan bila**. ☎601 00 43 06.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

GOIZUETA inguruan emakumea lan bila. Orduka ariko litzateke. Adinekoekin eta etxeak garbitzen esperientzia duena. ☎646 93 64 92.

Baztanera bizitzera etorri den neska euskalduna edozein arlotan lan egiteko prest: garbitzaile, zerbitzari, zaintzaile, kutzazain, saltzaile... Esperientziaduna dendari, garbitzaile eta ume-zain. ☎646 50 18 07.

ESKAINTZAK

Oninart enpresaren **komunikazio alorrean** lan egiteko lagun bat behar dute. Sare sozialak menderatzea eta diseinu grafikoaren inguruko ezagutza baloratuko dira. ☎948 63 71 67.

ZERBITZUAK

DENETARIK

Ingeniari tekniko batek jarduera sailkatuak, proiektuak eta ikerketak

egiten ditu. 688 60 99 05 / joxebe1@gmail.com.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Bi hilabete dituzten ardi **txakurkumeak** oparitzeko. Arrak. ☎620 13 57 21.

ETXALAR. Hiru hilabeteko zakurkumea opari. Pastor alemanen kumea. ☎686 67 31 05.

SALGAI

10 ardi mutur-gorri salgai, emari edo bildotsarekin. ☎607 89 09 66.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,90/4,00
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,20/8,50
- 8-10 kilokoak: 6,00/6,60

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 38 €

Zerri gizona 1,096 €

Zerramak 0,360€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abenduaren 25etik 31ra bitarteko prezioak)

MOTORRAK

SALGAI



Mitsubishi Montero Di-D Kaiteki salgai. Extra guztiakin eta egoera onean. Prezio negoziagarria. Deitu edo WhatsApep. ☎697 74 29 51.

DENETARIK

SALEROSKETAK




90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairua** salgai. Guztia 300 eurotan. ☎673 54 87 67.



Egoera onean dagoen **sukaldea** salgai. Hozkailua, mikroa, labea eta bitrozeramikarekin. Dena 1.850 eurotan. Negoziagarria. ☎650 73 06 00.



Egurrezko hamabi aulki salgai, 120 eurotan (bakoitza 10 eurotan). ☎653 02 13 20 / 685 76 44 00.



Liburutegi-altzaria eta **altzari osagarria** salgai, biak gerezi egurrearekin eginak. ☎696 44 34 27.

Solarium Philips salgai. Gorputz osokoa eta aurpegi babesarekin. Zutik, etzanda eta jarrira erabiltzeko. Tenpo-



BAZTANGO ZA TALLERRA

Peugeot partner 4x4 extreme

BMW Tourana
150 CV - 30.000 km - 7 plaza

Corvus utv 900 - 4x4

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoza@yahoo.es
www.baztangozaitallerrak.com

rizadorea eta itzaltze automatikoa. Mugitzeko erraza eta leku gutti behar da gordetzeko. ☎690 26 57 76.

Belarra salgai, fardo ttikietan, ardi, behor eta behientzako. Ongi idortua. ☎618 96 27 74.

Su-egurra salgai. Eltzaurra eta lizarra, sutarako hautsia: erdia kozinarako eta bertze erdia lurreko surako. Ona eta merke. ☎948 63 40 87 (20:00-22:00).



Sukaldeko txokorako jarlekua (rinconera) salgai. ☎676 38 94 81.

Egongelako eta sarrerako altzariak salgai. Pinu mexikarraren egurrekin egindakoak. ☎676 38 94 81.

SORTZEAK

- **Olaia Sarratea Azkarate**, Doneztebekoa, azaroaren 25ean.
- **Ekai Zubiri Apezetxea**, Goizuetakoa, abenduaren 13an.
- **Haritz Ugarte Almandoz**, Arantzakoa, abenduaren 22an.
- **Pagoa Reoyo Maritxalar**, Lesakakoa, abenduaren 25ean.
- **Xune Arretxea Ibarra**, Sunbillakoa, abenduaren 27an.
- **Izar Nabarte Barriola**, Goizuetakoa, urtarrilaren 1ean.

EZKONTZAK

- **Juan Ignacio Paul Arzak** eta **Fausta Juanikorena Juanikorena**, Zubietakoak, abenduaren 26an Zubietan.

BERAKO UDALA

ALKATEAREN
EBAZPENA
- HIRIGINTZA -

Berako Udaleko Alkateak, azaroaren 16an emandako 249/2020 Ebazpenaren bitartez, 7. poligonoko 301. partzelako Xehetasun Azterlana -Itzea Karrika, 4-, onetsi zuen hasiera batez.

Espedientea jendaurrean izanen da hogei lanegunez, dagokion iragarkia N.A.O.n argitara ematen denetik (iragarkia 2020ko abenduaren 10eko 285. N.A.O.ean argitaratu da).

Bera, 2020-12-11
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña



SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT

DACIA DUSTER dci 110 CV 4X4
2011 urtekoa - 163.000 km

HYUNDAI TUCSON 2.0 D 140 4X4
2008 urtekoa - 133.000 km

www.talleressantesteban.com

DOÑEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

GALDU-AURKITUAK

Urroz eta Labaien artean **bi ardi antxu** galdu dira. ☎678 23 82 46.

BERA. Giltzak galdu dira. ☎610 95 61 30.


HILBERRIAK

- **Cornelio Ubiria Leiza**, Arantzakoa, azaroaren 29an, 97 urte zituela.
- **Roxari Etxegarai Irazoki**, Berakoa, abenduaren 2an, 91 urte zituela.
- **Maricruz Salaberria Eskudero**, Igantzakoa, abenduaren 3an, 88 urte zituela.
- **Maite Ortega Laibarra**, Lesakakoa, abenduaren 4an, 95 urte zituela.
- **Francisco Elizegi Arriuria**, Lekarozkoa, abenduaren 4an, 76 urte zituela.
- **Justina Landabere Magirena**, Erratzukoa, abenduaren 6an, 97 urte zituela.
- **Mixel Urbistondo**, Sarakoa, abenduaren 6an, 70 urte zituela.
- **Mª Pilar Etxegarai Mendikoa**, Azpilkuetakoa, abenduaren 8an.
- **Jose Zestau Zestau**, Leitzakoa, abenduaren 8an, 74 urte zituela.
- **Sofia Latasa Donazar**, Elizondokoa, abenduaren 9an, 101 urte zituela.
- **Jacinto Jaso Vidan**, Elizondokoa, abenduaren 9an.
- **Martin Etxenike Irigoien**, Zigakoa, abenduaren 10ean, 58 urte zituela.
- **Mª Jesus Maia Ariztia**, Irurita-Kanbokoa, abenduaren 11n, 92 urte zituela.
- **Luis Madariaga Matxikote**, Arantzakoa, abenduaren 14an, 91 urte zituela.
- **Mª Josefa Mindegia Irazoki**, Berakoa, abenduaren 14an, 91 urte zituela.
- **Jose Etxeberria Eiheragarai**, Arizkungoa, abenduaren 14an, 69 urte zituela.
- **Mª Carmen Lamana Lopez**, Elgorriagakoa, abenduaren 14an, 96 urte zituela.
- **Ignacia Ondikol Santesteban**, Amairukoa, abenduaren 15ean.
- **Bego Goñi Erasun**, Lesakakoa, abenduaren 15ean, 58 urte zituela.
- **Pili Mikelerena Descarga**, Lesakakoa, abenduaren 16an, 95 urte zituela.
- **Gregorio Sagastibeltza Sagastibeltza**, Leitzakoa, abenduaren 17an, 82 urte zituela.
- **Mª Jesus Nabarte Salaberria**, Goizuetakoa, abenduaren 17an, 54 urte zituela.
- **Julia Villabona Saralegi**, Leitzakoa, abenduaren 17an, 92 urte zituela.
- **Juan Antonio Lasarte Zubitur**, Leitzakoa, abenduaren 18an, 84 urte zituela.
- **Jose Luis Martinez Barranco Perez**, Leitzakoa, abenduaren 22an, 86 urte zituela.
- **Juan Montero Caletrio**, Erratzukoa, abenduaren 25ean, 75 urte zituela.
- **Miguel Mari Irigoien Iparragirre**, Lesakakoa, abenduaren 26an, 80 urte zituela.
- **Tomas Bertiz Etxegarai**, Erratzukoa, abenduaren 27an, 85 urte zituela.
- **Clarita Goñi Inda**, Arizkungoa, abenduaren 27an, 77 urte zituela.
- **Mª Pilar Otermin Saralegi**, Aresokoa, abenduaren 29an, 75 urte zituela.
- **Jose Iriarte Zozia**, Oronoz-Mugairikoa, abenduaren 30ean, 85 urte zituela.
- **Micaela Maritorea Gaztelu**, Berroetakoa, urtarrilaren 1ean, 83 urte zituela.
- **Emilio Aguilar Soria**, Lesakakoa, urtarrilaren 1ean.
- **Loli Otxandorena Lasaga**, Gartzaingoa, urtarrilaren 2an, 52 urte zituela.

OROIGARRIA

Ceferino APEZETXEA ZUBIRI
Antton UITZI LUJANBIO

Gogoan izango zaituztegu beti.



Goizueta, 2021eko ilbeltza

UMORE-ONA ELKARTEA

OROIGARRIA

Roxari
ETXEGARAI IRAZOKI

Beran, 2020ko abenduaren 2an,
91 urte zituela



Zure poza eta maitasuna
eman zenizkigun;
zure goxotasunaren oroitzapena
gelditu zaigu.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

Julia
VILLABONA SARALEGI

Leitzan, 2020ko abenduaren 17an, 92 urte zituela.



Maieta baserrian jaiou eta
Uruguaiara gaztetan
han urte luzez senarrarekin
aritu zen lan eta lan
Leitzara itzuli, taberna jarri
gustura bertako saltsan
jubilatzean gozaten hasi
beti irrintzia ahoan
ta irrintzi hoiien oihartzuna
dago gure bihotzetan.



ZURE FAMILIA

BEILATOKIAK
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN

*Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan*



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

Hurbiltasuna eta begirunea

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



**BAZTAN
BIDASOA**
Ehorzketaz Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDON Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAN San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEN Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara


24 948 63 74 04 / 948 19 70 70



ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

- ▶ **Eskelak, Esker Onak eta Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalizatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).

URTEBETETZEAK



Arraiozko **Lide Lournagarai Perotxenak** 2 urte bete ditu abenduaren 19an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik! Muxu aunitz!



Naroa Belauntzarán Zabaleta Aresoko panpoxak abenduaren 12an 10 urte bete ditu. Zorionak osaba eta izebaren partetik. Beti bezain alai segi! Muxu bat!



Arantzako **Maialen Landa Iparragirrek** 2 urte bete ditu urtarrilaren 2an. Aunitz urtez familia guztiaren partetik.



Bertze urte batez **Mikel San Sebastian Gaztelumendik** urrutit eta egoera zailean urteak bete ditu. Etxekoen partetik besarkada bero bat eta maitasuna.



Sabina Sarasua Cano: zorionak hire lehenbiziko urtean eta aunitzez gehiago bete ditzanala, bihotz-bihotzez, Nikole, Ulises, ama eta aitaren partetik.



Naroa Etxeberria Martinek 5 urte bete ditu abenduaren 25ean. Zorionak Elizondo eta Elgorriagako familiaren partetik. Muxu bat ama, aita eta Iratiren partetik.



Gure etxeko printzesak, **Izaro De La Fuente Mujikak**, abenduaren 25an lau urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Iraia eta Danelen partetik. Muxu handi bat.




Gorka Etxarte Abuinek 3 urte bete ditu abenduaren 15ean. Zorionak familiaren partetik, eta bereziki Silbiaren partetik.



Ainhizek eta Klemenek 6 eta 37 urte bete dituzte urtarrilaren 2an eta 10ean. Aunitz urtez familia guztiaren partetik, eta bereziki Unax eta amattoren partetik. Muxu handi bat bie!!!



Enaitz Agesta Petrirenak 8 urte bete ditu abenduaren 29an. Bortzirietako artzainari zorionak Izarne, aita, ama eta bi aitaxien partetik.



Leitzako **Eñaut Bidart Zabaleta** eta osaba **Jon Zabaleta Atxutegik** ilbeltzaren 17an eta 27an, 9 eta 37 urte beteko dituzte. Urte askoz *txikitos!* Eguna ahalik eta hobekien ospatu dezazuela eta beti bezain jator eta bihurri segi! Muxu erraldoi bana familiaren partetik.




Iraide eta Garaine sunbildarrek 12 urte beteko dituzte urtarrilaren 19an. Aunitz urtez bikote etxeko guztien partetik eta bereziki zuren lehengusu Ander eta lbairaren partetik. Ongi ospatu zuen urtebetetze eguna!!!!



Sunbillako **Ander Petrarena Gorosterrazuk** 3 urte beteko ditu urtarrilaren 24an. Aunitz urtez etxeko guztien partetik eta bereziki zure anaia lbairaren partetik. Ongi ospatu zure urtebetetze eguna *bixito!*



Ander Petrarena Gorosterrazu etxeko bitxitoak urtarrilaren 24an 3 urte beteko ditu. Zeinen azkar pasatzen diren urteak. Aunitz urtez Anderxto familia guztiaren partetik eta bereziki Iraide eta Garaine zure lehengusinen partetik. Muxuak *prexiexo.*



Sunbillako **Iraide eta Garaine Iriarte Petrirenak** urtarrilaren 19an jada 12 urte beteko dituzte. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki atxa eta amaren partetik. Egun ederra pasa dezazuela. Besarkada handi bat.



Sunbillako **Hilario Urtxegi eta Anparo Gelbentzuk** urtarrilaren 23an urrezko ezteiak eginen dituzte. Gu guztiongatik egin duzuen guztiarengatik eskerrak aunitz. Muxu handi bat denen partetik, eta bereziki Olaia eta Hegoa biloben partetik. Zorionak!



Doneztebeko **Iraide Gogortza Etxeberriak** 7 urte beteko ditu urtarrilaren 21ean. Zorionak eta muxu pila bat amaxoren partetik!!



Andres Altzugarai Contrerases urtarrilaren 17an 9 urte beteko ditu. Zorionak Almandozko aitaixi, amaxi eta osabaren partetik!



Aunitz urtez **Gurutze!** Bulegoko arantzarrak urteak beteko ditu ilbeltzaren 14an. Uste zenuen ez ginela oroituko?! Ongi pasa eguna!

Aunitz urtez!


Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta, **TITI-TTAPAREN** **bulegoan** edo **postaz** argazkia eta testua Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera bidalita.

Ordaintzeko:

- (1) Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) (2) Hegoaldetik postaz 0,65 €ko 10 edo 20 seilu.
- (3) Iparraldetik postaz 5 edo 10 €ko txekia.
- (4) **ERRAN.EUSEN** bitartez.

PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

ISPILUAN

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Zortzi dira.

Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aiuurri)



BEGIRA!

Horra katua neguari begira.
Osatu lauki zuriak BEGIRA hitza
osatzen duten letrak kontuan hartuta
(B, E, G, I, R eta A). Gogoratu, letra
bakoitzak behin agertu behar duela zutabe,
lerro eta area bakoitzeko.



| | | | | |
|---|---|---|--|---|
| B | I | G | | R |
| R | | A | | |
| | G | | | |
| | | R | | |
| | A | | | |
| G | R | B | | A |



MARRAZTU ETA MARGOTU

Apaindu Gabonetako izeia. Izan zaituzte
ausarta eta jar itzazu inork esperoko
ez lituzkeen elementuak.

INTERNETEN ERE BAI!
<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



Ttipi Txartela

rekini beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

772

aleko irabazleak >



Gabonetako 1. lotea
Izaskun Danboriena Urrutia | AZPILKUETA
Gabonetako 2. lotea
Patricia Cosma | LEGASA
Gabonetako 3. lotea
Maider Ansalas Sanzberro | ETXALAR

ZOZKETAK

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO
www.onddotapunto.com




Kamiseta bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

Galaxy Park
www.galaxypark.eus



2 sarrera

LESAKA
www.lesakakoudalkiroldegia.com



2 sarrera

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com



Lote bat

MUSIKA



Pirritx, Porrotx eta Marimotots
- Antzinako zuhaitza
- Irrien Lagunak

Katxiporreta
www.katxiporreta.eus

LAGUNTZAI LEAK



www.baga-biga.eus



www.lesakakoudalkiroldegia.com